

Nokia C6-01 erabiltzailearen gida

Edukia		Testua idaztea	26
		Pantailako adierazleak	29
Segurtasuna	5	Jakinarazpen-argia ezartzea galdutako deiak edo mezuak daudenean keinu egin dezan	31
Lehen urratsak	7	Gailuan eta Interneten bilatzea	31
Teklak eta atalak	7	Gailua lineaz kanpo erabiltzea	31
Aldatu deien, abestien edo bideoen bolumena	9	Bateriaren iraupena luzatu	32
Teklak eta pantaila blokeatzea edo desblokeatzea	9	Pertsonalizazioa	33
SIM txartela sartu	10	Profilak	33
Memoria-txartela sartu edo kendu	11	Gaia aldatzea	34
Kargatzea	12	Hasierako pantaila	34
Antenen kokapena	15	Aplikazioak antolatzea	37
Uhala jartzea	15	Telefonoa	37
Aurikularrak	16	Telefono-zenbakietara deitzea	37
Gailua piztea edo itzaltzea	16	Deiak erantzun	37
Nokia kontua eta Nokia-ren Ovi zerbitzuak	16	Kontaktuak bilatzea	38
Gailu zaharretik kontaktuak edo argazkiak kopiatzea	17	Deiak ukatu	38
Gailuaren konfigurazioa	18	Kontaktuei deitzea	39
Gailuan dagoen erabiltzailearen gida erabiltzea	18	Zain dauden deiak erantzun	39
Nokia Ovi Suite PCan instalatzea	18	Bideo dei bat egin	40
Arakatu Nokia-ren Interneteko Ovi zerbitzuak	20	Erantzun bideo-deiak	41
Ovi by Nokia	20	Ukatu bideo-deiak	41
Ovi Posta zerbitzuari buruz	20	Telekonferentzia bat hasi	41
Ovi Mapak zerbitzuari buruz	20	Markatze bizkorra erabiltzea	42
Ovi Musika zerbitzuari buruz	21	Ahotsa erabiltzea kontaktu bati deitzeko	43
Ovi dendari buruz	21	Interneten bidez deiak egitea	44
Oinarrizko erabilera	21	Markatutako azken zenbakira deitzea	45
Ukipen-pantailaren ekintzak	21	Telefono-hizketaldiak grabatzea	45
Hasierako pantailaren elementu interaktiboak	24	Isilarazteko biratzea	45
Irekitako aplikazio batetik bestera aldatzea	25	Galdutako deiak ikustea	45
		Ahots-postontzira deitzea	46
		Deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbideratzea	46
		Deiak egitea edo jasotzea eragozte	47

Zenbaki jakin batzuetara soilik deitzea baimentzea	47	Web-jarioetara harpidetzea	60
Bideoak partekatzea	48	Inguruko gertaeren berri izatea	61
Kontaktua	50	Sare sozialak	61
Kontaktuei buruz	50	Aplikazio sozialari buruz	61
Telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoko gordetzea	50	Lagunen egoera-eguneratzeak ikuspegi bakarrean ikustea	62
Jasotako deien edo mezuen zenbakia gordetzea	50	Argitaratu zure egoera sare sozial zerbitzuetan	62
Jenderik garrantzitsuena azkar kontaktatzea	51	Zure lineako lagunak dagokien harremanetarako informazioarekin lotzea	62
Kontaktu jakin baten dei-tonua ezartzea	51	Zure lagunaren egoera-eguneratzeak hasierako pantailan ikustea	63
Harremanetarako informazioa bidaltzea Nire txartela erabiliz	52	Argazkiak zerbitzuetara igotzea	63
Kontaktuen taldeak sortzea	52	Kokapena egoera-eguneratzean partekatzea	63
Pertsona-talde bati mezuak bidaltzea	52	Sare sozialetako lagunekin harremanetan jartzea	64
SIM txartelean gordetako kontaktuak	52	Gailuaren egutegian gertaerak gehitzea	64
Ovi by Nokia zerbitzuan kontaktuen babeskopiak egitea	53	Kamera	65
Mezularitza	53	Kamerari buruz	65
Mezularitzari buruz	53	Atera argazkiak	65
Mezuak bidaltzea	54	Argazkien eta bideoen kokapen-informazioa gordetzea	65
Audio mezuak bidaltzea	54	Iluntasunean argazkiak ateratzea	66
Mezuak jasotzea	55	Argazkietarako aholkuak	66
Hizketaldiak ikustea	55	Bideoak grabatzea	67
Testu-mezuak entzutea	56	Argazkiak bidaltzea	67
Hizkuntza aldatzea	56	Zure argazkiak eta bideoak	67
Posta	57	Argazkiei buruz	67
Posta	57	Argazkiak eta bideoak ikustea	67
Hasierako pantailatik posta irekitzea	59	Atera dituzun argazkiak editatzea	68
Internet	59	Atera dituzun argazkiak inprimatzea	68
Webari buruz	59	Argazkiak eta bideoak telebistan ikustea	69
Weba arakatzea	59	Bideoak eta TB	69
Laster markak gehitzea	60		

Bideoak	69	Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratuta izatea	103
Web bidezko telebista ikustea	70	Fitxategiak kudeatzea	104
Musika eta audioa	71	Memoria eskuragarria areagotzea eduki gehiago sartzeko	106
Musika erreproduzizgailua	71	Aplikazioak kudeatzea	106
Eduki babestua	74	Edukia sinkronizatzea	107
Soinuak grabatzea	74	Kontaktuak edo argazkiak gailuen artean kopiitzea	109
FM irratia	74	Gailua babestea	110
Mapak	76	Laguntza gehiago aurkitzea	111
Mapak aplikazioaren ikuspegi orokorra	76	Laguntza	111
Nire kokapena	77	Sarbide kodeak	111
Bilatu tokiak	81	Arazoak bilatu eta konpondu	112
Gogokoak	82	Jatorrizko ezarpenak berrezartzea	112
Kokapena partekatzea	84	Zer egin memoria beteta dagoenean?	112
Gidatu eta oinez	84	Mezu-adierazlea keinuka	112
Denbora antolatzea	89	Kontaktu bat bitan agertzen da kontaktuen zerrendan	113
Erlojua	89	Karaktere irakurtezinak weban nabigatzean	113
Egutegia	91	Gailua birziklatzeko prestatzea	113
Bulegoa	93	Aholku ekologikoak	113
Quickoffice	93	Aurreztu energia	114
PDF dokumentuak irakurtzea	94	Birziklatu	114
Kalkuluak egitea	94	Produktu- eta segurtasun-informazioa	114
Oharrak idaztea	94	Aurkibidea	122
Hizkuntza batetik bestera hitzak itzultzea	95		
Zip fitxategiak irekitzea edo sortzea	95		
Konexioak	95		
Interneteko konexioak	95		
Hari gabeko LAN	96		
Bluetootha	97		
USB datu-kablea	100		
Sare-konexioa ixtea	102		
Fitxategiak urruneko unitate batean gordetzea	102		
Gailuaren kudeaketa	103		

Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoia izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.

DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI



Itzali telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor badezake, adibidez, hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan.

ERREPIDEAN KONTUZ IBILTzea DA GARRANTZITSUENA



Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.

INTERFERENTZIAK



Haririk gabeko telefono guztiak interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.

ZERBITZU HOMOLOGATUA



Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.

TELEFONOA LEHOR MANTEN EZAZU



Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor manten ezazu.

KRISTALEZKO ZATIAK



Telefonoaren aurrealdeko estalkia kristalezkoa da. Kristal hori hauts daiteke telefonoa objektu gogor batekin topatzen bada edo kolpe gogorren bat jasotzen badu. Kristala hautsiz gero, ez ukitu telefonoaren kristalezko zatiak eta ez saiatu telefonoko kristalezko zatiak kentzen. Utzi telefonoa erabiltzeari baimendutako zerbitzuko langileek kristala ordeztu arte.

ZURE ENTZUMENA BABES EZAZU




Erabili entzungailuak bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

Lehen urratsak

Teklak eta atalak Aurrealdea



- 1 Entzungailua
- 2 Argi-sentsorea
- 3 Hurbiltasun-sentsorea. Ukipen-pantaila automatikoki desgaitzen du deian zehar.
- 4 Menu-tekla
- 5 Deitzeko tekla
- 6 Bigarren kamera
- 7 Pizteko/Amaitzeko tekla



Ez estali ukipen-pantailaren gaineko area, babesteko materialarekin adibidez.

Alboak, atzealdea eta azpialdea



- 8 Kameraren flasha/Linterna
- 9 Bolumen/Zoom tekla
- 10 Blokeo-tekla / Blokeo linterna
- 11 Kameraren tekla
- 12 Kamera
- 13 Bozgorailua
- 14 Kargagailuaren konektorea
- 15 Uhala
- 16 Karga-adierazlea
- 17 Nokia AV konektorea (3,5 mm)
- 18 Micro USB konektorea
- 19 Mikrofonoa

Ukipen-pantaila

Gailua kontrolatzeko, ukitu pantaila arinki atzamar puntarekin. Pantailak ez du erantzuten azazkalak erabiltzen badituzu.

Zure hatzak hotzak badaude, baliteke pantailak zure hatzak ez hautematea.

Ukipen-pantaila ez urratzeko, inoiz ez erabili arkatzik, boligraforik edo beste objektu puntadunik ukipen-pantailan idazteko.

Linterna

Kameraren flash linterna gisa ere erabil daiteke. Linterna pizteko edo itzaltzeko, eduki lerratuta blokeo-tekla bi segundoz.

Linterna hasierako pantailan zaudenean soilik erabil daiteke. Gailuaren teklak eta pantaila blokeatuta badaude ere, hasierako pantailatik piz dezakezu linterna.

Ez bideratu linterna inoren begietara.

Aldatu deien, abestien edo bideoen bolumena

Erabili bolumen-teklak.

Deiak irauten duen bitartean edo aplikazioa aktibo dagoenean bolumena doitu dezakezu.

Bozgorailu inkorporatuarekin, telefonoa belarritik distantzi motzean edukiz hitz egin daiteke.

Bozgorailua aktibatzea edo desaktibatzea dei batean zehar

Aukeratu  edo .

Teklak eta pantaila blokeatzea edo desblokeatzea

Gailua patrikan edo poltsan daramazunean deiak nahi gabe egitea saihesteko, blokeatu gailuaren teklak eta pantaila.

Mugitu blokeo-etengailua.



Aholkua: Blokeo-etengailua eskuragarri ez badago, gailua desblokeatzeko, sakatu menu-tekla eta hautatu **Desblok..**

Teklak eta pantaila automatikoki blokea daitezen ezartzea

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Pantaila > Pant./tekl.-bab. den.-mug..**

10 Lehen urratsak

- 2 Zehaztu zenbat denboraren ondoren blokeatuko diren teklak eta pantaila automatikoki.


SIM txartela sartu




Garrantzitsua: Ez erabili micro-SIM txartelak edo micro-SIM txartelak egokigailuekin gailu honetan. Gailu honek ez du micro-SIM txartelak erabiltzerik onartzen, eta SIM txartel bateraezinak erabiltzeak txartela edo gailua kalte dezakete, eta txartelean biltegitratutako datuak honda ditzakete.

Ez jarri eranskailurik SIM txartelean.


- 1 Telefonoaren atzeko estalkia kentzeko, sakatu atzeko estalkia hatzekin, labaindu kanpoaldera, eta kendu.




- 2 Bateria kendu.




- 3 Ireki SIM txartelaren koskaren estalkia.



- 4 SIM txartela bere hutsunean sartu. Ziurtatu txartelaren kontaktu-eremua behera begira dagoela.



- 5 Itxi SIM txartelaren euskarria eta lerratu estalkia blokeatzeko.



- 6 Bateria eta atzeko tapa berriz jarri.

Memoria-txartela sartu edo kendu

Nokia-k telefono honekin erabiltzeko onartu dituen MicroSD eta MicroSDHC txartel bateragarriak bakarrik erabili (Speed Class 4 behar da HD bideoak ikusteko). Bateraezina den txartel bat erabiliz gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.




Ez jarri eranskailurik memoria-txartelean.

Memoria-txartela sartzea

Memoria-txartela oraindik sartuta ez badago:


- 1 Kendu atzeko estalkia.
- 2 Ziurtatu memoria-txartelaren kontaktuak behera begira daudela. Bultzatu txartela barrurantz klik bat entzuten duzun arte.



3 Ezarri atzeko estalkia.

Memoria-txartela kentzea


- 1 Bultzatu txartela barrurantz klik bat entzuten duzun arte.
- 2 Atera txartela.



Kargatzea


Bateriari buruz

Gailuak bateria aldagarri eta birkargagarria dauka. Erabili Nokia-k gailu honetarako onartzen dituen kargagailu homologatuak soilik. Gailua kargatzeko USB kable bateragarria ere erabil dezakezu.


Bateriari karga gutxi geratzen zaionean, bateria aurrezteko modua aktibatzen da. Energia aurrezteko modua desaktibatzeko, sakatu  eta hautatu **Deskrib. energia aurrez.** Energia aurrezteko modua aktibatuta dagoenean, zenbait aplikazioetako ezarpenak aldatzea ezinezko gerta dakizuke.

Sartu bateria

- 1 Kendu atzeko estalkia.
- 2 Lerrokatu bateriaren kontaktuak, eta sartu bateria.




3 Ezarri atzeko estalkia.



Bateria kargatzea


Bateria zertxobait kargatu da fabrian, baina baliteke berriro kargatu behar izatea gailua lehenengo aldiz piztu aurretik.

Gailuak karga baxua adierazten badu, egin hurrengoa:



1

2




Ez duzu bateria denbora jakin batean zehar kargatu behar, eta kargatzen dagoen bitartean erabil dezakezu.

Bateria guttiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Bateria luzaroan erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da bateria kargatzen has dadin.


Aholkua: USB kargagailu bateragarria ere erabil dezakezu bateria kargatzeko.



Bateria USB bidez kargatzea

Bateria gutxi duzu baina ez duzu kargagailurik? USB kable bateragarria erabil dezakezu gailu bateragarri batera konektatzeko, hala nola ordenagailu batera.

Kargagailuaren konektorea ez apurtzeko, kontu izan kargagailuaren kablea konektatzean eta deskonektatzean.



Ordenagailu batera konektatuta badago, gailua kargatzen den bitartean sinkroniza dezakezu.

Baliteke USB datu-kablea erabiliz kargatzean denbora gehiago behar izatea kargatzen hasteko, eta ezin kargatzea energiarik gabeko konexio-bloke bat erabiliz gero. Gailua azkarrago kargatuko da hormako entxufe batera konektatuta badago.

Bateria kargatzen ari denean, USB konektorearen alboan dagoen karga adierazlearen argia piztuta dago. Bateria gutxi duenean, karga adierazlearen argiak distira egiten du. Kargatzen hasteak tarte bat har dezake.


Antenen kokapena

Saihestu antena behar ez denean erabiltzen antena transmititzen edo jasotzen ari den bitartean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du; gainera, telefonoak beharrezkoa baino batera gehiago gasta lezake eta, ondorioz, bateriaren iraupena murriz liteke.




Uhala jartzea

Sartu uhala irudian agertu bezala, eta ezarri estalkia.





Aurikularrak

Entzungailu bateragarriak konekta ditzakezu gailura.



Gailua piztea edo itzaltzea

Eduki sakatuta .



Nokia kontua eta Nokia-ren Ovi zerbitzuak

Gailua lehenengoz pizten duzunean, Nokia kontu bat sor dezakezu, Nokia-ren Ovi zerbitzuetara sartu ahal izateko.

Ovi zerbitzuekin eta Nokia-ko kontuarekin, besteak beste, hauek egin ditzakezu:

- Ikusi lagunek sare sozial zerbitzu desberdinetan dituzten egoerak

- Jokoak, aplikazioak, bideoak, argazkiak, gaiak eta dei-tonuak Ovi Dendatik deskargatu
- Joan nahi duzun tokira iritsi oinezko eta gidatuzko nabigazioa erabiliz
- Kontaktuen babeskopia egin eta kontaktuak kudeatu Interneteko Ovi zerbitzuan


Ovi-ri buruz gehiago jakiteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Nokia kontua geroago sortzeko, erabili gailua Ovi zerbitzuren batean sartzeko, eta bertan kontu bat sortzeko eskatuko zaizu.

Gailu zaharretik kontaktuak edo argazkiak kopiatzea

Nokia gailu bateragarri zaharretik informazio garrantzitsua kopiatu eta gailu berria azkar erabiltzen hasi nahi al duzu? Erabili Datu-transfer. aplikazioa, besteak beste, kontaktuak, egutegiko sarrerak eta argazkiak gailu berrian doan kopiatzeko.


Hautatu **Menua > Aplikazioak > Tresnak > Tel. konfig. eta Datu-transfer..**







Nokia gailu zaharrak Datu-transfer. aplikaziorik ez badu, gailu berriak mezu bidez bidaliko dio. Ireki mezua gailu zaharrean eta jarraitu argibideak.

- 1 Hautatu zein gailura konektatu nahi duzun eta parekatu gailuak. Bluetootha aktibatuta egon behar da.
- 2 Beste gailuak kodea eskatzen badu, sartu kodea. Kodea, zuk zeuk zehatz dezakezuna, bi gailuetan sartu behar da. Zenbait gailuren kodea finkoa da. Xehetasunetarako, ikus gailuaren erabiltzailearen gida.
Kodeak uneko konexiorako balio du soilik.
- 3 Hautatu edukia eta **Ados**.

Gailuaren konfigurazioa

Gailuaren zenbait oinarritzko ezarpen zehazteko, hautatu hasierako pantailaren batean duzun Tel. konfig. lasterbidea . Hasierako pantaila batetik bestera aldatzeko, mugitu ezkerrera edo eskuinera.

Tel. konfig. aukerarekin, honakoa egin dezakezu:

-  Kopiatu kontaktuak, argazkiak eta eduki gehiago zure Nokia gailu zaharretik berrira
-  Pertsonalizatu gailua dei-tonuak eta gai bisualak aldatuta
-  Konfiguratu posta
-  Eguneratu gailuaren softwarea

Ezarpenak geroago zehazteko, **Menua > Aplikazioak > Tresnak > Tel. konfig.** ere hauta dezakezu.

Gailuan dagoen erabiltzailearen gida erabiltzea

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Erabil. gida.**

Erabiltzailearen gida aplikazio batetik irekitzea

Hautatu **Aukerak > Erabiltzailearen gida.** Ez dago eskuragarri aplikazio guztietarako.

Erabiltzailearen gidan bilatzea

Erabiltzailearen gida irekita dagoenean, hautatu **Aukerak > Bilatu** eta sartu hizki edo hitz bat bilaketa-eremuan.

Erabiltzailearen gidatik aplikazio batera aldatzea

Eduki sakatuta menu-tekla, arrastatu ezkerrera edo eskuinera eta hautatu nahi duzun aplikazioa.


Lotutako gaien estekak argibideen amaieran egon daitezke.  irudiak erlazionaturiko gai baten esteka bat adierazten du eta  irudiak web orri baten esteka.


Nokia Ovi Suite PCan instalatzea

Nokia Ovi Suite PC aplikazioarekin, gailuan duzun edukia kudea dezakezu eta ordenagailuarekin sinkronizatuta izan. Gailua azken softwarearekin eguneratu ere egin dezakezu, eta mapak deskarga ditzakezu.


Deskargatu Nokia Ovi Suite-ren azken bertsioa www.ovi.com/suite helbidean.

Ezin baduzu Internetera konektatu, Ovi Suite eta Nokia Ovi Player gailutik instalatzeko:

- 1 Erabili USB datu-kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko. Ordenagailuan Windows XP edo Windows Vista erabiliz gero, ezarri gailuaren USB modua **Nokia Ovi Suite** gisa. Zure telefonoan, hautatu jakinarazpen eremua eskuineko goi izkinan eta hautatu  > **USB** > **Bilteg. masiboa**. Memoria-txartela disko erauzgarri gisa agertzen da PCan.




- 2 PCan, hautatu **Instalatu Nokia Ovi Suite**.



Instalazio-leiho automatikoki irekitzen ez bada, ireki instalazio-fitxategia eskuz. Hautatu **Ireki karpeta fitxategiak ikusteko** eta sakatu bitan **Install_Nokia_Ovi_Suite.exe**.




- 3 Jarraitu argibideak.
- 4 Instalazioa amaitzean, ordenagailuan Windows XP edo Windows Vista erabiliz gero, ezarri gailuaren USB modua **Nokia Ovi Suite** gisa. Zure telefonoan, hautatu jakinarazpen eremua eskuineko goi izkinan eta hautatu  > **USB** > **Multim.-transf.**.

Ovi Suite aplikazioari buruz gehiago jakiteko, zoaz www.ovi.com/suite helbidera.

Arakatu Nokia-ren Interneteko Ovi zerbitzuak

Ovi by Nokia

 Ovi by Nokia zerbitzuarekin, toki eta zerbitzu berriak aurki ditzakezu eta lagunekin harremanetan egon zaitezke. Honakoa egin dezakezu, besteak beste:

- Deskargatu jokoak, aplikazioak, bideoak eta dei-tonuak gailuan
- Bilatu zure bidea doako oinezko zein gidatuzko nabigazioarekin, antolatu ibilbideak eta ikusi kokapenak mapan
- Lortu doako Ovi Posta kontu bat
- Erosi musika


Elementu batzuk doakoak dira, beste batzuk lortzeko ordaindu egin beharko duzu.

Zerbitzu erabilgarriak desberdinak izan daitezke herrialdearen edo eskualdearen arabera eta ez dira hizkuntza guztiak onartzen.


Nokia-ren Ovi zerbitzuetara sartzeko, zoaz www.ovi.com helbidera eta erregistratu zure Nokia kontua.

Laguntza eta informazio gehiago lortzeko, joan www.ovi.com helbidera.

Ovi Posta zerbitzuari buruz

 Ovi Postarekin, web-posta hornitzaile ezagunenen kontuetako posta erraz atzitu ahal izango duzu. Nokia-ko kontu bat sortzen baduzu, Ovi zerbitzuan doako posta-kontu bat eskuratuko duzu gailu mugikorrean zein ordenagailuan erabiltzeko. Spamaren aurkako babesak postontzia garbi mantentzen lagunduko dizu, eta birusen aurkako babesak segurtasuna areagotzen du.

Ovi Mapak zerbitzuari buruz


 Gailuko Ovi Mapak aplikazioarekin mapan non zauden ikusi ahal izango duzu bizkor eta nahi duzun tokira joateko oinezko zein gidatuzko nabigazio-jarraibideak eskuratuko dituzu doan. Ovi Mapak ordenagailuan ere erabil dezakezu.

Hauek egin ditzakezu:

- Bilatu helbideak, toki interesgarriak eta zerbitzuak
- Ikusi tokien xehetasunak, hala nola, eguraldi-iragarpenak, erabilgarri badaude
- Gorde gogoko tokiak eta antolatu bildumetan www.ovi.com helbidean
- Sinkronizatu gordetako elementuak gailu mugikorrarekin eta atzi itzazu edonoiz eta edonon


Ovi Mapak Interneteko zerbitzua erabiltzeko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Ovi Musika zerbitzuari buruz

 Ovi Musika zerbitzuarekin, abestiak eros eta deskarga ditzakezu gailura eta ordenagailura eta batetik bestera kopia ditzakezu. Musika-bildumak eta deskargak kudeatzeko, Ovi Erreproduzīgailua instala dezakezu ordenagailu bateragarri batean, edo Interneteko arakatzailera erabil dezakezu musika deskargatzeko.

Musika ezagutzeko, hautatu **Menua > Musika > Ovi musika** edo joan www.ovi.com helbidera.

Ovi dendari buruz

 Ovi Dendan, mugikorrerako jokoak, aplikazioak, bideoak, argazkiak, gaiak eta deitunuak deskarga ditzakezu gailura. Elementuetariko zenbait doakoak dira; beste batzuk, ordea, erosi egin behar dira kreditu-txartelaren edo telefono-fakturaren bidez ordainduta. Ordainketa-metodoen erabilgarritasuna bizi zaren herrialdearen edo sareko zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da. Ovi Dendak gailu mugikorrekin bateragarria den eta zure zaletasunekin eta kokapenarekin bat datorren edukia eskaintzen ditu.

Oinarrizko erabilera

Ukipen-pantailaren ekintzak

Erabiltzailearen interfazearekin elkar eragiteko, sakatu edo eduki sakatuta ukipen-pantaila.

Aplikazioak edo pantailaren bestelako elementuak irekitzea


Sakatu aplikazioa edo elementua.

Atzitu funtzioak bizkor


Eduki sakatuta elementua. Aukera erabilgarrien laster-menua irekitzen da. Adibidez, irudi bat bidaltzeko edo alarma ezabatzeko, eduki sakatuta irudia edo alarma eta, laster-menuan, hautatu dagokion aukera.



Hasierako pantaila sakatuta edukiz gero, editatze-modua aktibatuko da.




Elementuak arrastatzea



Eduki sakatuta elementua eta mugitu atzamarra pantailan zehar. Elementuak zure atzamarra jarraituko du.

Elementuak hasierako pantailara edo menu nagusira mugi ditzakezu, editatzeko modua aktibatuta dagoenean.

Arrastatzea



Jarri atzamarra pantailan eta mugitu etengabe nahi duzun norabidean.


Adibidez, argazki bat ikusten ari zarenean, hurrengo ikusteko, mugitu ezkererantz.

Zerrendetan edo menuetan zehar mugitzea

Jarri hatza pantailan, labaindu azkar pantailan gora eta behera eta altxatu hatza.

Pantailako edukia hatza altxa duzuneko abiadura eta norabidean mugitzen da.

Korritzen den zerrenda bateko elementu bat hautatzeko eta mugimendua gelditzeko, sakatu elementua.



Handiagotzea

Ezarri bi hatz elementu baten gainean, hala nola, argazki edo web-orri baten gainean, eta urrundu hatzak elkarrengandik.



Txikiagotzea

Kokatu bi atzamarra elementuan eta elkartu atzamarrak.

Aholkua: Elementua ukitu dezakezu bitan handitu eta txikitzeko.

Hasierako pantailaren elementu interaktiboak

Hasierako pantailaren elementuak interaktiboak dira. Adibidez, data eta ordua alda dezakezu, alarmak ezarri, egutegiko sarrerak idatzi edo profilak hasierako pantailan zuzenean editatu.



Alarma jartzea

Hautatu erlojua (1).

Profilak aktibatzea edo editatzea

Hautatu profila (2).

Ordutegia ikustea edo editatzea

Hautatu data (3).

Galdutako deiak eta jasotako mezuak ikustea

Hautatu jakinarazpen-eremua (4).

WLAN eskuragarriak ikustea edo Bluetootharen konektagarritasuna kudeatzea

Hautatu jakinarazpen-eremua (4).

Konektagarritasun-ezarpenak aldatzea

Hautatu jakinarazpen-eremua (4) eta ➡.

Gainontzeko ikuspegi gehienetan, jakinarazpen-eremua (4) hauta dezakezu eta hurrengoa egin:

- Aldatu konektagarritasun-ezarpenak.
- Ireki Erlojua aplikazioa eta ezarri alarma bat.
- Ikusi bateriaren egoera eta aktibatu energia aurrezteko modua.
- Ikusi galdutako deien edo jasotako mezuen jakinarazpenak.
- Ireki WLAN konexioaren laguntzailea eta konektatu WLAN batera.
- Kudeatu Bluetootharen konektagarritasuna.

Irekita aplikazio batetik bestera aldatzea

Atzeko planoan irekita dauden aplikazioak eta atazak ikus ditzakezu, eta batetik bestera alda zaitzake

Eduki sakatuta menu-tekla, arrastatu ezkerrera edo eskuinera eta hautatu nahi duzun aplikazioa.



Aplikazioak atzealdean abian uzten badituzu, bateriaren eta memoriaren erabilera areagotuko da. Erabiltzen ari ez zaren aplikazio bat ixteko, hautatu [X].

Aholkua: Irekita dauden aplikazio guztiak ixteko, eduki hautatuta atazakommutadorea eta, laster-menuan, hautatu **Itxi guztiak**.

Testua idaztea

Teklatu birtualarekin testua idaztea

Teklatu birtuala erabiltzea




Hautatu testua idazteko eremua eta biratu gailua horizontalki.



- 1 Teklatu birtuala
- 2 Ixteko tekla: itxi teklatu birtuala.
- 3 Maiuskula eta Blok Maius teklak: minuskuletan idazterakoan maiuskula bat idazteko edo alderantziz, hautatu tekla karakterea idatzi aurretik. Blok Maius modua aktibatuzeko, hautatu tekla bi aldiz. Teklaren azpiko marrak Blok Maius modua aktibatuta dagoela adierazten du.
- 4 Karaktere-tartea: hautatu nahi duzun karaktere-tartea, hala nola, zenbakiak, karaktere bereziak edo tiletak dituztenak.
- 5 Gezi-teklak: mugitu kurtsorea ezkerrera edo eskuinera.
- 6 Zuriune-barra: sartu zuriune bat.
- 7 Idazketa-menua: aktibatu testu iragarlea edo hautatu idazteko hizkuntza.
- 8 Enter tekla: mugitu kurtsorea hurrengo lerroa edo hurrengo idazketa-eremura. Funtzio gehigarriak uneko testuinguruan oinarritzen dira. Adibidez, web nabigatzailearen web helbidearen eremuan, Joan ikono gisa jarduten du.
- 9 Atzera-tekla: ezabatu karaktere bat.

Teklatu birtualarekin testu iragarlea aktibatzea

Baliteke testu iragarlea eskuragarri ez egotea hizkuntza guztietan.

- 1 Hautatu  > **Sarrera-aukerak** > **Aktibatu auresatea**.   bistaratuko da.
- 2 Hasi hitz bat idazten. Gailuak izan daitezkeen hitzak proposatzen dizkizu idazten duzun bitartean. Hitz zuzena agertzen denean, hautatu hitza.
- 3 Hitza hiztegian ez badago, gailuak hiztegian dagoen beste hitz bat proposatuko dizu. Hitz berria hiztegian gehitzeko, hautatu idatzi duzun hitza.

Testu iragarlea desaktibatzea

Hautatu  > Sarrera-aukerak > Desaktib. aurretatea.


Idazketa-metodoaren ezarpenak aldatzea

Hautatu  > Sarrera-aukerak > Ezarpenak.

Teklatu birtualarekin testua idaztea

Teklatu birtuala erabiltzea

Hautatu testua idazteko eremua eta biratu gailua bertikalki.



- 1 Zenbakien teklak
- 2 *: sartu karaktere bereziak edo, testu iragarlea aktibatuta dagoenean eta hitza azpimarratuta agertzen denean, mugitu izan daitezkeen hitzetan zehar.
- 3 Maiuskula-tekla: aldatu maiuskuletatik minuskuletara, eta alderantziz. Testu iragarlea aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu tekla bitan azkar. Hizki eta zenbaki moduen artean aldatzeko, eduki sakatuta tekla.
- 4 Ixteko tekla: itxi teklatu birtuala.
- 5 Gezi-teklak: mugitu kurtsorea ezkerrera edo eskuinera.
- 6 Idazketa-menua: aktibatu testu iragarlea edo hautatu idazteko hizkuntza.
- 7 Atzera-tekla: ezabatu karaktere bat.
- 8 Testu iragarlearen adierazlea (eskuragarri badago): karaktere-sorta, hizki edo zenbaki modua eta testu iragarlea aktibatuta dagoen ala ez adierazten du.

Aktibatu idazketa-metodo tradizionala teklatu birtualarekin.

Hautatu bizkor # birritan.

Idatzi karaktere bat

- 1 Hautatu zenbaki-tekla bat (1 eta 9 bitartean) behin eta berriz nahi den karakterea bistaratu arte. Zenbaki-teklan adierazten diren karaktereez gain, tekla bakoitzak karaktere gehiago ditu erabilgarri.
- 2 Nahi duzun hurrengo hizkia tekla berean badago, itxaron kurtsorea bistaratu arte edo mugitu kurtsorea aurrera eta hautatu tekla berriro.

Zuriuneak sartzea


Hautatu **0**.

Kurtsorea hurrengo lerroa mugitzea

Hautatu bizkor **0** hiru aldiz.

Teklatu birtualarekin testu iragarlea aktibatzea

Testu iragarlea aplikazioa inkorporatutako hiztegi batean oinarritzen da eta bertan hitz berriak gehi daitezke. Testu iragarlea ez dago eskuragarri hizkuntza guztietan.

- 1 Hautatu  > **Aktib. iragarpen testua.**
- 2 Nahi duzun hitza idazteko, erabili 2 eta 9 bitarteko teklak. Hautatu teklak behin letra bakoitzarentzat. Adibidez, "Nokia" hitza idazteko ingelesezko hiztegia hautatu denean, hautatu **6** N letrarentzat, **6** o letrarentzat, **5** k letrarentzat, **4** i letrarentzat eta **2** a letrarentzat.
Tekla bakoitza hautatu ondoren proposatutako hitzak aldatzen dira.
- 3 Hitza zuzena ez bada, hautatu * behin eta berriro hitz zuzena agertu arte.
Hitzaren ondoren ? karakterea agertzen bada, hitza hiztegian ez dagoen seinale izango da. Hitz bat hiztegian gehitzeko, hautatu *, idatzi hitza ohiko idazketa-metodoa erabiliz eta hautatu **Ados**.
- 4 Zuriune bat sartzeko, hautatu **0**. Puntuazio-marka arruntak gehitzeko, hautatu **1** eta, ondoren, hautatu * behin eta berriro puntuazio-marka egokia agertu arte.
- 5 Hasi idazten hurrengo hitza.

Testu iragarlea desaktibatzea

Hautatu azkar # bitan.

Idazketa-hizkuntza zehaztea

Hautatu Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Ukipen-sarrera > Idazketa hizkuntza.






Hizkuntza aldatzea teklatura erabiltzean

Hautatu  > Sarrera-aukerak > Idazketa hizkuntza.




Hizkuntza aldatzea teklatura erabiltzean

Hautatu  > Idazketa hizkuntza.



Pantailako adierazleak**Adierazle orokorrak**

	Ukipen pantaila eta teklatura blokeatuta daude.
	Gailuak isilpean abisatzen zaitu sarrerako deiak edo mezuak jasotzean.
	Alarma ezarri duzu.
	Programatutako profil bat aktibatuta dago.
	Egutegian galdutako gertaera bat duzu.

















Dei-adierazleak

	Norbait deika aritu da.
2	Bigarren telefono-linea erabiltzen ari zara (sareko zerbitzua).
	Gailua konfiguratu duzu sarrerako deiak beste zenbaki batera desbideratzeko (sareko zerbitzua). Bi telefono-linea badituzu, zenbakiak telefono-linea aktiboa adieraziko du.
	Gailua prest dago Interneteko deiak egiteko.
D	Datu-dei bat abian duzu (sareko zerbitzua).









Mezularitza-adierazleak

	Irakurri gabeko mezuak dituzu. Adierazleak keinu egiten badu, SIM txartela beteta egon daiteke mezuentzat.
@	Mezu elektronikoa berria jaso duzu.
	Bidaltzeko zain dauden mezuak dituzu irteera-erretiluan.

Sare-adierazleak

	Gailua GSM sare batera konektatuta dago (sareko zerbitzua).
3G	Gailua 3G sare batera konektatuta dago (sareko zerbitzua).
	GPRS pakete-datuen konexioa duzu (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du eta  ikurrak konexioa ezartzen ari dela.
	EGPRS pakete-datuen konexioa duzu (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa zain dagoela adierazten du eta  ikurrak konexioa ezartzen ari dela.
	3G pakete-datuen konexioa duzu (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa eten dela adierazten du eta  ikurrak konexioa ezartzen ari dela.
	HSDPA pakete-datuen konexioa duzu (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa eten dela adierazten du eta  ikurrak konexioa ezartzen ari dela.
	WLAN konexioa eskuragarri dago (sareko zerbitzua).  ikurrak konexioa enkriptatuta dagoela adierazten du eta  ikurrak konexioa ez dagoela enkriptatuta.

Konexio-adierazleak

	Bluetootha aktibo dago.  ikurrak gailua datuak bidaltzen ari dela adierazten du. Adierazleak keinu egiten badu, zure telefonoa beste gailu batera konektatzen saiatzen arituko da.
	Gailuan USB kable bat konektatu duzu.
	GPSa aktibo dago.
	Gailua sinkronizatzen ari da.
	Gailuan entzungailu bateragarri bat konektatu duzu.
	Gailuan TB irteera-kable bateragarri bat konektatu duzu.
	Gailuan testu-telefono bateragarri bat konektatu duzu.

Jakinarazpen-argia ezartzea galdutako deiak edo mezuak daudenean keinu egin dezan

Gailuak jakinarazpen-argi bat dauka menu-teklan. Argiak keinu egiten duenean, dei bat galdu duzu edo mezu bat heldu zaizu.


Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Telefonoa** > **Jakinar. argiak** > **Jakinarazpen argia**.

Gailuan eta Interneten bilatzea



Bilaketa aplikazioarekin, gailuan dauden elementuak aurki ditzakezu.

- 1 Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bilaketa**.
- 2 Sartu bilaketa-hitz bat bilaketa-eremuan edo arakatu edukien kategoriak.

Aholkua: Hasierako pantailan bilaketa widget bat gehi dezakezu. Bilaketa widget-arekin, Interneten ere bilaketak egin ditzakezu. Eduki sakatuta hasierako pantaila, hautatu  eta zerrendan agertzen den bilatzeko widget-a.

Gailua lineaz kanpo erabiltzea

Irrati-uhinekiko sentikorrek diren inguruneetan, deiak egiteko edo jasotzeko baimenik ez duzun arren, egutegira, kontaktuen zerrendara eta lineaz kanpoko jokoetara sar zaitezke lineaz kanpoko profila aktibatzen baduzu.

Hasierako pantailan, hautatu profila eta **Lineaz kanpo**.

Lineaz kanpoko profila aktibatuta dagoenean, sare mugikorrerako konexioa itxita dago. Gailuaren eta sare mugikorraren arteko irrati-frekuentzia seinale guztiak saihesten dira. Mezu bat bidaltzen saiatzen bazara, Irteerako erretiluan geratuko da eta beste profil bat aktibatzerakoan soilik bidaliko da.

Gailua SIM txartelik gabe ere erabil dezakezu. SIM txartela kentzen baduzu, lineaz kanpoko profila aktibatuko da.




Garrantzitsua: Konexiorik gabeko profilean ezin da deirik egin edo jaso, ezta haririk gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili. Telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera deitu ahal izango duzu. Deiak egiteko, lehenik, aldatu beste profil batera.

Lineaz kanpoko profila erabiltzen duzunean, WLAN bat erabil dezakezu, posta elektronikoa irakurtzeko edo Interneten nabigatzeko, esaterako. Bluetooth konektagarritasuna ere erabil dezakezu. WLAN edo Bluetooth konexioak ezartzen eta erabiltzen dituzunean, gogoratu dagozkien segurtasun-baldintzak betetzeaz.

Bateriaren iraupena luzatu

Telefonoko funtzio askok bateria gehiago behar dute eta bateriaren bizitza murrizten dute. Bateria aurrezteko, hurrengoak kontuan izan:

- Bateria beti guztiz kargatu.
- Aktibatu energia aurrezle modua. Sakatu pizteko tekla eta hautatu **Aktib. energia aurrez..** Gailuaren ezarpenak, hala nola Sare modua eta pantaila-babeslea hobetzen dira. Energia aurrezle modua desaktibatzeke, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Desktib. energia aurrez..**
- Ezarri gailua posta elektronikoa hain maiz ez berreskuratzeko moduan. Hautatu **Menua > Aplikazioak > Posta > Ezarpenak** zure postontzia eta **Sinkronizazioa > Berresk. maiztasuna.** Postontzi gehiago badituzu, baliteke berreskuratze-maiztasun ezberdinak ezarri behar izatea postontzi bakoitzerako.
- Mututu beharrezkoak ez diren tonuak, teklenak adibidez.
- Erabili entzungailu kabledunak bozgorailua erabili ordez.
- Desaktibatu atzeko planoko animazio-efektuak. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Gaiak > Orokorra > Aukerak > Gaiaren efektuak > Desaktibatu.**
- Desaktibatu Ordulari handia pantaila-babeslea. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Gaiak > Pant.-babeslea > Bat ere ez.**
- Aktibatu gai iluna. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Gaiak > Orokorra.**
- Aldatu pantailaren argia itzali aurretik igaroko den denbora-tartea. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Pantaila > Argiaren iraupena.** Argitasun-baldintzak egiaztatzen dituen eta pantailaren argitasuna egokitzten duen argi-sentsorea doitzeko, pantailaren ezarpenetan, hautatu **Argi-sentsorea.**
- Zauden eremuan sare mugikorraren seinalearen indarra aldakorra baldin bada, bateriaren kontsumoa areagotuko da.
- Sare modua GSM zein 3G (modu duala) sareak erabiltzeko ezarrita badago, gailuak 3G sarea bilatuko du. Gailuak GSM sarea bakarrik erabil dezan, hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Sarea > Sare modua > GSM.**
- Desaktibatu Bluetootha behar ez duzunean. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Bluetootha > Bluetootha > Desaktibatu.**
- Gelditu gailuak atzeko planoan egiten duen WLAN erabilgarrien bilaketa. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > WLANa > Aukerak > Ezarpenak > Erakutsi WLAN eskurag. > Inoiz ere ez.**
- Internetera konektatzean, erabili WLAN konexioa pakete-datuen (GPRS edo 3G) konexioa erabili beharrean.
- Ezarri pakete-datuen konexioa behar denean bakarrik erabiltzeko moduan. Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Admin. ezarp. > Pakete-datuen konexioa > Behar denean.**
- Musika entzuten ari zarenean, eta deirik egin edo jaso nahi ez duzunean, aktibatu lineaz kanpoko profila.

- Itxi erabileran ez dauden aplikazioak. Eduki sakatuta menu-tekla, pasa hatza nahi duzun aplikazioa bistaritzen den arte, eta hautatu .

Pertsonalizazioa

Profilak

Profilei buruz

 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Profilak**.

Dei baten zain zaude baina telefonoak ezin du soinurik atera? Gailuak profilak deritzaien zenbait ezarpen-talde ditu, eta hainbat gertaera eta ingurunetarako pertsonaliza ditzakezu. Zeure profilak sortu ere egin ditzakezu.

Profilak honela pertsonaliza ditzakezu:

- Aldatu deien eta mezuen abisu-tonuak.
- Doitu deien eta teklen tonuen bolumena.
- Mututu teklen eta abisuen tonuak.
- Aktibatu dardara-abisuak.
- Ezarri gailua deitzen ari den kontaktuaren izena esan dezan.

Tonuak pertsonalizatzea

Gailuaren tonuak pertsonaliza ditzakezu profil bakoitzean.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Profilak**.

- 1 Nahi duzun profila aukeratu.
- 2 Hautatu **Pertsonalizatu** eta nahi duzun aukera.

Aholkua: Deskargatu dei-tonuak Ovi dendatik. Ovi dendari buruz gehiago ikasteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Gailua isilaraztea

Profil mutua aktibatuta dagoenean, dei- eta alerta-tonu guztiak mututzen dira. Aktibatu profil hau zineman edo bilera batean zaudenean.

Hasierako pantailan, hautatu profila eta **Mutu**.

Profila aldatzea bileretan edo kanpoan erabiltzeko

Bilera profila aktibatuta dagoenean, gailuak bip txiki bat egiten du tonua jo beharrean. Kanpoko profila aktibatuta dagoenean, dei-tonua altuagoa da, ingurune zaratatsuetan deirik gal ez dezazun.


Hasierako pantailan, hautatu profila eta **Bilera** edo **Kanpoan**.

Profilak sortzea

Zer egin behar duzu gailuak zure laneko, ikasketetako edo etxeko beharrak bete ditzan? Profil berriak sor ditzakezu egoera desberdinetarako, horiei izen egokiak emanez.

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Profilak eta Aukerak** > **Sortu berria**.
- 2 Profilaren ezarpenak zehaztu eta hautatu **Profilaren izena**.
- 3 Sartu izen bat profilarentzat.

Gaia aldatzea

 Gaiekin, pantailaren koloreak eta itxura alda ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Gaiak**.

Hautatu **Orokorra** eta gaia.

Gai batzuk atzeko planoko animazio-efektuak dituzte. Bateria aurrezteko, hautatu **Orokorra** > **Aukerak** > **Gaiaren efektuak** > **Desaktibatu**.

Aholkua: Deskargatu gaiak Ovi dendatik. Ovi dendari buruz gehiago ikasteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Hasierako pantaila

Hasierako pantailari buruz

Hasierako pantailan, maizen erabiltzen dituzun aplikazioetan azkar sar zaitezke eta hainbat eginbideetarako lasterbideak sor ditzakezu. kontaktu gogokoak ikus ditzakezu eta azkar dei diezaiekezu, bai eta haiekin hizketaldiak hasi edo mezuak bidali ere. Aplikazioak kontrolatu ere egin ditzakezu, Musika adibidez.

Hasierako pantaila bat baino gehiago izan dezakezu, adibidez, bat lanerako eta beste bat bizitza pribaturako.

Hasierako pantailaren elementuak interaktiboak dira. Adibidez, erlojua hautatuz gero, Erlojua aplikazioa irekiko da.

Hasierako pantailen artean aldatzea

Hasierako pantaila bat baino gehiago izan ditzakezu. Adibidez, sortu hasierako pantaila desberdinak lanerako eta bizitza pribaturako, eta pertsonalizatu eduki desberdina izan dezaten.

Beste hasierako pantaila batera aldatzeko, mugitu ezkerrera edo eskuinera.



●●● ikurrak zein hasierako pantailan zauden adierazten du.


Hasiera pantaila pertsonalizatu

Zure paisaiarik gogokoena edo senideen argazkiak ikusi nahi dituzu hasierako pantailaren atzeko planoan? Horma-papera alda dezakezu eta hasierako pantailan dauden elementuak berrantola ditzakezu zure gustuen arabera pertsonalizatzeko.

Aholkua: Hasierako pantaila bat baino gehiago badituzu, batetik bestera ibil zaitezke editatzen zabiltzanean eta hasierako pantaila guztiak aldi berean pertsonaliza ditzakezu.

Hasierako pantailaren elementuak berrantolatzea

- 1 Sakatu eta eduki sakatuta hasierako pantailan.
- 2 Arrastatu eta jaregin elementuak kokapen berrira.



- 3 Hautatu **Egina**.

Horma-papera aldatzea

- 1 Sakatu eta eduki sakatuta hasierako pantailan.
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Aldatu horma-papera**.
- 3 Hautatu nahi duzun argazkia.
- 4 Hautatu **Egina**.

Aholkua: Deskargatu pantailarako irudi gehiago Ovi dendatik. Ovi dendari buruz gehiago ikasteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Hasierako pantailan elementuak gehitzea

Zure aplikazio gogokoak hasierako pantailatik zuzenean ireki nahi? Gehien erabiltzen dituzun eginbideetarako lasterbideak sor ditzakezu. Aplikazio txikiak (widget-ak) ere gehi ditzakezu informazio lagungarria jasotzeko, hala nola, uneko eguraldia ezagutzeko.


Aplikazioetara, web laster marketara edo ekintzetara joateko lasterbideak gehi ditzakezu, mezu bat idazteko, adibidez.

Hasierako pantailan lasterbideak gehitzea

- 1 Eduki sakatuta hasierako pantaila.
- 2 Hautatu lasterbidearen widget-a eta **Ezarpenak**.
- 3 Hautatu zehaztu nahi duzun lasterbidea eta hautatu **Laster-marka** edo **Aplikazioa** eta nahi duzun elementua.
- 4 Hautatu **Atzera** > **Egina**.

Aholkua: Lasterbide bat kentzeko, ordeztu beste batekin.

Hasierako pantailan widget-ak gehitzea

- 1 Eduki sakatuta hasierako pantaila.
- 2 Hautatu  eta nahi duzun widget-a zerrendatik.
- 3 Hautatu **Egina**.

Aholkua: Widget gehiago deskargatzeko, hautatu **Denda**.

Zerbitzua erabiltzeak edo edukiak deskargatzeak datu askoren transferentzia ekar dezake eta, horren ondorioz, datu-trafikoko kostuak egon litezke.


Hasierako pantailako widget batzuk automatikoki konektatzen dira Internetera. Hau saihesteko, hautatu **Aukerak** > **Widgetak lin. kan. mod.**

Widget-ak hasierako pantailatik kentzea

- 1 Eduki sakatuta hasierako pantaila.
- 2 Hautatu widget bat eta, laster-menuan, hautatu **Kendu**.
- 3 Hautatu **Egina**.

Kontaktu garrantzitsuak hasierako pantailan gehitzea


Gehitu zure kontakturik garrantzitsuenak hasierako pantailan, berehala deitu edo mezuak bidali ahal izateko.

- 1 Kontaktu gogokoen widget-ean, hautatu .
- 2 Hasierako pantailan gehitu nahi dituzun kontaktuak markatzeko, hautatu nahi dituzun kontaktuak. Widget-ean 20 kontaktu gehi ditzakezu gehienez.

Kontaktua bati deitzea edo mezu bat bidaltzea

Widget-ean, hautatu kontaktua.

Kontaktua hasierako pantailatik kentzea

Widget-ean, hautatu  eta kendu nahi duzun kontaktua. Kontaktua widget-etik ezabatzen da, baina kontaktuen zerrendan jarraitzen du.

Aplikazioak antolatzea

Gehien erabiltzen dituzun aplikazioak azkarrago ireki nahi al dituzu? Menu nagusian, aplikazioak antola ditzakezu eta gutxien erabiltzen dituzun aplikazioak karpetetan ezkuta ditzakezu.

Sakatu menu-tekla eta hautatu **Aukerak > Antolatu**.

Karpetak sortzea

Hautatu **Aukerak > Karpeta berria**.

Aplikazioak karpetetara mugitzea

Eduki sakatuta aplikazioa, eta pop-up menuan, hautatu **Mugitu karpetara** eta karpeta berria.

Aholkua: Era berean, aplikazioak eta karpetak arrastatu eta jaregin ditzakezu.

Telefonoa

Telefono-zenbakietara deitzea

- 1 Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko eta idatzi telefono-zenbakia.
Nazioarteko deietan erabiltzen den + karakterea sartzeko, sakatu * bi aldiz.
- 2 Deitzeko, sakatu deitzeko tekla.
- 3 Deia amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

Aholkua: Kontaktua bati deitzeko, hasierako pantailan, hautatu **Deitu** eta hasi kontaktuaren izena edo abizena sartzen.


Deiak erantzun

Dei bat jasotzen duzunean, sakatu deitzeko tekla.

Kontaktuak bilatzea

Kontaktuen zerrendan gordetako kontaktuak bila ditzakezu.

Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** eta hasi kontaktuaren izena edo abizena idazten. Karaktereak idazterakoan, sakatu zenbaki-teklak behin hizki bakoitzerako. Esaterako, Nokia bilatzeko, idatzi **6, 6, 5, 4** eta **2**.



Aurkitutako kontaktuari deitzea

Hautatu kontaktua.

Kontaktuari mezua bidaltzea

Eduki sakatuta kontaktua eta, kontaktu-txartelean, hautatu **Mezua**.

Kontaktuari bideo-deiak egitea

Eduki sakatuta kontaktua eta, kontaktu-txartelean, hautatu **Bideo-deia**.

Kontaktuen bilaketa desaktibatzea

Hautatu **Aukerak > Kontaktu-bilaketa > Desaktibatu**.

Deiak ukatu

Dei bat jasotzen duzunean, sakatu amaitzeko tekla.

Bidali testu-mezu bat ukatutako deiaren igorleari

- 1 Dei bat jasotzean, hautatu **Mututu > Bidali mez.**, eta editatu mezua, deia ezin duzula hartu esanez.
- 2 Mezua bidaltzeko, aukeratu .

3 Ukatu deia.

Idatzi ukatutako deien igorleei bidaltzeko testu-mezu estandar bat

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deitu** > **Mezuaren testua**, eta idatzi mezua.

Aholkua: Ukatutako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbidera ditzakezu automatikoki (sareko zerbitzua). Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deien desbid.** > **Ahots-deiak** > **Okupatua badago** > **Aktibatu** > **Ahots-postontzira** edo **Beste zenbaki batera**.

Kontaktuei deitzea

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

- 1 Kontaktuak bilatzeko, idatzi kontaktuaren izena edo abizenaren lehen hizkiak edo karaktereak bilaketa-eremuan.
- 2 Hautatu kontaktua.
- 3 Kontaktuaren fitxan, hautatu **Ahots-deia**.
- 4 Kontaktuak telefono-zenbaki bat baino gehiago badu, eduki hautatuta **Ahots-deia** eta hautatu nahi duzun zenbakia.

Zain dauden deiak erantzun

Deia zain (sareko zerbitzua) aukerarekin, dei bat abian duzunean beste dei bat erantzun ditzakezu.

Sakatu deitzeko tekla. Lehen deia zain uzten da.

Aktibatu, desaktibatu, edo egiaztatu zerbitzuaren egoera

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deitu** > **Deia zain** > **Aktibatu**, **Desaktibatu**, edo **Egiaztatu** egoera.

Aktibo dagoen dei batetik zain dagoen beste batera aldatu (eta alderantziz)

Hautatu **Aukerak** > **Trukatu**.

Zain dagoen deia aktibo dagoenarekin konektatu

Hautatu **Aukerak** > **Transferentzia**. Zure kabuz deskonektatuko zara deietatik.

Aktibo dauden deiak amaitu


Sakatu amaitzeko tekla.

Bi deiak amaitu

Hautatu **Aukerak** > **Bukatu dei guztiak**.

Bideo dei bat egin

Bideo-dei bat egiterakoan (sareko zerbitzua), deiaren hartzaileak eta zuk zuzeneko eta elkarrenganako bideo bat bistara dezakezue.



Bideo-deiak egiteko, 3G sare batean egon behar duzu.

Eskuragarritasunari eta kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo zerbitzu-hornitzailearengana.

Bideo-deietan bi parte-hartzaile egon daitezke soilik. Bideo deia ezin daiteke egin beste ahots, bideo edo datu dei bat aktibatuta dagoen bitartean.


- 1 Hautatu **Menua** > **Kontaktuak** eta bilatu kontaktua.
- 2 Hautatu kontaktua, eta kontaktu-txartelean, hautatu **Bideo-deia**.


Besterik adierazi ezean, gailuaren aurrealdean dagoen bigarren kamera bideo-deietan erabiltzen da. Bideo-deiari ekiteak luze jo dezake. Deiak arrakastarik ez badu (adibidez, sareak ez badu bideo deia onartzen edo deia jaso behar duen gailua bateragarria ez bada), dei normal bat egitea edo mezu bat bidaltzea nahi duzun galdetuko zaizu.

Bideo-deia aktibatuta dago bi bideo ikusten dituzunean eta bozgorailutik soinua entzuten duzunean. Deia jasotzen duen pertsonak bideoa bidaltzea ukatuz gero (🚫 irudiarekin adierazten da), deitzen duen pertsonaren ahotsa bakarrik entzungo duzu eta baliteke irudi edo pantaila grisa ikustea.

- 3 Bideo deia amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

Adierazleak

 Ez zara bideorik jasotzen ari (hartzailea ez da bideorik bidaltzen ari edo sarea ez da transmititzen ari).


 Bideoak zure telefonotik bidaltzea ukatu duzu.

Irudiak bidaltzea zuzeneko bideoak bidali beharrean

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Deitzen** > **Deitu** > **Irudia bideo-deian**.

Zuzeneko bideorik bidaltzen ez baduzu ere, deia bideo-dei gisa kobratuko zaizu.

Erantzun bideo-deiak

Bideo dei bat iristen denean,  agertzen da.

- 1 Sakatu deitzeko tekla.
- 2 Zuzeneko bideoa bidaltzen hasteko, hautatu **Bai**.

Bideoa bidaltzen hasten ez bazara, deitzailearen ahotsa besterik ez duzu entzungo. Zure bideoaren ordez pantaila gris bat agertzen da.


Hasi zuzeneko bideoa bidaltzen bideo-dei batean zehar

Hautatu **Aukerak** > **Gaitu** > **Bideoa bidaltzea**.

Ordeztu pantaila grisa argazki batekin

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Deitzen** > **Deitu** > **Irudia bideo-deian**.
- 2 Hautatu **Erabiltz. zehaztuta** eta argazki bat.


Ukatu bideo-deiak


Bideo dei bat iristen denean,  agertzen da.

Sakatu amaitze tekla.

Telekonferentzia bat hasi

Gailuak gehienez sei parte hartzaile onartzen ditu telekonferentzia (sareko zerbitzua) bakoitzeko, zu barne. Bideo konferentzia-deiak ez dira onartzen.




- 1 Deitu lehenengo parte hartzaileari.
- 2 Beste parte hartzaile bati deitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Dei berria**. Lehenengo deia atxikitzen da.
- 3 Dei berria erantzun denean, lehenengo parte-hartzailea konferentzia-deian gehitzeko, hautatu .


Parte-hartzaile berria gehitu konferentzia-deian

Deitu beste parte-hartzaile bati eta gehitu dei berri hori konferentzia-deian.



Elkarrizketa pribatua izan konferentzia-deieko parte-hartzaile batekin

Hautatu .

Zoaz parte-hartzailera eta hautatu . Telekonferentzia zure telefonoan atxikitzen da. Gainontzeko parte-hartzaileek konferentzia-deiarekin jarraitzen dute.

Konferentzia-deira itzultzeko, hautatu .

Parte-hartzaile bat konferentzia-dei batetik kanpo utzi

Hautatu , mugitu parte-hartzailera eta hautatu .

Aktibo dagoen konferentzia-dei bat amaitu

Sakatu amaitzeko tekla.

Markatze bizkorra erabiltzea

Lagunei eta senideei azkar dei diezaiekezu gehien erabiltzen dituzun telefonozenbakiak gailuaren zenbaki-teklei esleituz gero.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Deitzen** > **Mark. bizkorra**.

Zenbaki-tekla bati telefono-zenbaki bat esleitzea

- 1 Hautatu zein zenbaki-teklari esleitu nahi diozun telefono-zenbakia.
1 ahots-postontzirako gordeta dago.
- 2 Hautatu telefono-zenbakia kontaktuen zerrendatik.

Zenbaki-tekla bati esleitutako telefono-zenbakia kentzea edo aldatzea

Eduki sakatuta esleitutako zenbaki-tekla, eta pop-up menuan, hautatu **Kendu** edo **Aldatu**.

Deitzea

Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko eta eduki sakatuta esleitutako zenbaki-tekla.

Ahotsa erabiltzea kontaktu bati deitzeko

Ahots komandoak aplikazioarekin, zure ahotsa erabil dezakezu deiak egiteko edo gailua kontrolatzeko.

Ahots komandoak ez dira hiztunaren ahotsaren araberrakoak. Komando horiek gailuak sortzen ditu automatikoki.

Kontaktuak sartzean edo ahots-komandoak editatzean, ez erabili oso motzak edo antzekoak diren izenak kontaktu edo komando ezberdinetarako.



Oharra: Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratzu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

Ahots bidezko markatzea erabiltzen duzunean, bozgorailua erabiltzen da. Eutsi gailua zuegandik distantzia laburrean ahots komandoak ahoskatzerakoan.

- 1 Hasierako pantailan, eduki sakatuta deitzeko tekla. Entzungailu bateragarri bat entzungailuaren teklarekin eranstean bada, eduki sakatuta entzungailuaren tekla.
- 2 Tonu labur bat entzungo da eta **Hitz egin orain** agertuko da. Esan argi kontaktuari dagokion izena.
- 3 Gailuak ezagututako kontaktuaren sintetizatutako ahots-etiketa bat erreproduzitzen du hautatutako hizkuntzan, eta izena eta zenbakia erakusten ditu. Ahots markatzea ezeztatzeko, aukeratu **Utzi**.

Kontaktu baten ahots komandoa entzutea

- 1 Hautatu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xeheta**..
- 2 Hautatu kontaktuaren xehetasun bat.

Izen bateko telefono zenbaki bat baino gehiago badu, izena eta zenbaki mota esan dezakezu ere, hala nola mugikorra edo telefonoa den.

Interneten bidez deiak egitea

Interneteko deiei buruz

Internet bidezko sareko dei-zerbitzuarekin, Internet bidezko deiak egin eta jaso ditzakezu. Internet bidezko dei-zerbitzuak ordenagailuen, telefono mugikorren eta VoIP gailu baten eta ohiko telefono baten arteko deiak onar ditzake.

Interneteko deien zerbitzu-hornitzaile batzuek doako Interneteko deiak baimentzen dituzte. Eskuragarritasunari eta konexio-kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo Interneteko deien zerbitzu-hornitzailearengana.

Interneteko dei bat egiteko edo jasotzeko, WLAN baten zerbitzu-eremuan egon behar duzu edo pakete-datu (GPRS) konexio bat izan behar duzu 3G sare batean, eta Interneteko dei-zerbitzu batera konektatuta egon behar duzu.

Interneteko dei-zerbitzua instalatzea

Ovi dendan Interneteko dei-zerbitzuak bila ditzakezu. Xehetasunetarako, zoaz www.ovi.com helbidera.

- 1 Deskargatu instalazio-widjet bat Interneteko dei-zerbitzurako.
- 2 Instalazioa hasteko, hautatu instalazio-widjet-a.
- 3 Jarraitu argibideak.

Interneteko dei-zerbitzua instalatu denean, zerbitzuarentzako fitxa bat agertzen da kontaktuen zerrendan.

Interneteko deiak egitea

Interneteko dei-zerbitzuan harpidetuta zaudenean, deiak egin ditzakezu lagunen edo kontaktuen zerrendetatik.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Lagunen zerrendako kontaktuei deitzea


- 1 Ireki Interneteko dei-zerbitzuaren fitxa eta hasi saioa Interneteko dei-zerbitzu batean.
- 2 Hautatu kontaktu bat lagunen zerrendatik eta hautatu **Interneteko deia**.

Interneteko deiak egitea telefono-zenbaki batera edo SIP helbide batera

- 1 Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko eta idatzi telefono-zenbakia.
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Deitu** > **Interneteko deia**.



Markatutako azken zenbakira deitzea

Norbaiti deika zabilta, baina ez du erantzuten? Erraza da berriz ere deitzea. Deien erregistroan, egin eta jaso dituzun deien informazioa ikus dezakezu.

Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko eta hautatu . Markatutako azken zenbakira deitzeko, hautatu zenbakia zerrendan.

Telefono-hizketaldiak grabatzea

Grabagailua aplikazioarekin, telefono-hizketaldiak graba ditzakezu.

- 1 Ahots-dei aktibo batean zehar, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Grabagailua**.
- 2 Grabaketa abiarazteko, hautatu .
- 3 Grabaketa eteteko, hautatu . Soinu-klipa Fitxategi kudeatzailea aplikazioaren Soinu-fitxateg. karpetan gordetzen da automatikoki.

Grabaketan zehar, bi alderdiek tonu bat entzungo dute, noizean behin.


Isilarazteko biratzea

Deirik jaso nahi ez duzunean gailuak jotzen badu, dei-tonua isilaraz dezakezu.

Isilarazteko biratu eginbidea aktibatzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonia** > **Sentsore-ezarp.** > **Sentsoreak** > **Aktibatu**.
- 2 Hautatu **Biratze-kontrola** > **Deiak isilarazi**.

Gailuak jotzen duenean, jarri gailuaren pantaila beherantz begira.





Galdutako deiak ikustea

Hasierako pantailan, galdutako deiak ikus ditzakezu, baldin badaude. Telefono-zenbakia ikusteko, hautatu **Erakutsi**. Dei egilearen izena agertuko da kontaktuen zerrendan gordeta badago.

Galdutako eta jasotako deiak erregistratzeko, sareak onartu behar ditu eta gailuak piztuta eta sareko zerbitzuaren eremuan egon behar du.

Kontaktuari edo zerbakiari deia itzultzea

Hautatu kontaktua edo zerbakia.

Galdutako deien zerrenda geroago ikusteko, hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko, hautatu  eta ireki galdutako deien fitxa .

Ahots-postontzira deitzea

Sarrerako deiak ahots-postontzira desbidera ditzakezu (sareko zerbitzua). Jendeak mezu bat utz diezazuke, besteak beste, dei bat erantzun ez duzunean.

Hasierako pantailan, hautatu **Deitu** markagailua irekitzeko eta eduki sakatuta **1**.

Ahots-postontziko telefono-zenbakia aldatzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Dei-postontzia**.
- 2 Hautatu eta eduki sakatuta postontzi bat, eta pop-up menuan, hautatu **Aldatu zenbakia**.
- 3 Idatzi zerbitzu hornitzailearengandik jaso duzun zenbakia eta aukeratu **Ados**.

Deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbideratzea

Deirik erantzun ezin baduzu, sarrerako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera desbidera ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deien desbid.** > **Ahots-deiak**.

Deien desbideraketa sareko zerbitzua da. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.


Ahots-dei guztiak ahots-postontzira desbideratzea

Hautatu **Ahots dei guztiak** > **Aktibatu** > **Ahots-postontzira**.

Ahots-dei guztiak beste telefono-zenbaki batera desbideratzea

- 1 Hautatu **Ahots dei guztiak** > **Aktibatu** > **Beste zenbaki batera**.
- 2 Sartu zenbakia edo hautatu **Aurkitu** kontaktuen zerrendan gordetako zenbaki bat erabiltzeko.

Hainbat desbideraketa-aukera egon daitezke aldi berean aktibatuta, adibidez, **Okupatua badago** eta **Erantzun ezean**.

Hasierako pantailan,  ikurrak deiak desbideratu direla adierazten du.

Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Deiak egitea edo jasotzea eragozte

Baliteke zenbaitetan gailuarekin egin edo jaso daitezkeen deiak murriztu nahi izatea. Dei-murrizketarekin (sareko zerbitzua), atzerrian zaudenean nazioarteko sarrerako edo irteerako dei guztiak murrizt ditzakezu, besteak beste.

Aukeratu Menua > Ezarpenak eta Deitzen > Dei-murrizketa.

Ezarpenak aldatzeko, zerbitzu-hornitzaileak emandako murrizketa-pasahitza behar duzu.

Deiak egitea eragozte

- 1 Interneteko deien zerbitzua instalatuta badago, hautatu **Ahots-/bideo-deien murrizketa**.
- 2 Edozein dei edo nazioarteko dei egitea eragozteko, hautatu **Irteerako deiak** edo **Nazioarteko deiak**. Nazioarteko deiak egitea eragozteko, baina zure herrialdera deiak egitea baimentzeko, hautatu **Nazioartekoak, norbere herrialdera izan ezik**.
- 3 Hautatu **Aktibatu**. Dei-murrizketak dei guztiei eragiten die, datu deiak barne.

Deiak jasotzea eragozte

- 1 Interneteko deien zerbitzua instalatuta badago, hautatu **Ahots-/bideo-deien murrizketa**.
- 2 Edozein dei edo nazioarteko dei jasotzea eragozteko, hautatu **Sarrerako deiak** edo **Sarrerako deiak roaming egitean**.
- 3 Hautatu **Aktibatu**.

Interneteko dei anonimoak eragozte

Hautatu **Interneteko deien murrizketa > Dei anonimoen murrizk. > Aktibatu**.

Zenbaki jakin batzuetara soilik deitzea baimentzea

Markaketa finakoaren zerbitzuaren bidez, deiak murrizt ditzakezu eta zenbait telefono-zenbakitara bakarrik deitzea baimen dezakezu. Adibidez, hurrek senideei edo beste zenbait tekla-zenbakiri bakarrik deitzea baimen dezakezu.

Hautatu Menua > Kontaktuak eta Aukerak > SIM zenbakiak > Markatz. fink. kontak..

Baliteke SIM txartel guztiak markaketa finkoko zerbitzua ez jasatea. Zerbitzu-hornitzaileak emandako PIN2 kodea behar duzu.

Markaketa finkoa aktibatzea

Hautatu **Aukerak** > **Aktibatu mark. finkoa**. Sartu PIN2 kodea.

Dei dezakezun jendea hautatzea

- 1 Hautatu **Aukerak** > **SIM kontaktu berria**.
- 2 Sartu PIN2 kodea.
- 3 Sartu dei dezakezun kontaktuaren izena eta telefono-zenbakia, eta hautatu **Egina**. Kontaktuen zerrendako kontaktu bat markaketa finkoaren zerrendan gehitzeko, hautatu **Gehitu Kontaktuetatik** eta kontaktua.

Markaketa finkoa aktibatuta duzula, SIM kontaktuei mezuak bidaltzeko, markaketa finkoko zerrendan mezularitza-zentroaren zenbakia gehitu behar duzu.

Bideoak partekatzea

Bideoak partekatzeari buruz

Bideoak partekatzeko zerbitzuarekin (sareko zerbitzua), zuzeneko edo grabatutako bideoak parteka ditzakezu zure gailuaren eta beste gailu bateragarri baten artean, ahots-dei batean zehar.

Bideoak partekatzeko zerbitzua aktibatzen duzunean, bozgorailua automatikoki aktibatuko da. Bozgorailua erabili nahi ez baduzu, entzungailu bateragarriak erabil ditzakezu.

Bideoak partekatzeko eskakizunak

Bideoak partekatzeko, zuk eta hartzaileak honako baldintza hauek bete beharko dituzue:

- 3G sare batean egotea. Zuetariko bat 3G saretik kanpo mugitzen bada, ahots-deiak jarraituko du.
- Bideoak partekatzeko funtzioa aktibatuta izatea.
- Pertsonarteko konexioak ezarrita izatea.

Zerbitzuari, 3G sarearen eskuragarritasunari eta zerbitzua erabiltzeagatik aplikatutako tarifei buruzko informazio gehiagorako, jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Bideoak partekatzeko zerbitzua konfiguratzea

Bideoak partekatzeko zerbitzua konfiguratzeko, pertsonarteko eta 3G konexio-ezarpenak behar dituzu.

Pertsonarteko konexioa Session Initiation Protocol (SIP) bezala ere ezagutzen da. Bideo partekatzea erabiltzen hasi baino lehen SIP profilaren ezarpenak gailuan konfiguratu behar dira. Zure zerbitzu-hornitzaileari SIP profil ezarpenak eskatu eta gailuan gorde

itzazu. Zerbitzu-hornitzaileak konfigurazio-mezu batean ezarpenak bidal diezazkizuke edo beharrezko parametroen zerrenda eman diezazuke.

Pertsonarteko konexioa konfiguratzea

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Konektagarrit.** > **Admin. ezarp.** > **SIP ezarpenak.**

3G konexioa erabiltzea

Sareei buruzko xehetasunetarako, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Kontaktu bati SIP helbide bat gehitzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Kontaktuak.**
- 2 Hautatu kontaktua edo sortu berri bat.
- 3 Hautatu **Aukerak** > **Editatu.**
- 4 Hautatu **Aukerak** > **Gehitu xehetasuna** > **Partekatu bideoa.**
- 5 Idatzi SIP helbidea erabiltzailea@domeinuarenizena formatuan (IP helbide bat erabil dezakezu domeinu baten izenaren ordez).

Kontaktuaren SIP helbidea ez badakizu, hartzailearen telefono-zenbakia sartzen saia zaitezke herrialdeko aurrezenbakiarekin bideoa partekatzeko (sarearen zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu).

Zuzeneko edo grabatutako bideoak partekatzea

Ahots-dei aktibo batean zehar, hautatu **Aukerak** > **Partekatu bideoa.**

- 1 Zuzeneko bideoak partekatzeko, hautatu **Zuzeneko bideoa.**
Bideoak partekatzeko, hautatu **Bideoklipa** eta nahi duzun bideoa. Gailuak bideoa bihurtu behar den egiaztatzen du. Behar izanez gero, bideoa automatikoki bihurtzen da.
- 2 Hautatu hartzailearen kontaktu-txartelean gordetako SIP helbidea edo telefono-zenbakia. SIP helbidea edo telefono-zenbakia eskuragarri ez badaude, sartu xehetasunak eskuz eta hautatu **Ados.** Telefono-zenbaki bat sartzekotan, herrialde-kodea sartu behar duzu. Gonbidapena SIP helbidera bidaltzen da.

Bideo bat partekatzen ari zarela beste aplikazio batera joanez gero, partekatzea eteten da.

Partekatzen jarraitzea

Hasierako pantailan, aukeratu **Aukerak** > **Berrekin bideo partek.**

Gelditu bideo-partekatzea

Hautatu **Gelditu**. Deia amaitzeko, amaitu tekla sakatu. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

Partekatu duzun zuzeneko bideoa gordetzea

Hautatu **Bai** eskatzen zaizunean.

Bideoak partekatzeko gonbidapenak onartzea

Hautatu **Bai**. Bideo partekatzea automatikoki hasten da.

Kontaktuak

Kontaktuei buruz

 Hautatu **Menua > Kontaktuak**.


Kontaktuekin, lagunen telefono-zenbakiak, helbideak eta harremanetarako beste zenbait informazio gorde eta antola dezakezu.

Telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak gordetzea


Lagunen telefono-zenbakiak, helbide elektronikoak eta beste zenbait informazio gorde dezakezu kontaktuen zerrendan.

Hautatu **Menua > Kontaktuak**.

Kontaktuen zerrendan kontaktuak gehitzea

- 1 Hautatu **Aukerak > Kontaktu berria**.
- 2 Hautatu eremua eta sartu xehetasunak. Testua sartzeko eremua ixteko, hautatu .

Kontaktuen informazioa editatzea

- 1 Hautatu kontaktu bat.
- 2 Ireki kontaktuaren txartelaren fitxa .
- 3 Hautatu kontaktuaren xehetasun bat.

Kontaktu bati buruzko xehetasunak gehitzea

Hautatu kontaktu bat eta **Aukerak > Editatu > Aukerak > Gehitu xehetasuna**.

Jasotako deien edo mezuen zenbakia gordetzea

Kontaktuen zerrendan gordeta ez duzun telefono-zenbaki baten dei edo mezuren bat jaso al duzu? Zenbakia erraz gorde dezakezu kontaktuen zerrendako sarrera berri batean edo aurretik zenuen beste batean.

Jasotako deien zenbakia gordetzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Erregistroa**.
- 2 Hautatu **Azkeneko deiak** > **Jasotako deiak**.
- 3 Eduki sakatuta telefono-zenbaki bat, eta laster-menuan, hautatu **Gorde Kontaktuetan**.
- 4 Hautatu kontaktuen zerrendako sarrera berria sortu nahi duzun edo aurretik zenuen bat eguneratu nahi duzun.

Jasotako mezuen zenbakia gordetzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.
- 2 Hautatu **Sarr. erretilua** eta mezu bat.
- 3 Hautatu telefono-zenbakia eta **Gorde Kontaktuetan**.
- 4 Hautatu kontaktuen zerrendako sarrera berria sortu nahi duzun edo aurretik zenuen bat eguneratu nahi duzun.

Jenderik garrantzitsuena azkar kontaktatzea

Zure kontakturik garrantzitsuenak gogoko gisa ezar ditzakezu. Gogokoak kontaktuen zerrendaren goialdean daude, azkar aurkitu ahal izateko.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktuak gogoko gisa ezartzea

Eduki sakatuta kontaktua, eta pop-up menuan, hautatu **Gehitu gogokoetara**.

Kontaktuak gogokoetatik kentzea

Eduki sakatuta kontaktua, eta pop-up menuan, hautatu **Kendu gogokoetatik**. Kontaktua ez da kontaktuen zerrenda arruntetik ezabatu.

Kontaktu jakin baten dei-tonua ezartzea

Pertsona jakin bat deika ari dela entzun nahi duzu? Pertsona horrentzat zehazki dei-tonu bat ezar dezakezu.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktu baten dei-tonua ezartzea

- 1 Hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Editatu**.
- 2 Hautatu Dei-tonua eremua eta dei-tonua.

Kontaktuen talde baten dei-tonua ezartzea

- 1 Ireki **Taldeak** fitxa.
- 2 Eduki sakatuta taldearen izena, eta pop-up menuan, hautatu **Dei-tonua**.

3 Hautatu dei-tonua zerrendan.

Dei-tonua taldeko kideei bakarrik dagokie dei-tonua ezartzen den momentuan.

Harremanetarako informazioa bidaltzea Nire txartela erabiliz

Nire txartela zure bisita-txartel elektronikoa da. Nire txartela aukerarekin, harremanetarako informazioa bidal diezaiekezu besteei.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Harremanetarako informazioa bisita-txartel gisa bidaltzea

Eduki sakatuta **Nire txartela**, eta pop-up menuan, hautatu **Bidali bisita-txartel gisa**.

Nire txarteleko harremanetarako informazioa editatzea

Hautatu **Nire txartela** eta editatu nahi duzun xehetasuna.

Kontaktuen taldeak sortzea

Kontaktuen taldeak sortu dituzunean, mezu bakarra bidal diezaiekezu hainbat pertsoneri aldi berean. Adibidez, senideak talde batean gorde ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

- 1 Ireki Taldeak fitxa.
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Talde berria**.
- 3 Idatzi taldearen izena eta hautatu **Ados**.
- 4 Hautatu taldea eta **Aukerak** > **Gehitu kideak**.
- 5 Taldean gehitu nahi dituzun kontaktuak markatzeko, hautatu kontaktuak.

Pertsona-talde bati mezuak bidaltzea

Senide guztiei mezu bat bidali nahiko zenieke? Talde batean sartu badituzu, mezu bat bidal diezaiekezu guztiei aldi berean.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

- 1 Ireki Taldeak fitxa.
- 2 Eduki sakatuta taldearen izena, eta pop-up menuan, hautatu **Sortu mezua**.


SIM txartelean gordetako kontaktuak

SIM txartelean kontaktuak gordeta badituzu, gailuan kopia ditzakezu. Xehetasun gehiago gehi ditzakezu gailuan gordeta dituzun kontaktuetan.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

SIM txartelean gordetako kontaktuak ikustea

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsiko diren kontak.** > **SIM memorian.**

SIM txartelean gordetako kontaktuak  ikurrarekin adierazita daude.

Kontaktuak zure gailuan kopiatzen badituzu, sarreretan xehetasun gehiago gehi ditzakezu, hala nola, beste telefono-zenbakiak, helbideak edo argazki bat.

SIM kontaktu guztiak gailuan kopiatzea

Hautatu **Aukerak** > **SIM zenbakiak** > **Kopiatu guztiak telef..**

Ovi by Nokia zerbitzuan kontaktuen babeskopiak egitea

Ovi by Nokia zerbitzuan kontaktuen babeskopia egiten baduzu, kontaktuak erraz kopiatu ahal izango dituzu gailu berri batera. Gailua lapurtuz edo hondatuz gero, kontaktuen online zerrendan sartu ahal izango duzu.

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak eta Aukerak** > **Ovi sink.**

Sinkronizazio automatikoa baimentzen baduzu, kontaktuen zerrendan egiten dituzun aldaketa guztien babeskopia egingo da Ovi by Nokia zerbitzuan automatikoki.

Nokia kontu bat behar duzu Ovi erabiltzeko. Konturik ez baduzu, sortu bat www.ovi.com helbidean. Kontu bat sortzeko eskatzeko zaizu, Ovi zerbitzu bat gailuarekin atzitzen baduzu.

Ovi Sinkr. erabiltzen baduzu kontaktuak Ovirekin automatikoki sinkronizatzeko, ez sinkronizatu kontaktuak beste zerbitzu batekin, gatazkak egon litzateke eta. Ovi Sinkr. kontaktuentzat ez dago erabilgarri Mail for Exchange aplikazioan kontaktuen sinkronizazioa aktibatuta baduzu.

Mezularitza**Mezularitzari buruz**

 Hautatu **Menua** > **Mezularitza.**

Hainbat mezu mota bidal eta jaso ditzakezu:



- Testu-mezuak
- Audio mezuak
- Argazkiak eta bideoak dituzten multimedia mezuak
- Talde-mezuak

Mezularitza funtzioak sareko zerbitzua eskatzen du.

Mezuak bidaltzea

Testu- eta multimedia mezuekin, azkar jar zaitzake harremanetan lagunekin eta senideekin. Multimedia mezu batean, partekatu nahi dituzun argazkiak, bideoak eta soinu-klipak erants ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

- 1 Hautatu **Mezu berria**.
- 2 Hartzailak kontaktuen zerrendatik hautatzeko, hautatu **Nori** izenburua. Hartzailaren telefono-zenbakia eskuz sartzeko, sartu zenbakia Nori eremuan.
- 3 Eranskin bat gehitzeko, hautatu .
- 4 Hautatu .

Eranskin bat duen mezu bat bidaltzea testu-mezu arrunt bat bidaltzea baino garestiagoa izan daiteke. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Mezu baten karaktere-muga gainditzen duten mezuak bidal ditzakezu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruen arabera kobratu ohi dute.

Azentu-markek, bestelako ikurrek edo zenbait hizkuntzen aukerek leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitekeen karaktere-kopurua murrizten dute.



Multimedia mezu batean erantsitako elementua sarearentzat handiegia bada, telefonoak automatikoki tamaina murriztuko du.

Telefono bateragarriek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia mezuak. Mezuen itxura telefonoz telefono alda daiteke.

Audio mezuak bidaltzea

Soinu-klip bat graba dezakezu, urtebetetze-abestia adibidez, eta lagun bati bidal diezaiokezu audio mezu gisa.

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Sortu mezua** > **Audio mezua**.
- 2 Mezua grabatzeko, hautatu .
- 3 Hartzaila kontaktuen zerrendatik hautatzeko, hautatu **Nori** izenburua. Hartzailaren telefono-zenbakia eskuz sartzeko, sartu zenbakia Nori eremuan.
- 4 Hautatu .


Mezuak jasotzea

Mezu bat jasotzen duzunean, hasierako pantailatik zuzenean ireki dezakezu. Geroago, Mezularitza ataleko Solasaldiak edo Sarr. erretilua karpitetan aurkitu ahal izango duzu mezua.

Hautatu **Menua > Mezularitza**.

Mezu bat jasotzerakoan, 📧 eta **1 mezu berri** hasierako pantailan agertzen dira. Mezua irekitzeko, hautatu **Erakutsi**. Lehenespenez, mezua Solasaldiak ikuspegian irekitzen da.


Solasaldiak ikuspegian jasotako mezuak erantzutea

Hautatu pantailaren behealdean dagoen testua idazteko eremua, idatzi mezua eta hautatu .


Sarr. erretilua karpetako mezu bat irekitzea

Hautatu **Sarr. erretilua** eta mezu bat.

Sarr. erretilua ikuspegian jasotako mezuak erantzutea

Ireki mezu bat eta hautatu .

Birbidali mezu bat Sarr. erretilua ikuspegian

Ireki mezu bat eta hautatu .

Jasotako multimedia elementuak gordetzea

Hautatu eta eduki sakatuta elementua, eta pop-up menuan, hautatu **Gorde**. Elementua dagokion aplikazioan ikus daiteke. Adibidez, gordetako argazkiak ikusteko, ireki Argazkiak.


Hizketaldiak ikustea

Kontaktu jakin bati bidalitako eta harengandik jasotako mezuak ikuspegi bakarrean ikus ditzakezu, eta ikuspegi horretan hizketaldiarekin jarrai dezakezu.

Hautatu **Menua > Mezularitza**.

Hautatu **Solasaldiak** eta kontaktu bat. Kontakto horri bidalitako eta harengandik jasotako mezu guztiak agertzen dira.

Hizketaldian mezu bati erantzutea

- 1 Ireki hizketaldia.
- 2 Sakatu pantailaren behealdean dagoen testua idazteko eremua eta idatzi mezua.
- 3 Eranskinak edo hartzaile gehiago gehitzeko, hautatu **Aukerak > Gehitu**.
- 4 Mezua bidaltzeko, aukeratu .

Mezu berri bat bidaltzen duzunean, uneko hizketaldian gehitzen da. Hizketaldirik ez badago, berri bat hasiko da.

Jasotako mezu bat hasierako pantailatik irekitzen duzunean, modu lehenetsian, mezu Solasaldiak ikuspegian irekitzen da. Mezuak Sarr. erretilua ikuspegian ireki nahi badituzu, hautatu **Aukerak** > **Mezuaren ikuspegia** > **Sarrerako erretilua**.

Testu-mezuak entzutea

Gailua ezar dezakezu testu-mezuak ozenki irakur ditzan.

- 1 Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.
- 2 Hautatu **Sarr. erretilua**.
- 3 Eduki sakatuta mezu bat, eta pop-up menuan, hautatu **Entzun**.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Mez.-irakur..**


Hizkuntza aldatzea

Hautatu **Hizkuntza** eta hizkuntza.

Hizkuntza gehiago deskargatzea

Hautatu **Aukerak** > **Deskargatu hizkuntzak**.

Ahotsa aldatzea

Hautatu  Ahotsa aurreikusteko, eduki sakatuta ahotsa eta hautatu **Erreproduzitu ahotsa**.

Hizkuntza aldatzea

Gailuaren hizkuntza alda dezakezu, bai eta mezuak eta mezu elektronikoak idazteko erabiltzen duzun hizkuntza ere. Halaber, idazketa-metodo iragarlea aktiba dezakezu.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Telefonoa** > **Hizkuntza**.

Telefonoaren hizkuntza aldatzea

Hautatu **Telefonoaren hizkuntza**.

Idazteko hizkuntza aldatzea

Hautatu **Idazketa hizkuntza**.

Idazketa-metodo iragarlea aktibatzea

Hautatu **Testu iragarlea**.

Posta


Posta

Postari buruz

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Posta**.

Posta funtzioarekin, hainbat postontzi gehi ditzakezu eta zuzenean hasierako pantailatik bertan sar zaitetzke. Postaren ikuspegi nagusian, postontzi batetik bestera alda zaitetzke.

Posta-konturik ez baduzu, www.ovi.com helbidean sor dezakezu.



- 1 Idatzi mezu elektronikoa bat.
- 2 Aldatu postontzi batetik bestera.
- 3 Antolatu zure mezu elektronikoa, dataren arabera adibidez.
- 4 Uneko postontziko posta.

Posta atalak elementu interaktiboak ditu. Eduki sakatuta, adibidez, mezu elektronikoa bat pop-up menua ikusteko.

Postontziak gehitzea

Gailuan hainbat postontzi gehi ditzakezu.


Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Posta**.

Postontziak gehitzea

Hautatu **Berria** eta jarraitu argibideak.

Hasierako pantailan posta widget bat gehitzea

Hasierako pantailan, eduki sakatuta zuriune bat.

Hautatu  eta nahi duzun widget-a zerrendatik.

Postontziak ezabatzea

Hautatu **Aukerak** > **Ezabatu postontzia** eta postontzia.

Posta irakurtzea

Gailua erabil dezakezu posta irakurtzeko eta erantzuteko.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Posta**.

Mezu elektronikoak irakurtzea

Hautatu mezua. Handiagotzeko edo txikiagotzeko, ukitu pantaila bi hatzez.



Eranskinak irekitzea edo gordetzea

Hautatu eranskina, eta pop-up menuan, hautatu aukera egokia. Eranskin bat baino gehiago badago, aldi berean gorde ditzakezu.

Mezu elektronikoak erantzutea

Hautatu **Aukerak** > **Erantzun**.

Mezu elektronikoak birbidaltzea

Hautatu **Aukerak** > **Birbidali**.




Aholkua: Mezu elektroniko batean web helbide bat badago eta helbide hori gailuaren nabigatzailean ireki edo zure laster marketan gehitu nahi baduzu, hautatu helbidea eta, pop-up menutik, hautatu nahi duzun aukera.

Aholkua: Hurrengo edo aurreko mezu elektroniko irekitzeko, erabili gezi-ikonoak.

Bidali mezu elektronikoak

Gailuarekin mezu elektronikoak idatz eta bidal ditzakezu, baita mezuetan eranskinak gehitu ere.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Posta**.

- 1 Hautatu .
- 2 Kontaktuen zerrendako hartzaile bat gehitzeko, hautatu **Nori**, **Cc** edo **Bcc** ikonoa. Helbide elektronikoa eskuz sartzeko, sakatu **Nori**, **Cc** edo **Bcc** ikonoa.
- 3 Mezu elektronikoan eranskin bat gehitzeko, hautatu .
- 4 Mezua bidaltzeko, hautatu .

Hasierako pantailatik posta irekitzea

Hainbat posta widget izan ditzakezu hasierako pantailan, gailuaren arabera. Posta widget bakoitzak postontzi bat dauka. Widget-ean, mezu elektroniko berririk jaso duzun ala ez eta irakurri gabeko posta kopurua ikus dezakezu.

Hasierako pantailan posta widget bat gehitzea

Hasierako pantailan, hautatu **Postontzi berria** eta jarraitu argibideak.

Hasierako pantailan beste posta widget bat gehitzea

Eduki sakatuta hasierako pantaila, hautatu  eta zerrendan agertzen den nahi duzun widget-a.

Mezu elektronikoak irekitzea

Posta widget-ean, hautatu mezu bat.

Internet

Webari buruz

 Hautatu **Menua** > **Weba**.

Weba aplikazioarekin, Interneteko web orriak ikus ditzakezu.


Webean nabigatzeko, sarera konektatutako Interneteko sarbide bat konfiguratuta izan behar duzu gailuan.

Weba arakatzea

Hautatu **Menua** > **Weba**.

Aholkua: Zerbitzu-hornitzailearen tarifa finkoko datu-planik ez baduzu, kostuak telefono-fakturan gordetzeko, hari gabeko tokiko sare (WLAN) bat erabil dezakezu Internetera konektatzeko.

Web-orri batera joatea

Hautatu  tresna-barran eta sartu web-helbide bat.

Handiagotzea edo txikiagotzea

Kokatu bi atzamar pantailan eta bata bestearengandik urrundu edo elkartu.

Cachea datuak denbora batez gordetzeko erabiltzen den memoriaren kokapena da. Pasahitza eskatzen duen ezkutuko informazioa sartu edo sartzen saiatu bazara, ezabatu cache-a erabili ondoren.



Cachea ezabatzea

Hautatu **Aukerak** > **Ezabatu datu pribatuak** > **Cachea**.

Laster markak gehitzea

Beti web orri berberak bisitatzeko badituzu, gehi itzazu Laster markak ikuspegiari bertan erraz sartu ahal izateko.

Hautatu **Menua** > **Web**.

Nabigatzean, hautatu  > 


Laster marka duen web orri batera joatea nabigatzen duzun bitartean

Hautatu  eta laster marka.

Web-jarioetara harpidetzea

Ez dituzu zure web orri gogokoenak behin eta berriro bisitatu behar bertako aldaketen berri izateko. Web-jarioetara harpidetu zaitezke eta automatikoki azken edukietarako estekak lortu.

Hautatu **Menua** > **Web**.

Web orrietako web-jarioak  irudiarekin adierazi ohi dira. Besteak beste, azken berrien izenburuak edo blogen sarrerak partekatzeko erabiltzen dira.

Jarioetara harpidetzea

Zoaz web-jario bat duen blog edo web orri batera eta hautatu **Aukerak** > **Harpid. web-jarioetara**.

Jarioak eskuz eguneratzea

Web-jarioen ikuspegian, hautatu jarioa.

Jarioak automatikoki egunera daitezen ezartzea

Web-jarioen ikuspegian, eduki sakatuta jarioa, eta pop-up menuan, hautatu **Editatu > Eguneratze automatik..**

Inguruko gertaeren berri izatea

Unean zauden tokitik hurbil dauden gauza interesgarrien bila al zabilta? Hemen eta orain aplikazioarekin, hainbat informazio lor dezakezu, hala nola eguraldia, gertaerak, zinemako ordutegiak edo inguruko jatetxeei buruzkoa.

Hautatu **Menua > Web**.

- 1 Hautatu **Hemen eta orain**.
- 2 Arakatu eskuragarri dauden zerbitzuak eta, informazio gehiago lortzeko, hautatu zerbitzua.

Zenbait eduki hirugarrenek sortzen dute, eta ez Nokia-k. Baliteke informazioa guztiz zehatza ez izatea, eta erabilgarritasunaren araberakoa da.

Baliteke hainbat zerbitzu herrialde guztietan eskuragarri ez egotea eta hizkuntza jakin batzuetan soilik eskaintzea. Baliteke zerbitzuak sarearen menpe egotea. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan sareko zerbitzu-hornitzailearekin.

Zerbitzua erabiltzeak edo edukiak deskargatzeak datu askoren transferentzia ekar dezake eta, horren ondorioz, datu-trafikoko kostuak egon litezke.

Sare sozialak**Aplikazio sozialari buruz**

Hautatu **Menua > Sare sozial.**, hasi saioa Ovi by Nokia zerbitzuan eta hasi saioa nahi duzun sare sozial zerbitzuan.

Aplikazio sozialarekin, sare sozialen esperientzia hobe dezakezu. Sare sozialen zerbitzu batean sartzean Ovi by Nokia zerbitzuaren bidez, ondorengo egin dezakezu:

- Ikusi lagunen zerbitzu guztietako egoera-eguneratzeak ikuspegi bakarrean
- Argitaratu zure egoera-eguneratzea hainbat zerbitzutan aldi berean
- Partekatu unean bertan kamerarekin ateratako argazkiak
- Estekatu lineako lagunen egoerak gailuko dagokien harremanetarako informazioarekin
- Gehitu zure kokapen-informazioa egoera-eguneratzean

- Gehitu zerbitzuaren egutegiko gertaerak gailuaren egutegian

Sare sozialek onartzen dituzten eginbideak daude eskuragarri soilik.

Sare sozial zerbitzuak erabiltzeak sareko konexioa eskatzen du. Datu kantitate handiak transmiti daitezke eta, ondorioz, datu-trafikoaren kostuak egon daitezke. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa jasotzeko jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Sare sozialen zerbitzuak hirugarrenen zerbitzuak dira eta ez dira Nokia eskainitakoak. Irakurri erabiltzen ari zaren sare sozial zerbitzuaren pribatutasun-ezarpenak, informazioa jende askorekin parteka baitezakezu. Sare sozial zerbitzuari dagozkion erabilera-baldintzak informazioa zerbitzu horretan partekatzeari aplikatzen zaizkio. Ezagutu zerbitzuaren erabilera-baldintzak eta pribatutasun-jardunbideak.

Lagunen egoera-eguneratzeak ikuspegi bakarrean ikustea

Sare sozial zerbitzuetan saioa hasten duzunean Soziala aplikazioaren bidez, zure lagunak zerbitzu guztietako egoera-eguneratzeak ikus ditzakezu ikuspegi bakarrean. Ez duzu aplikazio batetik bestera aldatu beharrik izango guztien egoera ikusteko.

Hautatu **Menua** > **Sare sozial**..

- 1 Hasi saioa Ovi by Nokia zerbitzuan zure Nokia kontuaren erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliz.
- 2 Hautatu zerbitzua eta hasi saioa.
- 3 Hautatu **Gehitu kontua**.
- 4 Hautatu beste zerbitzuren bat eta hasi saioa.
- 5 Hautatu **Jarduera guztiak**.

Ikuspegiko zerbitzuak hautatzea

Hautatu egoera-eguneratzeen eremuaren ondoan dagoen kontua aldatzeko ikonoa. Horrek ikuspegian dauden zerbitzuak adierazten ditu.

Argitaratu zure egoera sare sozial zerbitzuetan

Aplikazio sozialarekin, zure egoera-eguneratzea sare sozial zerbitzura bidal dezakezu.

Hautatu **Menua** > **Sare sozial**..

Idatzi zure egoera-eguneratzea testu eremuan.

Zure lineako lagunak dagokien harremanetarako informazioarekin lotzea

Lineako lagunak sare sozial zerbitzuetan dituzten profilak gailuko dagokien harremanetarako informazioarekin lot ditzakezu. Lotu ondoren, haien

harremanetarako informazioa Soziala aplikazioan ikus dezakezu zuzenean, eta azken egoera-eguneratzeak ikusi kontaktuen zerrendan.

Hautatu **Menua > Sare sozial..**

- 1 Hautatu lineako lagun baten profileko argazkia.
- 2 Laster-menuan, hautatu **Gehitu profila kontaktuan**.
- 3 Zure kontaktuen zerrendan, hautatu profila lotu nahi diozun kontaktoa.

Zure lagunen egoera-eguneratzeak hasierako pantailan ikustea

Sare sozialetan saioa hastean Ovi by Nokia zerbitzuaren bidez, online dauden lagunren egoera-eguneratzeak zuzenean ikus ditzakezu hasierako pantailan.

Hasierako pantailako eguneratzeak arakatzea

Zerbitzu batean saioa hasi duzunean, widget sozialean eguneratzeak ikus ditzakezu.


Soziala aplikazioa hasierako pantailatik irekitzea

Hautatu Widget soziala. Saioa hasi baduzu, egoera-eguneratzeen ikuspegia irekitzen da. Saioa hasi ez baduzu, saioa hasteko ikuspegia irekiko da.


Argazkiak zerbitzuetara igotzea

Aplikazio sozialarekin, argazkiak igo ditzakezu sare sozial zerbitzuetara.

Hautatu **Menua > Sare sozial..**

- 1 Hautatu .
- 2 Hautatu argazki bat igotzeko.
- 3 Igoko dituzun elementuak markatzeko, hautatu elementuak.
- 4 Argazki bakarra igoz gero, testua eta etiketa bat gehi ditzakezu, argazkiaren zati jakin bat iruzkinduz.

Argazkiak ateratzea eta igotzea

- 1 Hautatu .
- 2 Hautatu kameraren argazkiak igotzeko aukera.
- 3 Atera argazki bat.
- 4 Gehitu testua eta etiketa bat argazkiaren zati bat iruzkinduz.

Argazkiak igotzeko, sare sozial zerbitzuak eginbidea onartu behar du.

Kokapena egoera-eguneratzean partekatzea

Aplikazio sozialarekin, lagunei non zauden esan diezaiekezu, haiek aurki zaitzaten.

Hautatu Menua > Sare sozial..

- 1 Hautatu testua sartzeko eremua pantailaren goiko aldean.
- 2 Gehitu zure kokapena. Gailuak GPSa erabiltzen du zure uneko kokalekua zehazteko eta zuregandik hurbil dauden mugarrak bilatzen ditu.
- 3 Mugari ugari aurkitzen badira, hautatu bat zerrendatik.

Kokapena partekatzea eskuragarri dago zerbitzuak onartzen badu soilik.

Zure kokalekua partekatu baino lehen, pentsatu beti norekin ari zaren partekatzen. Irakurri erabiltzen ari zaren sare sozial zerbitzuaren pribatutasun-azarpenak, izan ere, kokalekua pertsona talde handi batekin partekatuko duzu.

Sare sozial zerbitzuari dagozkion erabilera-baldintzak zure kokalekua zerbitzuarekin partekatzeari aplikatu dakizkioke. Ohitu zaituz zerbitzuaren erabilera-baldintzetara eta pribatutasun-jarraibideetara, eta behar bezalako gogoeta egin ezazu zure kokalekua adituzera eman aurretik edo besteen kokalekua ikusi aurretik.

Sare sozialetako lagunekin harremanetan jartzea

Lagunaren egoera iruzkintzea nahikoa ez bada, lagunari deitu edo mezu bat bidal diezaiokezu.

Hautatu Menua > Sare sozial..

- 1 Hautatu lagun baten profileko argazkia.
- 2 Laster-menuan, hautatu **Ikusi kontaktuaren informazioa**.
- 3 Hautatu komunikatzeko metodoa.

Eginbidea eskuragarri egongo da zure lineako lagunak gailuko kontaktuaren informaziora estekatu badituzu soilik.

Komunikazio-metodo erabilgarriak desberdinak izan daitezke. Lagunei deitzeko edo testu-mezuak bidaltzeko, zerbitzuak eginbidea onartu behar du.

Gailuaren egutegian gertaerak gehitzea

Sare sozial zerbitzu baten gertaeren gonbidapenei erantzutean, gertaerak gailuaren egutegian gehi ditzakezu, iristear dauden gertaerak ikusi ahal izateko sarean ez egon arren.

Hautatu Menua > Sare sozial. eta zerbitzua, eta saioa hasi.

- 1 Hautatu gertaera-gonbidapen bat.
- 2 Gehitu gertaerak gailuaren egutegian.

Eginbide hau eskuragarri dago zerbitzuak onartzen badu.

Kamera

Kamerari buruz


 Hautatu Menua > Aplikazioak > Kamera.

Zertarako eramango duzu aparteko kamera bat oroitzapenak gordetzeko behar duzun guztia gailuan baldin baduzu? Kamera aplikazioarekin, erraz atera ditzakezu argazkiak edo graba ditzakezu bideoak. Ondoren, gailua erabil dezakezu argazkiak eta bideoak ikusteko edo editatzeko, Interneten partekatzeko edo gailu bateragarrietara bidaltzeko.


Atera argazkiak

Eduki sakatuta kamera-tekla.

Gailuaren kamerak Fokatzeko osoa eginbidea dauka. Eginbide horrekin, hondoko eta aurrealdeko objektuak biak foka ditzakezu argazkia ateratzerakoan.


- 1 Aurpegiak detektatzeko eginbidea aktibatzeko, hautatu  > **Aurp.-haut.**
Aurpegiak detektatzeko eginbideak aurpegiak antzematen ditu eta haien inguruan laukizuzenak marrazten ditu, baita mugitzen ari badira ere. Lehentasuna duen aurpegia laukizuzen hori batek inguratzen du.
- 2 Sakatu kamera tekla. Ez mugitu gailua argazkia gorde eta amaierako irudia azaldu arte.

Memoria-txartela behar duzu kamera erabiltzeko. Argazkiak eta bideoak memoria-txartelean gordetzen dira.



Argazkien eta bideoen kokapen-informazioa gordetzea

Ibilaldi edo bidaiaren batean ateratako argazkietan edo grabatutako bideoetan zehazki non zeunden gogoratzea zaila egiten bazaizu, gailua ezar dezakezu kokalekua automatikoki graba dezan.

 eduki sakatuta.


Kokapena grabatzeko eginbidea aktibatzea


Hautatu Aukerak > Ezarpenak > Gorde kokal. inform. > Bai.

Telefonoak minutu batzuk behar izan ditzake kokapen-datuak lortzeko. Zure kokapenak, erakinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen

erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Kokapen-informazioa duen fitxategi bat partekatzen baduzu, kokapen-informazioa ere partekatu egiten da, eta fitxategia ikusten duten hirugarrenek zure kokapena ere ikus dezakete. Eginbide horrek sareko zerbitzua behar du.

Kokapen-informazioaren adierazleak:

 — Kokapen-informazioa ez dago eskuragarri. Litekeena da kokapen-informazioa argazkietan edo bideoetan ez gordetzea.

 — Kokapen informazioa eskuragarri dago. Kokapen-informazioa argazkietan edo bideoetan gordetzen da.

Kokapenari buruzko informazioa irudi edo bideoklip batean erants daiteke kokapenaren koordinatuak sare edo GPS bidez zehatz badaitezke. Kokapenari buruzko informazioa erantsita duen irudi edo bideoklip bat partekatzen baduzu, kokapenaren informazioa irudi edo bideoklip hori ikusten dutenek ere ikusgai izango dute. Kokapena zehazteko funtzioa desaktiba dezakezu kameraren konfigurazioan.

Iluntasunean argazkiak ateratzea

Gau modua aktibatzen baduzu, argi gutxi egon arren argazkiak atera ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera**.


Gau modua aktibatzea

- 1 Hautatu  > **Eszena moduak**.
- 2 Flasha erabiltzeko, hautatu **Gau-erretratu**a. Ez baduzu flasha erabili nahi, hautatu **Gau**a.

Argazkietarako aholkuak

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Kamera**.


Argazki bat ateratzerakoan, ondorengoak kontutan izan:

- Erabili bi eskuak kamera geldirik mantentzeko.
- Handiagotzean, irudiaren kalitateak okerrera egin dezake.
- Kamerak bateria aurrezteko modua aktibatzen du minutu batean ezer egiten ez bada. Kamera berriro aktibatzeko, sakatu kamera-tekla labur.
- Erabiltzaileak zehaztutako eszena ezar dezakezu eszena lehenetsi gisa Kamera aplikazioa irekitzen duzun bakoitzean erabiltzeko. Hautatu  > **Eszena mod.** > **Erabiltz. zehaztuta** > **Editatu**. Aldatu ezarpenak eta hautatu **Ezarri leh. esz. modu gisa** > **Bai**.
- Segurtasun distantzia bat manten ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliangandik hurbil. Ez estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.

Bideoak grabatzea

Gailuarekin argazkiak ateratzeaz gain, zure une bereziak bideo gisa ere gorde ditzakezu.

Eduki sakatuta kamera-tekla.

- 1 Bideo modutik argazki modura aldatzeko, beharrezkoa bada, hautatu .
- 2 Grabatzen hasteko, sakatu kamera-tekla. Ikur gorri bat agertuko da, grabatzen ari denaren seinale.
- 3 Grabaketa eteteko, hautatu **Eten**. Grabaketa eteten baduzu eta ez baduzu tekларik sakatzen minutu batean, grabaketa gelditu egingo da.
Handiagotzeko edo txikiagotzeko, erabili bolumen-teklak.
- 4 Grabaketa gelditzeko, sakatu kamera-tekla. Bideoa automatikoki gordeko da Argazkiak karpetan.

Argazkiak bidaltzea

Lagunei argazkiak bidal diezazkiekezu multimedia edo mezu elektronikoko gisa, edo Bluetooth bidez.

- 1 Atera argazki bat.
- 2 Hautatu **Aukerak > Bidali**.
- 3 Hautatu bidalketa-metodoa.

Zure argazkiak eta bideoak**Argazkiei buruz**

 Hautatu **Menua > Argazkiak**.

Argazkiak aplikazioan gailuan dituzun argazki eta bideo guztiak ikus ditzakezu. Erraz ikus ditzakezu bideoak edo argazkiak arakatu eta hoberenak inprimatu.

Argazkiak eta bideoak telebista bateragarri batean ere ikus ditzakezu.

Multimedia-fitxategiak modu eraginkorragoan kudeatzeko, gehitu etiketak fitxategietan edo antolatu kategorietan.

Argazkiak eta bideoak ikustea

Hautatu **Menua > Argazkiak**.

Argazkiak eta bideoak arakatzea

Hautatu karpeta bat eta mugitu gora edo behera.

Argazkiak pantaila osoan ikustea

Hautatu argazkia eta biratu gailua paisaia modura.

Pantaila osoan argazkiak arakatzeko, mugitu eskuinera edo ezkerrera.

Zoom-graduatzailerik ikusteko, sakatu argazkia. Bestela, kokatu bi hatz pantailan eta, handiagotzeko, berezi bata bestearengandik. Txikiagotzeko, hurbildu behatzak.



Argazkiak diaporama gisa ikustea

Hautatu argazki bat eta **Aukerak > Diaporama > Erreproduzitu**. Diaporama hautatutako argazkitik hasiko da.

Bideoak erreproduzitzea

Hautatu karpeta bat eta bideo bat.

Argazkiak eta bideoak gailu bateragarri batetik ere jaso ditzakezu. Jasotako argazki edo bideo bat Argazkiak atalean ikusi ahal izateko, lehenbizi gorde behar duzu.

Atera dituzun argazkiak editatzea

Argazkien editorearekin, argazkietan efektuak, testua, clip art irudiak edo markoak gehi ditzakezu.

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Argazki-edit.** eta argazki bat.

- 1 Efektuak gehitzeko, hautatu nahi duzun aukera tresna-barra hedatuan.
- 2 Editatutako argazkia gordetzeko, hautatu **Aukerak > Gorde**. Editatutako argazkiak ez du jatorrizkoa ordezten.

Editatutako argazkiak geroago ikusteko, hautatu **Menua > Argazkiak**.


Atera dituzun argazkiak inprimatzea

Argazkiak zuzenean inprima ditzakezu inprimagailu bateragarri bat erabiliz.

- 1 Erabili USB datu-kable bateragarria gailua inprimagailu batera konektatzeko Multim.-transf. moduan.
- 2 Hautatu inprimatuko duzun argazkia.
- 3 Hautatu **Aukerak > Inprimatu**.

- 4 Inprimatzeko USB konexioa erabiltzeko, hautatu **Inprimatu** > **USB bidez**.
- 5 Argazkia inprimatzeko, hautatu **Aukerak** > **Inprimatu**.

Aholkua: Bluetooth gaitasuneko inprimagailua ere erabil dezakezu. Hautatu **Inprimatu** > **Bluetooth bidez**. Aldatu hautatutako inprimagailua Bluetooth gaitasuna duen batera eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei.


Aholkua: USB kablea konektatutakoan, USB modua alda dezakezu. Arakatzaille-ikuspegian, goian eskuinetara, hautatu  > **USB**.

Argazkiak eta bideoak telebistan ikustea

Argazkiak eta bideoak telebista bateragarrietan ikus ditzakezu, lagunei eta senideei errazago erakutsi ahal izateko.

Nokia Video Connectivity kablea erabili behar duzu (osagarria bereizita saltzen da), eta agian telebistaren irteerako ezarpenak eta formatu-ratioa aldatu beharko dituzu. Telebistaren irteerako ezarpenak aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Osagarriak** > **TB-irteera**.

- 1 Nokia Bideo Konektibitate Kablea telebista bateragarriaren bideo sarrerara konektatu. Konektoreen koloreek entxufeen koloreekin bat etorri behar dute.
- 2 Nokia Bideo Konektibitate Kablearen beste muturra zure gailuaren Nokia AV konektorera. Agian **TB irteera kablea** USB modu gisa hautatu beharko duzu.
- 3 Arakatu ikusi nahi duzun fitxategia.



Bideoak eta TB

Bideoak

Bideoei buruz

 Bideoak aplikazioarekin, gailuan dauden bideoak ikus ditzakezu.

Aholkua: Lortu bideo berriak Ovi dendatik. Ovi dendari buruz gehiago ikasteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Bideoak deskargatzeko pakete-datu sarbideak erabiltzean, zure zerbitzu-hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidal daitezke. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa jasotzeko jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Bideoak erreproduzitzea

Hautatu **Menua** > **Bideoak eta TB**.

Hautatu bideoa.

Bideo-jogailuaren kontrolak erabiltzea

Ukitu pantaila.

Kopiatu bideoak gailuaren eta ordenagailuaren artean

Ba al duzu ordenagailuan gailuan ikusi nahiko zenukeen bideorik? Edo gailuarekin grabatu dituzun edo gailura deskargatu dituzun bideoak ordenagailuan kopiatu nahiko al zenituzke? USB datu-kable bat erabil dezakezu ordenagailuaren eta gailuaren artean bideoak kopiatzeko.

- 1 Erabili USB datu-kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko. Memoria-txartel batean kopiatzen ari bazara, ziurtatu memoria-txartela sartuta dagoela.
- 2 Ireki Nokia Ovi Suite ordenagailuan eta jarraitu bistaratzen diren jarraibideak. Gailuan, onar daitezkeen formatuan dauden bideoak Bideoak karpetan agertzen dira.

Web bidezko telebista ikustea

Eskatu ahalako Web bidezko telebista zerbitzuarekin, berriak jarrai ditzakezu eta zure telesail gogokoan azken pasarteetan egunera jar zaitezke.


Aukeratu **Menua** > **Bid. eta TB** eta zerbitzu bat.

Edukia zuzenean erreproduzitzeko Web bidezko telebista erabiliz, 3G, 3.5G edo WLAN konexioa beharrezkoa da. Web bidezko telebista-zerbitzuak erabiltzean datu kopuru handiak transmiti daitezke. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo zure sarearen zerbitzu-hornitzailearengana.

Aurretik instalatutako Web bidezko telebista zerbitzuen hautaketa herrialdearen eta sarearen zerbitzu-hornitzailearen arabera da. Web bidezko telebista zerbitzuen edukia aldatzen da zerbitzu batetik bestera.

- 1 Web bidezko telebistaren edukia arakatzeko, arrastatu pantaila.
- 2 Erreproduzitzen hasteko, hautatu irudi txikia.
- 3 Erreproduzioan zehar kontrolak ikusteko edo ezkutatzeko, ukitu pantaila.
- 4 Bolumenta egokitzeko, erabili bolumenaren teklak.

Web bidezko telebistarako widget-ak hasierako pantailan gehitzea

Eduki sakatuta hasierako pantaila eta hautatu  eta nahi duzun Web bidezko telebistarako zerbitzua.

Web bidezko telebistarako zerbitzu gehiago bilatzea

Nokiaren Ovi Denda-tik Web bidezko telebistarako zerbitzuak deskargatzeko, hautatu **Eskur. geh.** Deskargatutako zerbitzuak "Aplikazioak" karpeta gordetzen dira, baina beste karpeta batera mugitu ditzakezu, Web bidezko telebistari eskainitako karpeta batera adibidez.

Ovi dendari buruz gehiago ikasteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Musika eta audioa

Musika erreproduzigailua

Musika-jogailuari buruz

 Hautatu **Menua > Musika > Musika-jog..**

Musika-jog. aplikazioarekin, musika eta podcastak entzun ditzakezu zauden tokian zaudela.


Aholkua: Lortu musika gehiago Ovi musika gunetik. Hautatu **Aukerak > Joan Musika-dendara**. Ovi-ri buruz gehiago jakiteko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Musika erreproduzitzea

Hautatu **Menua > Musika > Musika-jog..**

- 1 Hautatu **Aukerak** eta nahi duzun ikuspegia. Abestiak abestien edo albumen arabera araka ditzakezu.



Album-ikuspegian, albumen estalkiak arakatzeko, jarri gailua horizontalki eta mugitu ezkerredera edo eskuinera.



- 2 Hautatu abesti edo album bat.


Aholkua: Abestiak ausazko ordenan entzuteko, hautatu .

Erreproduzio-zerrenda gelditzea eta jarraitzea

Erreproduzio-zerrenda eteteko, hautatu ; jarraitzeko, sakatu .

Abestiak aurreratzea edo atzeratzea

Eduki sakatuta  edo .



Aholkua: Musika entzutean, hasierako pantailara itzul zaitezke, Musika-jog. aplikazioa atzeko planoan erreproduzitzen utziz.

Erreproduzio-zerrendak sortzea

Giro ezberdinetarako bestelako musika entzun nahi al duzu? Erreproduzio-zerrendekin, abesti-hautaketak sor ditzakezu ordena zehatz batean erreproduzi daitezten.

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Musika-jog..**

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Errepr.-zerr..**
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Errepr.-zerr. berria.**
- 3 Idatzi erreproduzio-zerrendaren izena eta hautatu **Ados.**
- 4 Hautatu erreproduzio-zerrendan gehitu nahi dituzun abestiak, erreproduzitu nahi dituzun ordenan.

Memoria-txartel bateragarri bat sartuta badago, erreproduzio-zerrenda memoria-txartelean gordeko da.

Erreprodukzio-zerrendan abestiak gehitzea

Eduki sakatuta abestia, eta pop-up menuan, hautatu **Gehitu errepr.-zerrendara**.

Erreprodukzio-zerrendatik abestiak kentzea

Erreprodukzio-zerrendaren ikuspegian, eduki sakatuta abestia, eta pop-up menuan, hautatu **Kendu**.

Honela abestia ez da gailutik ezabatuko, erreprodukzio-zerrendatik baizik.


Erreprodukzio-zerrendak erreproduzitzea


Hautatu **Aukerak > Errepr.-zerr.** eta erreprodukzio-zerrenda.

Aholkua: Musika-jog. aplikazioak automatikoki sortzen du gehien erreproduzitutako, berriki erreproduzitutako eta berriki gehitutako abestien zerrenda.

Ordenagailutik musika kopiazea

Ordenagailuan duzun musika gailuan entzun nahiko zenuke? Nokia Ovi Player gailura musika transferitzeko modurik azkarrena da, eta zure musika bildumak kudeatu eta sinkronizatzeko erabil dezakezu.



- 1 Erabili USB datu-kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko. Ziurtatu gailuaren barruan memoria-txartel bateragarri bat dagoela.
- 2 Gailuan, hautatu goiko eskuinaldeko iskinean dagoen jakinarazpen-eremua eta hautatu  > **USB > Multim.-transf..**
- 3 Ordenagailuan, ireki Nokia Ovi Player. Informazio gehiagorako, zoaz Ovi Player-en laguntzara.

Deskargatu Ovi player aplikazioaren azken bertsioa www.ovi.com helbidean.

Hainbat musika-fitxategi eskubide digitalen kudeaketaren bidez (DRM) babestuta egon daitezke eta ezin dira gailu batean baino gehiagotan erreproduzitu.

Eduki babestua

Eskubide digitalen kudeaketaz (DRM) babestutako edukiak, hala nola argazkiak, bideoak edo musika, erlazionatutako lizentzia bat dakar edukiak erabiltzeko dituzun eskubideak zehazteko.

Lizentzien xehetasunak eta egoera ikus ditzakezu eta lizentziak berraktiba edo ken ditzakezu.

Eskubide digitalen lizentziak kudeatzea

Hautatu Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Tel. kudeaketa > Seg.-ezarpenak > Babestutako edukia.

Soinuak grabatzea


Gailuaren grabagailua erabil dezakezu ahots-oharrak zein naturako soinuak (txorien txioak etab.) grabatzeko. Gordetako soinuak lagunei bidal diezazkiekezu.

Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Grabagailua.

Soinu-klipak grabatzea

Hautatu .

Grabaketa gelditzea


Hautatu . Soinu-klipa Fitxategi kudeatzailea aplikazioaren Soinu-fitxateg. karpetan gordetzen da automatikoki.

Grabatutako soinu-klipak audio mezu gisa bidaltzea

Hautatu Aukerak > Bidali.


FM irrattia

FM irratia buruz

 Hautatu Menua > Musika > Irrattia.

Gailua erabiliz FM irratia-kateak entzun ditzakezu; entzungailuak konektatzea eta kate bat hautatzea besterik ez duzu.

Irrattia entzuteko, entzungailu bateragarriak telefonora konektatu behar dituzu. Entzungailuek antena gisa funtzionatzen dute.



Irrati-kateak aurkitzea eta gordetzea

Bilatu zure irrati-kate gogokoenak eta gorde itzazu, hurrengo batean erraz entzun ahal izateko.

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

Tresna-barran, hautatu > .

Irrati-kateak aurkitzeko, bilaketa automatikoa erabil dezakezu edo frekuentzia bat eskuz ezar dezakezu. FM irratiak lehenengo aldiz irekitzen duzunean, aplikazioak zure kokalekuan entzun daitezkeen irrati-kateak automatikoki bilatzen ditu.

Kate eskuragarri guztiak bilatzea

- 1 Tresna-barran, hautatu .
- 2 Aurkitutako kate guztiak gordetzeko, tresna-barran hautatu . Kate bakar bat gordetzeko, eduki sakatuta katearen izenburua eta, pop-up menuan, hautatu **Gorde**.

Frekuentziak eskuz ezartzea

- 1 Tresna-barran, hautatu **Sintonizatu eskuz**.
- 2 Erabili gora eta behera mugitzeko geziak frekuentzia bat sartzeko.

Irratia entzun



FM irrati-kate gogokoenak zauden tokian zaudela entzun ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

Gordetako irrati-kateak entzutea

Tresna-barran, hautatu > , eta hautatu zerrendako irrati-kate bat.

Gordetako aurreko edo hurrengo katera joatea

Joan eskuinera edo ezkerrera. Bestela, hautatu  edo .



Kate eskuragarri gehiago bilatzea

Mugitu gora edo behera. Bestela, eduki sakatuta  edo .

Irratia bozgorailua erabiliz entzutea

Hautatu **Aukerak** > **Aktibatu bozgorailua**. Entzungailu bat konektatuta izan behar duzu.

Dei bat egin edo erantzun dezakezu irratia entzuten ari zaren bitartean. Irratia automatikoki mututzen da dei aktibo batean zehar.

Aholkua: Ovi Musika zerbitzuan musika bilatzeko eta erosteko, tresna-barran, hautatu  > .

Irratiaren difusioaren kalitatea irratikatea dagoen lekuaren estalduraren arabera da.



Gordetako irratikateen zerrenda berrantolatzea

Gordetako irratikateen zerrenda berrantola dezakezu, gogokoenak goialdean egon daitezten.

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

Gorde dituzun irratikateak Irrati-zerrenda ikuspegi zerrendatuta daude.

Irratikateak zerrendan mugitzea

- 1 Tresna-barran, hautatu  > .
- 2 Eduki sakatuta irratikatearen izena, eta pop-up menuan, hautatu **Mugitu**.
- 3 Hautatu zerrendan izango duen leku berria.

Mapak

Mapak aplikazioaren ikuspegi orokorra

 Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Ongi etorri Mapak aplikaziora.

Mapak aplikazioak inguruan zer dagoen erakusten dizu, ibilbideak antolatzen laguntzen dizu eta joan nahi duzun tokira gidatzen zaitu.

- Bilatu hiriak, kaleak eta zerbitzuak.

- Bilatu joan nahi duzun tokirainoko urratsez urratseko jarraibideak.
- Sinkronizatu gogoko kokapenak eta ibilbideak gailu mugikorraren eta Interneteko Ovi Mapak zerbitzuaren artean.
- Begiratu eguraldiaren iragarpenak eta tokiko informazio gehiago, erabilgarri badago.

Zerbitzu batzuk agian ez dira erabilgarri egongo herrialde guztietan eta agian hizkuntza jakin batzuetan bakarrik eskainiko dira. Zerbitzuak sarearen araberakoak izan daitezke. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Zerbitzua erabiltzeak edo edukiak deskargatzeak datu askoren transferentzia ekar dezake eta, horren ondorioz, datu-trafikoko kostuak egon litezke.

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.




Zenbait eduki hirugarrenek sortzen dute, eta ez Nokia-k. Baliteke informazioa guztiz zehatza ez izatea, eta erabilgarritasunaren araberakoa da.

Nire kokapena

Zure kokalekua eta mapa ikustea

Ikusi zure uneko kokalekua mapan eta arakatu hainbat hiri eta herrialdetako mapak.

Hautatu **Menua** > **Mapak** eta **Nire kokap.**

 ikurrak zure uneko posizionamendua adierazten du, eskuragarri badago. Gailua zure posizionamendua bilatzen ari denean,  irudiak keinu egiten du. Zure posizionamendua eskuragarri ez badago,  irudiak zure azkeneko posizionamendu ezaguna adierazten du.

Zelula IDan oinarritutako posizionamendua soilik eskuragarri badago, posizionamendu-ikonoaren inguruko eraztun gorri batek zehaztuko du zein eremu orokorretan egon zaitzkeen. Biztanle askoko eremuetan, estimazioaren zehaztasuna handitzen da, eta eraztun gorria biztanle gutxiko eremuetan baino txikiagoa da.

Mapan zehar mugitzea

Arrastatu mapa atzamarraz. Lehenespen gisa, mapa iparralderantz orientatuta dago.

Zure uneko kokapena edo azken kokapen ezaguna ikustea

Hautatu .


Handiagotzea edo txikiagotzea

Hautatu **+** edo **-**.

Gailuan gordeta dituzun mapetan ez dagoen eremu bat arakatzeko baduzu eta datu-konexio aktiboa baduzu, automatikoki mapa berriak deskargatuko dira.

Mapen hedapena herrialdearen arabera aldatzen da.

Maparen bista



- 1 Aukeratutako kokapena
- 2 adierazlearen eremua
- 3 Leku interesgarriak (adibidez, tren geltokia edo museoa)
- 4 Informazio eremua.

Maparen itxura aldatzea

Ikusi mapa hainbat modutan, non zauden erraz identifika dezazun.

Hautatu **Menua** > **Mapak eta Nire kokap..**

Hautatu  eta aukera hauetariko bat:

Maparen bista — Maparen ikuspegi estandarrean, zenbait xehetasun, hala nola kokalekuen izenak edo autobideen zenbakiak, erraz irakur daitezke.

Satelitearen bista — Ikuspegi xehatua lortzeko, erabili sateliteko irudiak.

Lursailaren bista — Ikusi begirada batean lur mota, adibidez, errepidetik kanpo bidaiatzen ari zarenean.

3D bista — Ikuspegi errealistagoa lortzeko, aldatu maparen ikuspuntua.

Mugarriak — Adierazi eraikin ezagunak eta erakargarriak mapan.

Gaueko modua — Ilundu maparen koloreak. Gauean bidaiatzean, mapa errazago ikusten da modu honetan.

Mapak deskargatzea eta eguneratzea

Mugikorraren datu-transferentzien kostuak saihesteko, deskargatu azkeneko mapen eta ahots-laguntzaren fitxategiak ordenagailuan eta transferitu eta gorde gailuan.

Erabili Nokia Ovi Suite aplikazioa azken mapak eta ahots-laguntzaren fitxategiak deskargatzeko ordenagailu bateragarri batean. Nokia Ovi Suite ordenagailu bateragarri batean deskargatzeko eta instalatzeko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Aholkua: Gorde mapak gailuan bidaiak hasi aurretik, atzerrian zaudenean Interneterako konexiorik gabe mapak arakatu ahal izateko.

Gailuak Interneterako konexiorik erabiltzen ez duela ziurtatzeko, menu nagusian, hautatu  > **Internet** > **Konexioa** > **Deskonektatuta**.

Erabili iparrorratza

Iparorratza aktibatutakoan, iparrorratzaren geziak eta mapak automatikoki biratzen dute gailuaren goiko aldeak adierazitako norabidean.

Aukeratu **Menua** > **Mapak** eta **Nire kokap.**

Aktibatu iparrorratza

Hautatu .


Desaktibatu iparrorratza

Hautatu  berriro. Mapa iparraldera orientatuta dago.

Iparorratza aktibatuta dago berdez inguratuta agertzen denean. Iparorratza kalibratu egin behar da gorriz edo horiz inguratuta dagoenean.

Kalibratu iparrorratza

Biratu gailua ardatz guztien inguruan mugimendu jarrai batekin iparrorratzaren ingurua berde bihurtzen den arte.



Iparrorratza ez da guztiz zehatza. Eremu elektromagnetikoeak, metalezko objektuek edo bestelako kanpo-inguruabarrek ere iparrorratzaren zehaztasunean eragin dezakete. Iparrorratza behar bezala kalibratuta egon behar da.

Kokapen-metodoei buruz

Mapak aplikazioak zure kokapena bistaritzen du mapan GPS, A-GPS, WLAN, edo ID mugikor kokapen-metodoetan oinarrituta.

Global Positioning System (GPS) metodoa kokapena kalkulatzeko sateliteetan oinarritzen den sistema da. Lagundutako GPS (A-GPS) metodoa sarean oinarritutako sistema da eta GPS datuak bidaltzen dizkizu kokapenaren abiadura eta zehaztasuna hobetzeko.

Hari gabeko sare lokalen (WLAN) bidez kalkulaturako metodoak kokapenaren zehaztasuna hobetzen du GPS seinaleak erabilgarri ez daudenean, eraikinen barruan edo eraikin garaien artean zaudenean bereziki.

ID mugikorrean oinarritutako kokapenean, zure gailu mugikorrera konektaturako antena-dorrea erabiltzen da zure kokapena zehazteko.

Mapak lehenengoz erabiltzerakoan, mapen informazioa deskargatzeko erabili beharreko Interneteko sarbide-puntua zehazteko eskatuko zaizu; bestela, A-GPS sistema erabili nahi duzula edo WLAN batera konektatu nahi duzula zehatz dezakezu.

GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitatea zenbait faktorek zehazten dute, hala nola, zure kokapenak, sateliteen kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek, eguraldiaren egoerak eta Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek. Baliteke GPS seinaleak erabilgarri ez egotea eraikinen barruan edo lurpean.

Ez erabili GPSa kokapen zehatza neurtzeko eta inoiz ez oinarritu GPS eta mugikorren sareek kokapenari buruz eskainitako informazioan soilik.






Oharra: WLANA erabiltzea mugatuta egon daiteke zenbait herrialdetan. Frantzia adibidez, WLANA eraikinen barruan soilik erabil daiteke. Informazio gehiagorako, jar zaitez harremanetan tokian-tokiko arduradunekin.

Bilatu tokiak

Bilatu kokapenak

Mapak aplikazioarekin kokapen eta negozio zehatzak aurkitu ahal izango dituzu.

Hautatu **Menua** > **Mapak** eta **Bilaketa**

- 1 Hautatu bilaketa-eremua eta sartu bilaketa-hitzak, hala nola, kalearen helbidea edo posta-kodea.
- 2 Hautatu . Bilaketa-eremua ezabatzeko, hautatu .
- 3 Hautatu proposatutako emaitzen zerrendako elementu bat.
Kokapena mapan bistaratzen da. Bilaketa-emaitzen zerrendako gainerako kokapenak mapan ikusteko, hautatu informazio-eremuaren ondoko gezieta bat .

Itzuli proposatutako emaitzen zerrendara

Hautatu **Zerr..**

Bilatu zure inguruan dauden mota desberdinetako tokiak

Hautatu **Arakatu kategoriak** eta kategoria bat, hala nola, erosketak, hotelak edo garraioa.

Bilaketa-emaitzarik aurkitzen ez bada, ziurtatu bilaketa-terminoak behar bezala idatzi dituzula. Linean bilaketak egiterakoan, Interneteko konexioarekin izan ditzakezun arazoek ere emaitzei eragin diezaiekete.


Datu-transferentzia kostuak ekiditeko, Interneteko konexio aktiborik gabe ere lor ditzakezu bilaketa-emaitzak, bilaketa egiteko erabilitako eremuaren mapa gailuan gordeta baduzu.

Ikusi kokapenen xehetasunak

Ikusi toki edo kokapen jakin bati buruzko informazio gehiago, hala nola, hotelei edo jatetxeei buruzkoa, erabilgarri badago.

Hautatu **Menua** > **Mapak** eta **Nire kokap..**

Ikusi tokiaren xehetasunak

Hautatu toki, bere informazio-eremua , eta **Erakutsi xehetasunak**.

Ez dagoen tokiren bat edo eduki desegokia edo xehetasun okerrak dituen tokiren bat aurkituz gero (adibidez, tokiaren kokapena edo harremanetarako informazio oker agertzen badira), Nokia-ri jakinaraztea gomendatzen da.

Aukera eskuragarriak ezberdinak izan daitezke.


Gogokoak

Tokiak eta ibilbideak gordetzea


Gorde helbideak, toki interesgarriak eta ibilbideak geroago azkar erabili ahal izateko.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Tokiak gordetzea

- 1 Hautatu **Nire kokap.**.
- 2 Ukitu kokalekua. Helbide edo toki bat bilatzeko, hautatu **Bilaketa**.
- 3 Ukitu kokalekuaren informazio eremua .
- 4 Hautatu **Gorde toki**a.

Ibilbideak gordetzea

- 1 Hautatu **Nire kokap.**.
- 2 Ukitu kokalekua. Helbide edo toki bat bilatzeko, hautatu **Bilaketa**.
- 3 Ukitu kokalekuaren informazio eremua .
- 4 Ibilbideko beste puntu bat gehitzeko, hautatu **Gehitu ibilbideari**.
- 5 Hautatu **Gehitu puntu berria** eta aukera egokia.
- 6 Hautatu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Gorde ibilbidea**.

Gordetako tokiak eta ibilbideak ikustea

Hautatu **Gogokoak** > **Tokiak** edo **Ibilbideak**.

Tokiak edo ibilbideak ikustea eta antolatzea

Erabili Gogokoak gorde dituzun tokietara eta ibilbideetara azkar sartzeko.

Taldekatu tokiak eta ibilbideak bildumetan, adibidez, bidai bat antolatzean.

Hautatu **Menua** > **Mapak** eta **Gogokoak**.

Gordetako tokiak mapan ikustea

- 1 Hautatu **Tokiak**.
- 2 Joan tokira.
- 3 Hautatu **Erakutsi mapan**.

Gordetako tokien zerrendara itzultzeko, hautatu **Zerr..**

Bildumak sortzea

Hautatu **Bilduma berria sortu** eta sartu bildumaren izena.

Gordetako tokiak bildumetan gehitzea

- 1 Hautatu **Tokiak** eta tokia.
- 2 Hautatu **Bildumak antolatu**.
- 3 Hautatu **Bilduma berria** edo aurretik duzun bilduma bat.

Tokiak edo ibilbideak ezabatu behar badituzu, edo bilduma batean ibilbide bat gehitu behar baduzu, zoaz Ovi Mapak Interneteko zerbitzura www.ovi.com helbidean.

Bidali tokiak lagunei

Tokiei buruzko informazioa lagunekin partekatu nahi duzunean, bidali xehetasunak zuzenean haien gailuetara.

Aukeratu **Menua** > **Mapak** eta **Nire kokap..**

Bidali tokiak lagunen gailu bateragarrietara

Hautatu kokapena mapan, sakatu kokapenaren informazio-eremua (📍), eta hautatu **Partekatu**.

Gogokoak sinkronizatzea

Antolatu bidaia bat ordenagailuan Ovi Mapak webgunean, sinkronizatu gordetako tokiak eta ibilbideak gailu mugikorrarekin, eta sartu antolaketan zauden tokian zaudela.

Tokiak edo ibilbideak gailu mugikorraren eta Ovi Mapak interneteko zerbitzuaren artean sinkronizatzeko, Nokiaren kontuan saioa hasita izan behar duzu.

Gordetako tokiak eta ibilbideak sinkronizatzea

Hautatu **Gogokoak** > **Sinkronizatu Ovi-rekin**. Nokia konturik ez baduzu, bat sortzea proposatuko zaizu.

Gailua ezartzea Gogokoak automatikoki sinkroniza ditzan

Hautatu  > **Sinkronizazioa** > **Sinkronizazioa** > **Irikitzer. eta ister..** Gailuak sinkronizazioa abiarazten du Mapak aplikazioa irekitzen eta ixten duzunean.

Sinkronizatzeak Interneterako konexio aktiboa eskatzen du, eta datu kantitate handiak transmiti daitezke zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa jasotzeko jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Ovi Mapak Interneteko zerbitzua erabiltzeko, zoaz www.ovi.com helbidera.

Kokapena partekatzea

Argitaratu zure uneko kokapena Facebook-en, testua eta argazkia gehituta. Zure Facebook-eko lagunek zure kokapena ikus dezakete mapan.

Hautatu **Menua** > **Mapak eta Part. kok.**

Kokapena partekatzeko, Nokia kontua eta Facebook-eko kontua behar dituzu.

- 1 Hasi saioa Nokia kontuan edo, oraindik konturik ez baduzu, hautatu **Kontu berria sortu**.
- 2 Hasi saioa Facebook-eko kontuan.
- 3 Hautatu uneko kokapena.
- 4 Idatzi egoera-eguneratzea.
- 5 Mezuari argazki bat eransteko, hautatu **Gehitu argazkia**.
- 6 Hautatu **Partekatu kokapena**.

Facebook-eko kontua kudeatzea

Ikuspegi nagusian, hautatu **Kontuak** > **Partekatu kokapen-ezarpenak** > **Facebook**.

Zure kokapena partekatzeko eta gainerakoen kokapenak ikusteko Interneteko konexioa behar da. Datu kantitate handiak transmiti daitezke eta, ondorioz, datu-trafikoaren kostuak egon daitezke.

Facebook-en erabilera-baldintzak aplikatzen zaizkio kokapena Facebook-en partekatzeko aukerari. Ezagutu Facebook-en erabilera-baldintzak eta pribatutasun-jardunbideak.

Kokapena besteekin partekatu baino lehen, kontuan izan beti norekin ari zaren partekatzen. Irakurri erabiltzen ari zaren sare sozial zerbitzuaren pribatutasun-ezarpenak, kokapena jende askorekin parteka baitezakezu.

Gidatu eta oinez

Lortu ahotsez lagundutako jarraibideak


Zure hizkuntzan erabilgarri badaude, ahotsez lagundutako jarraibideek helmugarainoko bidea adieraziko dizute, bidaiatzeko aukera eskainiz.

Hautatu **Menua** > **Mapak eta Autoz edo Oinez**.


Oinezko edo gidatuzko nabigazioa lehen aldiz erabiltzerakoan, ahotsez lagundutako nabigaziorako hizkuntza hautatzeko eta dagozkien ahots-fitxategiak deskargatzeko eskatuko zaizu.

Kaleen izenak dituen hizkuntza bat hautatzen baduzu, ahotsak kaleen izenak ere adieraziko dizkizu. Baliteke ahotsez lagundutako jarraibideak zure hizkuntzan erabilgarri ez egotea.

Aldatu ahotsez lagundutako nabigazioaren hizkuntza

Ikuspegi nagusian, hautatu  eta **Nabigazioa** > **Autoentzako jarraibideak** edo **Oinezko jarraibideak** eta aukera egokia.

Desaktibatu ahotsez lagundutako nabigazioa

Ikuspegi nagusian, hautatu  eta **Nabigazioa** > **Autoentzako jarraibideak** edo **Oinezko jarraibideak** eta **Bat** ere ez.

Errepikatu gidatuzko nabigaziorako ahotsez lagundutako jarraibidea

Nabigazio-ikuspegian, hautatu **Aukerak** > **Errepikatu**.

Egokitu gidatuzko nabigaziorako ahotsez lagundutako jarraibideen bolumena

Nabigazio-ikuspegian, hautatu **Aukerak** > **Bolumena**.

Zure helmugara gidatu

Gidatzerakoan urratsez urratseko jarraibideak behar dituzunean, Mapak aplikazioak zure helmugara iristen lagunduko ditu.

Aukeratu **Menua** > **Mapak** eta **Autoz**.


Gidatu helmuga batera

Hautatu **Ezarri helmuga** eta aukera egokia.

Gidatu etxera

Hautatu **Gidatu etxera**.

Gidatu etxera edo **Etxeratu oinez** lehen aldiz hautatzen duzunean, etxearen kokapena zehazteko eskatuko zaizu. Aurrerako etxearen kokapena aldatzeko, jarraitu urrats hauek:

- 1 Ikuspegi nagusian, hautatu .
- 2 Hautatu **Nabigazioa** > **Hasierako kokapena**: > **Berriz zehaztu**.
- 3 Hautatu aukera egokia.

Aholkua: Helmuga zehaztu gabe gidatzeko, hautatu **Mapa**. Mugitu ahala, zure kokapena maparen erdialdean bistaratuko da.

Aldatu ikuspegiak nabigatzerakoan

Pasa hatza pantailatik 2D Ikuspegia, 3D Ikuspegia, Gezi ikuspegia edo Ibilbidearen ikuspegia hautatzeko.

Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.

Nabigazioaren ikuspegia



- 1 Ibilbidea
- 2 Zure kokapena eta norabidea
- 3 Iparrorratza
- 4 Informazio barra (abiadura, distantzia, denbora)

Lortu trafikoari eta segurtasunari buruzko informazioa

Hobetu zure gidatze-esperientzia uanean uneko informazioa eskuratu, trafiko-gertaerei, erro-laguntzari eta abiadura-mugei buruzko abisuak eskuratuz, zure herrialdean erabilgarri badaude.

Hautatu **Menua** > **Mapak eta Autoz**

Ikusi trafiko-gertaerak mapan

Nabigatzerakoan, hautatu **Aukerak** > **Traf. inform..** Gertaera horiek triangelu eta erro-laguntza gisa bistaritzen dira.

Eguneratu trafiko-informazioa

Hautatu **Aukerak** > **Traf. inform.** > **Eguneratu trafikoa.**

Ibilbide bat antolatzerakoan, trafiko-arazoak, hala nola, auto-ilarak edo bide-lanak, ekiditeko konfiguratu dezakezu gailua.

Saihestu trafiko-gertaerak

Ikuspegi nagusian, hautatu  > **Nabigazioa** > **Berrantol. trafikoagatik.**

Radarren kokapena zure ibilbidean ikus dezakezu nabigatzen duzun bitartean, eginbidea gaituta izanez gero. Jurisdikzio batzuetan radarren datuak erabiltzea debekatuta edo araututa dago. Nokia ez da radarren kokapenari buruzko datuen zehaztasunaren eta ondorioen erantzule izango.

Zure helmugara ibili

Oinezko ibilbide baterako jarraibideak behar dituzunean, Mapak aplikazioak plazak, parkeak, oinezkoen gunek eta merkataritza-gunek zeharkatzeko aukera eskaintzen du.

Aukeratu **Menua** > **Mapak** eta **Oinez.**


Joan oinez helmugara

Hautatu **Ezarri helmuga** eta aukera egokia.

Joan oinez etxera

Hautatu **Etixeratu oinez.**

Gidatu etxera edo **Etixeratu oinez** lehen aldiz hautatzen duzunean, etxearen kokapena zehazteko eskatuko zaizu. Aurrerako etxearen kokapena aldatzeko, jarraitu urrats hauek:

- 1 Ikuspegi nagusian, hautatu .
- 2 Hautatu **Nabigazioa** > **Hasierako kokapena:** > **Berriz zehaztu.**
- 3 Hautatu aukera egokia.

Aholkua: Helmuga zehaztu gabe ibiltzeko, hautatu **Mapa**. Mugitu ahala, zure kokapena maparen erdialdean bistaratuko da.

Ibilbide bat antolatu

Antolatu bidaia, sortu zure ibilbidea eta ikusi mapan abiatu aurretik.

Aukeratu **Menua** > **Mapak** eta **Nire kokap..**

Sortu ibilbidea

- 1 Sakatu abiapuntuaren kokapena. Helbide edo toki jakin bat bilatzeko, hautatu **Bilaketa**.
- 2 Sakatu kokapenaren informazio-eremua (6).
- 3 Hautatu **Gehitu ibilbideari**.
- 4 Ibilbidean puntu bat gehitzeko, hautatu **Gehitu puntu berria** eta aukera egokia.

Aldatu ibilbideko puntuen ordena

- 1 Hautatu ibilbideko puntu bat.
- 2 Hautatu **Mugitu**.
- 3 Sakatu ibilbideko puntua mugitu nahi duzun tokira.

Editatu ibilbideko bideko puntu baten kokapena.

Sakatu ibilbideko puntua, eta hautatu **Editatu** eta aukera egokia.

Ikusi ibilbidea mapan

Hautatu **Erakutsi**.

Helmugara nabigatu

Hautatu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Hasi oinez**.

Aldatu ibilbidearen ezarpenak

Ibilbidearen ezarpenek nabigazio-jarraibideei eta ibilbidea mapan bistaratzeko moduari eragiten diete.

- 1 Ibilbide-antolatzailearen ikuspegian, ireki Ezarpenak fitxa. Nabigazio-ikuspegitik ibilbide-antolatzailearen ikuspegira joateko, hautatu **Aukerak** > **Puntuak** edo **Ibilbideko puntuak**.
- 2 Garraio moduan, hautatu **Autoz** edo **Oinez**. **Oinez** hautatzen baduzu, norabide bakarreko kaleak kale arrunt gisa hartzen dira, eta oinezkoentzako bideak erabili eta parkeak eta merkataritza-guneak zeharkatu ahal izango dituzu.
- 3 Hautatu nahi duzun aukera.

Hautatu oinezko modua

Ireki Ezarpenak fitxa, eta hautatu **Oinez** > **Ibilbide hobetsia** > **Kaleak** edo **Marra zuzena**. **Marra zuzena** aukera erabilgarria da errepidez kanpo bidaiatzeko, oinezko bidea adierazten baitu.

Erabili gidatuzko bide azkarrena edo laburrena

Ireki Ezarpenak fitxa, eta hautatu **Autoz > Hautatu ibilbidea > Ibilbide azkarragoa** edo **Ibilbide laburragoa**.

Erabili gidatuzko ibilbide optimizatua

Ireki Ezarpenak fitxa, eta hautatu **Autoz > Hautatu ibilbidea > Optimizatua**. Gidatuzko ibilbide optimizatuak ibilbide azkarrenaren eta laburrenaren abantailak konbinatzen ditu.

Era berean, autobideak, ordainpeko autobideak edo ferryak erabiltzea edo ekiditea aukera dezakezu.

Denbora antolatzea**Erlojua****Erlojuari buruz**

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Erlojua**.

Ezarri eta kudeatu alarmak, eta ikusi hainbat herrialde eta hirietako tokiko orduak.

Ordua eta data ezartzea

Hasierako pantailan, hautatu erlojua eta **Aukerak > Ezarpenak > Ordua** edo **Data**.

Aholkua: Ordua eta data ikusteko pantaila eta teklak blokeatuta daudenean, eduki sakatuta menu-tekla.

Alarma jartzea

Gailua alarma gisa erabil dezakezu.

Hasierako pantailan, hautatu erlojua.

- 1 Hautatu **Alarma berria**.
- 2 Ezarri alarmaren ordua eta sartu deskribapena.
- 3 Alarmak, adibidez, egunero ordu berean jo dezan, hautatu **Errepikatu**.

Alarmak kentzea

Eduki sakatuta alarma, eta pop-up menuan, hautatu **Kendu alarma**.

Alarma errepikatzea

Alarmak jotzen duenean, berriro ere jotzeko ezar dezakezu. Horrek alarma gelditzen du zehaztutako denbora-tarte baterako.

Alarmak jotzen duenean, hautatu **Errepikatu**.

Alarma errepikatzeko denbora ezartzea

Hasierako pantailan, hautatu erlojua eta **Aukerak > Ezarpenak > Alarma errep. tarte**, eta ezarri denbora-tartea.


Gailuaren pantaila behera jarriz ere alarmak errepika ditzakezu. Eginbide hori erabiltzeko, lehenbizi sentsoreak aktibatu behar dituzu.

Sentsoreak aktibatzea

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Sentsore-ezarp. > Sentsoreak > Aktibatu**.

Alarma errepikatzeko biratze-kontrola aktibatzea

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Sentsore-ezarp. > Biratze-kontrola > Alarma errepikariak**.



Data eta ordua automatikoki eguneratzea

Gailua konfiguratu dezakezu ordua, data eta ordu-eremua automatikoki eguneratu ditzan.

Hasierako pantailan, hautatu erlojua eta **Aukerak > Ezarpenak > Ordu-eguneratze autom.** > Aktibatu.

Eguneratze automatikoa sareko zerbitzua da.

Bidaietan ordu-eremua aldatzea

Atzerrira bidaiatzean, erlojuan tokiko ordua ezar dezakezu.

Hasierako pantailan, hautatu erlojua eta ireki munduko erlojuaren fitxa.

Kokalekuak gehitzea

Hautatu **Aukerak** > **Gehitu kokalekua** eta kokaleku bat.

Uneko kokalekua ezartzea

Eduki sakatuta kokalekua, eta pop-up menuan, hautatu **Ezarri uneko kokal. gisa**. Gailuaren ordua hautatutako lekuaren arabera aldatuko da. Ziurtatu ordua zuzena dela.

Ikusi hiri desberdinetako ordua

Kokapen desberdinetako ordua ikusteko, gehitu kokapenak munduko erlojuaren fitxan. Gainera, kokapenen argazkiak gehi ditzakezu, adibidez, hiri hartan bizi den lagunaren argazkia, edo hiriko interes turistikoko nagusienaren argazkia.

Hasierako pantailan, hautatu erlojua eta ireki munduko erlojuaren fitxa.

Gehitu kokapenak

Hautatu **Aukerak** > **Gehitu kokalekua** eta kokapen bat. Gehienez 15 kokapen gehi ditzakezu.

Gehitu kokapen baten argazkia

Eduki sakatuta kokapen bat eta, laster-menuan, hautatu **Aldatu irudia** eta argazki bat.

Egutegia**Egutegiari buruz**

 Hautatu **Menua** > **Egutegia**.

Gailuko egutegiarekin, honakoa egin dezakezu:



- Mantendu ordutegiak antolatuta
- Gehitu urteurrenen eta beste data garrantzitsuen gogorazleak
- Mantendu egitekoen zerrenda eguneratuta

Egutegi desberdinak izan ditzakezu aisialdirako eta lanerako.

Asteko agenda ikustea

Egutegiko sarreretan zehar nabigatzeko hainbat ikuspegi erabil ditzakezu. Aste jakin bateko sarrera guztiak erraz ikusteko, erabili asteko ikuspegia.


Hasierako pantailan, hautatu data.

Tresna-barran, hautatu  > .

Egitekoen zerrendan zereginak gehitzea

Lanean zeregin garrantzitsuak bete behar dituzu, liburuak itzultzeaz dituzu edo akaso gertaeraren batera joan nahi duzu? Zereginak (egitekoen oharrak) gehi ditzakezu zure egutegian. Epemuga zehatz bat baldin baduzu, ezarri gogorarazle bat.


Hasierako pantailan, hautatu data.

- 1 Zoaz nahi duzun datara eta hautatu .
- 2 Hautatu sarrera motaren eremua eta **Egitekoen oharra**.
- 3 Osatu eremuak. Testua idazteko leihoa ixteko, hautatu ✓.
- 4 Zereginaren gogorarazle bat gehitzeko, hautatu **Alarma** > **Aktibatu**.

Hitzorduak gehitzea

Gorde zure hitzordu garrantzitsuak egutegian bilera-sarrera gisa.

Hasierako pantailan, hautatu data.

- 1 Zoaz nahi duzun datara eta hautatu . Bilera-sarrera modu lehenetsian hautatzen da.
- 2 Osatu eremuak. Testua idazteko leihoa ixteko, hautatu ✓.
- 3 Bilera-sarrera aldika errepikatzeke, hautatu **Errepikatu** eta maiztasuna. Hautatu **Noiz arte errepikatu** eta sartu amaiera-data.

Urtebetetzeak gogoratzea

Urtebetetzetarako eta beste data berezietarako gogorarazleak gehi ditzakezu. Gogorarazleak urtero errepikatzen dira.

Hasierako pantailan, hautatu data.

- 1 Zoaz nahi duzun datara eta hautatu **Aukerak** > **Sarrera berria** > **Egutegiko sarrera mota** > **Urteurrena**.
- 2 Bete eremu guztiak. Testua idazteko leihoa ixteko, hautatu ✓.

Lanerako eta aisialdirako egutegi desberdinak erabiltzea

Egutegi bat baino gehiago izan ditzakezu. Sortu bat lanerako eta beste bat aisialdirako.

Hasierako pantailan, hautatu data.

Egutegiak sortzea


- 1 Hautatu **Aukerak** > **Kudeatu egutegiak**.
- 2 Hautatu **Aukerak** > **Sortu egutegi berria**.
- 3 Sartu izena eta ezarri egutegiaren kolore-kodea.

- 4 Zehaztu egutegiaren ikusgaitasuna. Egutegi bat ezkutatuta dagoenean, egutegiko sarrerak eta gogorarazleak ez dira beste egutegiaren ikuspegiatan edo hasierako pantailan ikusten.

Egutegiaren ezarpenak aldatzea

Kudeatu egutegiak ikuspegiari, hautatu nahi duzun egutegia.

Egutegi zehatz batean sarrerak gehitzea

- 1 Zoaz nahi duzun datara eta hautatu .
- 2 Hautatu nahi duzun sarrera mota.
- 3 Hautatu **Egut. sarr. hemen gordeta:** eta zein egutegitan gorde nahi duzun sarrera.

Egutegiaren ikuspegi ezberdinetan, kolore-kodeek sarrera zein egutegitan gorde den adierazten dute.

Bulegoa

Quickoffice

Quickoffice-i buruz



Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Quickoffice.

Hauek osatzen dute Quickoffice:

- Quickword, Microsoft Word dokumentuak ikusteko
- Quicksheet, Microsoft Excel kalkulu-orriak ikusteko
- Quickpoint, Microsoft PowerPoint aurkezpenak ikusteko

Ez dira formatu edo eginbide guztiak onartzen.

Quickoffice-ren bertsio editagarria erosteko, hautatu **Eguner., berts.-hobetz..**

Microsoft Word, PowerPoint eta Excel dokumentuak irakurtzea

Quickoffice-rekin, Microsoft Office dokumentuak ikus ditzakezu, hala nola, Word dokumentuak, Excel kalkulu-orriak edo PowerPoint aurkezpenak.

Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Quickoffice.


Ireki fitxategi bat

Hautatu fitxategia gordeta dagoen memoria, zoaz karpeta egokira eta hautatu fitxategia.

Fitxategiak sailkatu

Aukeratu **Aukerak** > **Sailkatze-irizpidea**.

Fitxategiak gailu bateragarri batera bidali

Hautatu  eta bidalketa-metodoa.

Ez dira formatu edo eginbide guztiak onartzen.

PDF dokumentuak irakurtzea



Adobe Reader-ekin, PDF dokumentuak irakur ditzakezu.

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Adobe PDF**.

Fitxategiak irekitzea

Hautatu fitxategia gordeta dagoen memoria, zoaz karpeta egokira eta hautatu fitxategia.

Kalkuluak egitea



Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Kalkulag..**

- 1 Idatzi kalkuluaren lehen zenbakia.
- 2 Hautatu funtzio bat, hala nola, batu edo kendu.
- 3 Idatzi eragiketaren bigarren zenbakia.
- 4 Hautatu =.

Kalkuluen emaitza gordetzea edo berreskuratzea

Hautatu **Aukerak** > **Memoria** > **Gorde** edo **Berreskuratu**.

Oharrak idaztea

Oharrei buruz



Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Oharrak**.

Oharrak idatz ditzakezu, bileretarako oharrak esaterako, eta jasotako testu arrunteko fitxategiak (TXT fitxategiak) Oharrak aplikazioan gorde ditzakezu.

Erosketa-zerrendak egitea

Paperezko erosketa-zerrendak galtzea erraza da. Paperean idatzi beharrean, erosketa-zerrendak Oharrak aplikazioarekin egin ditzakezu. Horrela, zerrenda zurekin izango duzu beti. Zerrenda bidali ere egin dezakezu, adibidez senideren bati.


Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Oharrak.

- 1 Hautatu Aukerak > Ohar berria.
- 2 Sartu testua oharren eremuan.

Zerrendak bidaltzea

Ireki oharra eta hautatu Aukerak > Bidali eta bidalketa-metodoa.

Hizkuntza batetik bestera hitzak itzultzea

 Hitzak hizkuntza batetik bestera itzul ditzakezu. Baliteke hizkuntza guztiak ez onartzea.

Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Hiztegia.

- 1 Sartu testua bilaketa-eremuan. Itzul daitezkeen hitzen proposamenak agertzen dira.
- 2 Hautatu hitza zerrendan.

Jatorrizko hizkuntza edo xede hizkuntza aldatzea

Hautatu Aukerak > Hizkuntzak > Sorburua edo Xedea.

Internetetik hizkuntza gehiago deskargatzea

Hautatu Aukerak > Hizkuntzak > Deskargatu hizk..

Ingelesa aurrez instalatuta dago eta beste bi hizkuntza gehiago gehi ditzakezu.

Zip fitxategiak irekitzea edo sortzea

Zip kudeatzailearekin, fitxategiak ireki eta atera ditzakezu zip fitxategietatik. Zip fitxategi berriak ere sor ditzakezu, fitxategiak gordetzeko eta konprimatzeko.

 Hautatu Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Zip.

Zip fitxategiak gailuaren memorian edo memoria-txartel batean gorde ditzakezu.

Konexioak

Interneteko konexioak

Gailua Internetera konektatzeko erabiliko duen modua zehaztea

Gailuak automatikoki bilatzen du eta konektatzen da eskuragarri dagoen sare ezagun batera sareko konexioa behar denean. Hautaketa konexio-ezarpenetan oinarritzen da, aplikazioarekiko espezifikoak diren ezarpenak aplikatu ezean.

Hautatu Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Ezarpenak.

Hari gabeko tokiko sare (WLAN) konexio batera automatikoki aldatzea eskuragarri dagoenean

Hautatu **Aldatu WLANera** > **WLAN ezag. soilik**.

WLANetara eskuz ere konekta zaitezke WLAN laguntzailea erabiliz.

WLAN konexioak soilik erabiltzea

WLAN konexioak etxeko sarean zaudenean erabiltzeko, hautatu **Dat. erab. norb. herrial.** > **WLAN soilik**. WLAN konexioak etxeko saretik kanpo zaudenean erabiltzeko, hautatu **Datuen erab. atzerrian** > **WLAN soilik**.

Pakete-datu konexio bat automatikoki erabiltzea etxeko sarean zaudenean

Hautatu **Dat. erab. norb. herrial.** > **Automatikoa**.

Konektatu aurretik gailuak berrespena eska dezan, hautatu **Dat. erab. norb. herrial.** > **Galdetu beti**.

Berrespena eskatzea pakete-datu konexio bat erabili aurretik etxeko saretik kanpo zaudenean

Hautatu **Datuen erab. atzerrian** > **Galdetu beti**.

Gailua automatikoki konekta dadin, hautatu **Datuen erab. atzerrian** > **Automatikoa**. Atzerrian konexioak irekitzeak nabarmenki igo ditzake datu-transferentzien kostuak.

Hari gabeko LAN

WLAN konexioei buruz

 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak eta Konektagarrit.** > **WLANa**.

WLAN laguntzaileak hari gabeko tokiko sare (WLAN) batera konektatzen eta WLAN konexioak kudeatzen laguntzen zaitu.




Garrantzitsua: Erabili enkriptatzea zure WLAN konexioaren segurtasuna hobetzeko. Enkriptatzea erabiltzeak inor zure datuetan sartzeko arriskua murrizten du.



Oharra: WLANa erabiltzea mugatuta egon daiteke zenbait herrialdetan. Frantzia adibidez, WLANa eraikinen barruan soilik erabil daiteke. Informazio gehiagorako, jar zaitez harremanetan tokian-tokiko arduradunekin.

Etxean WLAN batera konektatzea

Datu-kostuak aurrezteko, konektatu etxeko WLAN sarera etxean zaudenean eta gailuarekin Web a arakatu nahi duzunean.



- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > WLANa.**
- 2 Eduki sakatuta etxeko WLANa, eta pop-up menuan, hautatu **Hasi nabigatzen.**
Etxeko WLANa babestuta badago, sartu pasahitza. Etxeko WLANa ezkutatuta badago, hautatu **Bestel. (ezkut. sarea)** eta sartu sarearen izena (zerbitzuko karaktere-multzoaren identifikatzailea, SSID).

WLAN konexioa ixtea

Eduki sakatuta konexioa, eta pop-up menuan, hautatu **Deskonektatu WLANa.**

WLAN batera konektatzea edonon zaudela ere

WLAN batera konektatzea etxean ez zaudenean Internetera sartzeko modu erabilgarria da. Konektatu WLANetara eremu publikoetan, hala nola, liburutegietan edo ziber kafe batean.

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > WLANa.**
- 2 Eduki sakatuta nahi duzun WLAN konexioa, eta pop-up menuan, hautatu **Hasi nabigatzen.**

Bluetootha


Bluetooth konexioari buruz

- 1  Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Bluetootha.**

Bluetooth konexioarekin, hari gabe konekta zaitzke beste gailu bateragarriekin, hala nola gailu mugikorrak, ordenagailuak, aurikularrak eta autoaren kitak.

Gailutik elementuak bidaltzeko, fitxategiak ordenagailu bateragarri batetik transferitzeko eta inprimagailu bateragarri batekin fitxategiak inprimatzeko erabil dezakezu konexioa.

Bluetooth hari gabeko konexioa irrati-uhinen bidez egiten denez, konektatutako gailuek ez dute elkarri begira egon beharrik. Halere, gehienez elkarrengandik 10 metrora (33 oin) egon behar dute, baina interferentziak jasan ditzakete tarteko hormak edo tresna elektronikoak direla eta.



Gailua blokeatuta dagoenean, baimendutako gailuetarako konexioak soilik ezar daitezke.



Oharra: Zenbait herrialdetan Bluetooth teknologia erabiltzeko murrizketak egon daitezke. Frantzia adibidez, ezin duzu erabili produktu honen Bluetooth teknologia toki baten barruan. Informazio gehiagorako, jar zaitez harremanetan tokian-tokiko arduradunekin.

Hari gabeko entzungailuetara konektatzea

Hari gabeko entzungailuekin, gailua eskuetan ez baduzu ere deiak erantzun ditzakezu, eta eskuak libre izan ditzakezu, hala nola, deian zehar ordenagailuarekin lanean jarraitzeko.

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpinak** eta **Konektagarrit**. > **Bluetootha** > **Aktibat**u.
- 2 Piztu entzungailuak.
- 3 Gailua eta entzungailuak parekatzeko, ireki **Parekaturiko gailuak** fitxa.
- 4 Hautatu entzungailuak.
Entzungailuak zerrendan agertzen ez badira, bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Parekaturiko gailu berria**.
- 5 Baliteke pasahitza sartu behar izatea. Xehetasunetarako, ikus entzungailuen erabiltzailearen gida.

Bidali argazkiak edo bestelako edukia beste gailuetara Bluetooth bidez

Bluetootha erabil dezakezu gailu bateragarrietara eta ordenagailura elementuak bidaltzeko, hala nola, argazkiak, bideoak, bisita-txartelak, egutegiko sarrerak, etab.

Hainbat Bluetooth konexio izan ditzakezu aktibatuta aldi berean. Adibidez, entzungailu bateragarri batera konektatuta bazaude, aldi berean fitxategiak bidal ditzakezu beste gailu batera.

- 1 Eduki hautatuta elementua, adibidez, argazki bat. Goitibeherako menuan, hautatu **Bidali > Bluetooth bidez**.
- 2 Hautatu gailua bertara konektatzeko. Zuk nahi duzun gailua agertzen ez bada, bilatzeko, hautatu **Gailu gehiago**. Bilatzerakoan, estaldura-eremuan dauden Bluetooth gailuak bistaritzen dira.
- 3 Beste gailuak kodea eskatzen badu, sartu kodea. Kodea, zuk zeuk zehatz dezakezuna, bi gailuetan sartu behar da. Zenbait gailuren kodea finkoa da. Xehetasunetarako, ikus gailuaren erabiltzailearen gida.
Kodeak uneko konexiorako balio du soilik.
- 4 Gailu batera maiz konektatzen bazara, baimendu gisa ezartzeko, onartu **Gailuari konexioak automatikoki egiteko baimena eman?** baimen-eskaera parekatzean. Gailu bat baimenduta dagoenean, ez duzu kodea aldi bakoitzean sartu behar.

Autorako kit batera konektatzea urrutiko SIM modua erabiliz

Urrutiko SIM moduarekin, autorako kit bateragarri batek gailuaren SIM txartela erabil dezake.

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Bluetootha**.

Urrutiko SIM modua aktibatu aurretik, gailua eta osagarria parekatu behar dituzu. Hasi parekatzea autorako kit osagarritik.

- 1 Bluetootha aktibatzeko, hautatu **Bluetootha > Aktibatu**.
- 2 Gailuan urrutiko SIM modua aktibatzeko, hautatu **Urrutiko SIM modua > Aktibatu**.
- 3 Aktibatu Bluetootha autorako kit osagarrian.

Urrutiko SIM modua aktibatuta dagoenean, **Urrutiko SIM modua** bistaritzen da hasierako pantailan. Haririk gabeko sarerako konexioa itxita dago eta ezin dituzu sare-estaldura behar dituzten SIM txarteleko zerbitzuak edo eginbideak erabili.

SIM moduan egonda deiak egin edo jasotzeko, osagarri bateragarriren bat, autorako kita esate baterako, izan behar duzu telefonora konektatuta.

Telefonoak larrialdi-deiak soilik onartuko ditu modu horretan.

Desaktibatu urrutiko SIM modua

Sakatu pizteko tekla eta hautatu **Irten urrun. SIM modutik**.

Gailua babestea

Gailuan Bluetootha aktibatuta dagoenean, gailua nork bila dezakeen eta bertara nor konekta daitekeen kontrola dezakezu.

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Bluetootha**.

Gailua detekta dezaten saihestea

Hautatu **Nire telef. ikusgaitasuna > Ezkutatuta**.

Gailua ezkutatuta dagoenean, gainontzekoek ezin dute detektatu. Hala ere, parekatutako gailuak zure gailura konekta daitezke.

Bluetootha desaktibatzea


Hautatu **Bluetootha > Desaktibatu**.

Ez onartu edo uztartu ezezagunak diren konexio eskaerak. Horrela, gailua eduki kaltegarrien aurka babestuko duzu.

USB datu-kablea

Gailuaren eta ordenagailuaren artean argazkiak edo bestelako edukia kopiatzea


USB datu-kable bat erabili dezakezu ordenagailuaren eta gailuaren artean argazkiak, bideoak, musika eta bestelako edukia kopiatzeko.

- 1 Multim.-transf. USB modu gisa ezarrita dagoela ziurtatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > USB > Multim.-transf.**
- 2 Erabili USB  datu-kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko. Ordenagailuan, gailua gailu eramangarri gisa agertzen da. Ordenagailuan Multim.-transf. moduak funtzionatzen ez badu, erabili Bilteg. masiboa modua.
- 3 Erabili ordenagailuko fitxategi kudeatzailea edukia kopiatzeko.


USB modua aldatzea

Gailua eta ordenagailuaren artean edukia kopiatzean edo sinkronizatzean emaitzarik onenak lortzeko, aktibatu USB modu egokia USB datu-kablea erabiltzen duzunean hainbat gailutara konektatzeko.

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > USB** eta aukera hauetariko bat:


 **Nokia Ovi Suite** — Konektatu gailua Nokia Ovi Suite instalatuta duen ordenagailu bateragarri batera. Modu honetan, gailua Ovi Suite-rekin sinkroniza dezakezu eta Ovi Suite-ren beste eginbide batzuk erabili ditzakezu.


Modu hau automatikoki aktibatzen da Ovi Suite aplikazioa irekitzean.


 **Bilteg. masiboa** — Konektatu gailua Nokia Ovi Suite instalatuta ez dagoen ordenagailu bateragarri batera. Gailua USB flash memoriatzat hartzen da. Gailua beste gailu batzuetara ere konekta dezakezu, hala nola etxeko edo autoko estereo-ekipamendura, bertan USB unitateak konektatzerik baduzu.

Modu honetan ordenagailu batera konektatuta dagoen bitartean, baliteke gailuko zenbait aplikazio erabili ezin izatea.

Gailuan dagoen memoria-txartelera ezin da beste gailuetatik sartu.

 **Multim.-transf.** — Konektatu gailua Nokia Ovi Suite instalatuta ez dagoen ordenagailu bateragarri batera. Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako musika modu honetan transferitu behar da. Etxeko entretenimendurako hainbat sistema eta inprimagailu ere modu honetan erabili daitezke.

 **Kon. PCa sar.** — Konektatu gailua ordenagailu bateragarri batera eta erabili gailua hari gabeko modem gisa. Ordenagailua automatikoki konektatzen da Internetera.


Aholkua: USB kablea konektatutakoan, USB modua alda dezakezu ikuspegi gehienetan. Goiko eskuinaldeko izkinan, hautatu  > **USB**.

Gailuan USB biltegitratze masiboa konektatzea

USB On-The-Go (OTG) moldagailua erabili dezakezu gailua USB memoria-txartel edo disko gogor bateragarrietara konektatzeko.

Konektatu memoria-txartel bat

- 1 Konektatu USB OTG moldagailuaren (osagarria bereizita saltzen da) micro USB muturra gailuaren USB atakara.
- 2 Konektatu memoria-txartel bat USB OTG moldagailura.



Fitxategi kudeatzailea aplikazioa irekiko da eta memoria-txartela memoria masibo gisa agertuko da.

Fitxategiak kopiatzea edo mugitzea

Fitxat. kud. atalean, eduki sakatuta kopiatu edo mugitu nahi duzun fitxategia eta popup menuan, hautatu nahi duzun aukera eta helburuko karpeta.

200 mA baino gehiago behar dituen disko gogor bat konektatzen baduzu, erabili kanpoko energia-hartune bat disko gogorarentzat.

Sare-konexioa ixtea

Hainbat aplikazio Interneteko konexioa erabiltzen ari badira, Konexio kudeatzailea aplikazioa erabil dezakezu sare-konexio batzuk edo guztiak ixteko.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarrit.** > **Konexio kudzl.**

Eduki sakatuta konexioa, eta laster-menuan, hautatu **Deskonektatu**.

Datu-konexio aktiboen ikuspegian, uneko sare-konexioak ikus ditzakezu. ➡ irudiak pakete-datu konexio bat adierazten du, eta 📶 irudiak hari gabeko tokiko sare (WLAN) konexio bat.

Konexioen xehetasunak ikustea

Eduki sakatuta konexioa, eta laster-menuan, hautatu **Xehetasunak**.

Xehetasunak agertzen dira, hala nola, transferitutako datu kopurua eta konexioaren iraupena.

Aholkua: Ikuspegi gehienetan, Konexio kudeatzailea aplikazioa irekitzeko, hautatu goian eskuinetara dagoen jakinarazpen-eremua eta hautatu ➡ > **Konexio kudzl.**

Fitxategiak urruneko unitate batean gordetzea

Datuen babeskopiak egin nahi badituzu edo gailuan tokia egin nahi baduzu, urruneko unitate bat erabil dezakezu fitxategiak gordetzeko eta kudeatzeko.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarrit.** > **Urrun. unitateak.**

Urruneko unitatearen ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu. Ireki mezua eta gorde ezarpenak.

Baliteke zerbitzuarengatik ordaindu behar izatea. Eskuragarritasunari eta kostuei buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Urruneko unitate batera konektatzea

Eduki sakatuta urruneko unitatea, eta popup menuan, hautatu **Konektatu**.

Beste urruneko unitate bat gehitzea

- 1 Hautatu **Aukerak > Unitate berria**.
- 2 Idatzi urruneko unitatearen izena.
- 3 Idatzi urruneko unitatearen web-helbidea, ataka-zenbakia barne.
- 4 Urruneko unitatera konektatzeko sarbidea hautatzeko, hautatu **Sarbidea > Erabiltz. zehaztuta. Galdetu beti** aukeratzan baduzu, aplikazioa sarera konektatzen den aldiro helburua edo sarbidea galdetuko dizu.
- 5 Idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza, urruneko unitateak eskatuz gero.

Dagoen urruneko unitate baten ezarpenak aldatzea

Hautatu Urruneko unitateak eta nahi duzun unitatea.

Erabili Fitxategi kudeatzailea aplikazioa urruneko unitateetan sartzeko eta bertan gordetako fitxategiak kudeatzeko.

Gailuaren kudeaketa**Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratuta izatea****Gailuaren software- eta aplikazio-eguneratzeei buruz**

Gailuaren software- eta aplikazio-eguneratzeekin, eginbide berriak eta funtzio hobetuak lor ditzakezu gailuarentzat. Softwarea eguneratzeak gailuaren funtzionamendua ere hobe dezake.



Gailuaren softwarea eguneratu aurretik, zure datu pertsonalen babeskoa egitea gomendatzen da.



Abisua:

Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da gailua erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa bukatu eta gailua berrabiarazi arte.

Zerbitzua erabiltzeak edo edukiak deskargatzeak datu askoren transferentzia ekar dezake eta, horren ondorioz, datu-trafikoko kostuak egon litezke.


Gailuaren softwarea edo aplikazioak eguneratu ondoren, baliteke erabiltzailearen gidako argibideak eguneratuta ez egotea.

Gailuaren softwarea eta aplikazioak eguneratzea gailua erabiliz



Gailuaren softwarearentzat edo banakako aplikazioentzat eguneratzerik eskura dezakezun egiazta dezakezu eta, ondoren, deskargatu eta gailuan instala ditzakezu (sareko zerbitzua). Gainera, gailua ezar dezakezu automatikoki eguneratzeak egiazta ditzan eta eguneratze garrantzitsu edo gomendagarriak eskuragarri daudenean abisa zaitzan.

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Tresnak > SW-eguner..**

Eguneratze eskuragarriak egotekotan, hautatu zeintzuk deskargatu eta instalatu nahi dituzun, eta hautatu .

Gailua ezartzea eguneratzeak automatikoki egiazta ditzan

Hautatu **Aukerak > Ezarpenak > Bilatu eguneratzeak auto..**

Softwarea eguneratzea PCa erabiliz

Nokia Software Updater PC aplikazioa erabil dezakezu gailuaren softwarea eguneratzeko. Gailuaren softwarea eguneratzeko, PC bateragarri bat, Interneteko banda zabaleko konexioa eta gailua PCra konektatzeko USB datu-kable bateragarri bat behar dituzu.

Informazio gehiagorako eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate helbidea.

Fitxategiak kudeatzea

Fitxategi kudeatzailea



Hautatu **Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat. kud..**

Fitxategi kudeatzailearekin, gailuko fitxategiak araka, kudea eta ireki ditzakezu. Gailuan sartutako memoria-txartel bateragarri bateko fitxategiak ere ikus eta kudea ditzakezu.

Gailuan gordetako fitxategiak ikustea

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat. kud.** eta nahi duzun memoria.

Memoriaren erroan dauden karpetak agertzen dira.

Fitxategiak antolatzea

Fitxategi kudeatzailea erabil dezakezu fitxategiak eta karpetak ezabatzeko, kopiatzeko edo berriak sortzeko. Fitxategiak karpetetan antolatzen badituzu, lagungarri izan daiteke hurrengo batean fitxategi horiek aurkitzeko.

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat. kud.**

Karpetak sortzea


Azpikarpeta bat sortu nahi duzun karpetan, hautatu **Aukerak > Antolatu > Karpeta berria**.

Fitxategiak karpeta batera kopiatzea edo mugitzea

Eduki sakatuta fitxategia, eta pop-up menuan, hautatu aukera egokia.

Fitxategien babeskopiak egitea

Fitxategi garrantzitsurik galduko ez duzula ziurtatu nahi duzu? Gailuaren memoriaren babeskopia ordenagailu bateragarri batean edo memoria-txartel batean egin dezakezu.



Hautatu **Menua > Aplikazioak > Bulegoa > Fitxat. kud.** eta **Babeskopia**.

Memoriaren babeskopiak memoria-txartel batean edo ordenagailu bateragarri batean maiz egitea gomendatzen dugu.

Aholkua: DRM bidez babestutako edukia baduzu, erabili Nokia Ovi Suite lizentzien zein ordenagailuko edukiaren babeskopiak egiteko.

Memoria-txartela pasahitz batekin babestea

Memoria-txartela babestu nahi duzu baimenik gabeko erabileraren aurrean? Pasahitz bat ezar dezakezu datuak babesteko.

- 1 Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Fitxat. kud.**.
- 2 Eduki sakatuta memoria-txartela.
- 3 Pop-up menuan, hautatu **Ezarri pasahitza** eta sartu pasahitza.
Gorde pasahitzak ezkatututa eta leku seguru batetan, memoria-txarteletik bereizirik.

Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartelaren eduki guztia ezabatu nahi duzu? Memoria-txartela formateatzen duzunean, bertako datu guztiak ezabatzen dira.

- 1 Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bulegoa** > **Fitxat. kud.**.
- 2 Eduki sakatuta memoria-txartela, eta pop-up menuan, hautatu **Formateatu**.

Memoria eskuragarria areagotzea eduki gehiago sartzeko

Gailuaren memoria eskuragarria areagotu nahi al duzu, aplikazio eta eduki gehiago instalatu ahal izateko?

Transferitu datuak memoria-txartel bateragarri batera (eskuragarri badago) edo ordenagailu bateragarri batera.

Ondoko hau ere ken dezakezu gehiago behar ez baduzu:

- Testu- eta multimedia-mezuak eta mezu elektronikoak
- Kontaktuen sarrerak eta xehetasunak
- Aplikazioak
- Instalatuta dauden aplikazioen instalazio-fitxategiak (.sis edo .six). Kopiatu fitxategiak bateragarria den ordenagailu batean.
- Argazkiak karpetan dituzun argazkiak eta bideoak. Kopiatu fitxategiak bateragarria den ordenagailu batean.

Aholkua: Iraungitako probako edo demo aplikazioak instalatuta badaude, ken itzazu.

Aplikazioak kudeatzea

Aplikazio kudeatzaileari buruz

 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**

Aplikazio kudeatzailearekin, instalatutako aplikazioen xehetasunak ikusi, aplikazioak kendu eta instalazio-ezarpenak zehatz ditzakezu.

Honako aplikazio motak instalatu ditzakezu:

- .jad edo .jar luzapena duten Java™ ME aplikazioak
- Symbian sistema eragilearekin bateragarriak diren eta .sis edo .siss luzapena duten aplikazioak
- .wgz luzapena duten widget-ak

Instalatu gailuarekin bateragarriak diren aplikazioak soilik.

Gailutik aplikazioak kentzea

Beharko edo erabiliko ez dituzun instalatutako aplikazioak kentzeko, memoria kantitate handiagoa eskuragarri izateko.

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Aplikazio-kudtzl..**

- 1 Hautatu **Apl. instalatuak**.
- 2 Eduki sakatuta kendu nahi duzun aplikazioa eta, pop-up menuan, hautatu **Desinstalatu**.

Aplikazio bat kentzen baduzu, kendutako aplikazioaren jatorrizko instalazio-fitxategia edo babeskopia osoa izan beharko duzu berriro ere instalatu ahal izateko. Baliteke kendutako aplikazioarekin sorturiko fitxategiak ezin ireki izatea.

Instalatutako aplikazio bat kendutako aplikazioaren menpe baldin badago, baliteke instalatutako aplikazioa ez funtzionatzea. Xehetasunetarako, ikus instalatutako aplikazioaren erabiltzailearentzako dokumentazioa.

Memoria-txartel bateragarri batean aplikazioak instalatu ondoren, instalazio-fitxategiak (.sis, .siss) gailuaren memorian geratzen dira. Fitxategiak memoria handia har dezakete, beste fitxategi batzuk gordetzea eragotziz. Memoria nahikoa mantentzeko, erabili Nokia PC Suite instalazio-fitxategien segurtasun-kopiak ordenagailu bateragarri batean gordetzeko; ondoren, erabili fitxategi-kudeatzailea gailuko memoriatik instalazio-fitxategiak ezabatzeko. .sis fitxategia mezu baten eranskina baldin bada, ezabatu mezua postontziko Mezularitzatik.


Edukia sinkronizatzea

Sinkronizazioari buruz



Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Datu-transfer. > Sinkronizazioa**.

Sinkronizazioa aplikazioarekin, kontaktuak, oharrak eta beste zenbait eduki sinkroniza dezakezu gailuaren eta urruneko zerbitzari baten artean. Sinkronizazioaren ondoren, zerbitzarian datu garrantzitsuen babeskopia bat duzu.



Gailuaren eta urruneko zerbitzari baten artean edukia sinkronizatzea

Egutegiaren, oharren eta beste zenbait informazioaren babeskopiak eskura izan nahiko zenituzke, ordenagailuaren aurrean eserita zaudenean edo telefono mugikorrarekin zoazenean? Sinkronizazioa aplikazioarekin, gailuaren eta urruneko zerbitzari baten artean eduki garrantzitsua sinkroniza dezakezu.

Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Konektagarrit. > Datu-transfer. > Sinkronizazioa.**

Sinkronizazio-ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu. Sinkronizazio-ezarpenak sinkronizazio-profil gisa gordetzen dira. Aplikazioa irekitzen duzunean, lehenetsitako profila edo erabili berri den sinkronizazio profila bistaraten da.

Eduki motak gehitzea edo kentzea

Hautatu eduki mota.

Datuak sinkronizatzea

Hautatu **Aukerak > Sinkronizatu.**

Aholkua: Gailuaren eta Ovi-ren artean edukia sinkronizatzeko, Ovi Sink. aplikazioa erabil dezakezu.

Ovi Sink. zerbitzari buruz

 Hautatu **Menua > Aplikazioak > Tresnak > Ovi sinkr..**

Ovi Sink. aplikazioarekin, kontaktuak, egutegiko sarrerak eta oharrak sinkroniza ditzakezu gailuaren eta Ovi by Nokia zerbitzuaren artean. Horrela, beti izango duzu eduki garrantzitsuen babeskopia bat. Ovi Sink. erabiltzeko, Nokia kontu bat behar duzu. Nokia konturik ez baduzu, sortu bat www.ovi.com helbidean.

Ovi Sink. Ovi-rekin kontaktuak automatikoki sinkronizatzeko erabiliz gero, ez baimendu beste inongo zerbitzuekin sinkronizatzea, hala nola Mail for Exchange, gatazkak egon baitaitezke.

Edukiaren babeskopia Ovi-n egitea

Zure egutegiko sarreren, oharren eta gailuan duzun bestelako edukien babeskopia Ovi-n izan nahiko zenuke? Ovi Sink. aplikazioarekin, gailuaren eta Ovi-ren artean edukia sinkroniza dezakezu eskuz edo automatikoki.

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Tresnak > Ovi sinkr..**

Aplikazioa lehen aldiz abiaraztean, sinkronizazio morroiak ezarpenak zehazten eta sinkronizatu beharreko edukia hautatzen lagunduko dizu.

Sinkronizatuko duzun edukia zehaztea

Hautatu **Aukerak > Sinkronizazio ezarpenak > Sinkr. nahi dituzun elem..**

Eskuz sinkronizatzea

Hautatu **Sinkronizatu.**

Automatikoki sinkronizatzea


- 1 Sinkronizazio automatikoa aktibatzeke, hautatu **Aukerak > Sinkronizazio ezarpenak > Auto-sinkronizazioa.**
- 2 Sinkronizazio-maiztasuna zehazteko, hautatu **Aukerak > Sinkronizazio ezarpenak > Sinkronizazio maiztasuna.**

Kontaktuak edo argazkiak gailuen artean kopiatzea

Datu-transfer. aplikazioarekin, Bluetootha erabil dezakezu bi Nokia gailu bateragarrien artean edukia doan sinkronizatzeko eta kopiatzeko.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektagarrit. > Datu-transfer. > Datu-transfer..**

- 1 Hautatu aukera hauegariko bat:

 — Sinkronizatu edukia bi gailuen artean.

 — Kopiatu edukia beste gailu batetik.

 — Kopiatu edukia beste gailu batera.

- 2 Hautatu zein gailura konektatu nahi duzun eta parekatu gailuak. Bluetootha aktibatuta egon behar da.
- 3 Beste gailuak kodea eskatzen badu, sartu kodea. Kodea, zuk zeuk zehatz dezakezuna, bi gailuetan sartu behar da. Zenbait gailuren kodea finkoa da. Xehetasunetarako, ikus gailuaren erabiltzailearen gida.

Kodeak uneko konexiorako balio du soilik.

- 1 Hautatu edukia eta **Ados**.

Aholkua: Xehetasunak gordetzen badituzu, hurrengo batean errazagoa izango da eduki bera gailu berarekin trukatzeari.

Gailua babestea

Gailua automatikoki blokea dadin ezartzea

Gailua baimenik gabe erabiltzea saihestu nahi al duzu? Zehaztu blokeatzeko kode bat eta ezarri gailua automatikoki blokea dadin erabiltzen ari ez zarenean.

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Tel. kudeaketa > Seg.-ezarpenak > Tel. eta SIM txartela**.
- 2 Hautatu **Blokeatzeko kodea** eta blokeatzeko kodea. Gutxienez 4 karaktere behar dira, eta zenbakiak, ikurrak eta letra maiuskulak eta minuskulak erabil daitezke. Gorde blokeatzeko kodea ezkutuan, leku seguru batetan eta gailutik urrun. Blokeatzeko kodea ahazten baduzu eta gailua blokeatuta badago, gailuak laguntza teknikoa beharko du. Kostu gehigarriak aplikatu daitezke, eta gailuko datu pertsonal guztiak ezaba daitezke. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Nokia Care puntuarekin edo gailuaren banatzailearekin.
- 3 Hautatu **Telef. blok. autom. epea** eta zehaztu zein denbora-tarteren ondoren blokeatuko den gailua automatikoki.

Gailua eskuz blokeatzea

Hasierako pantailan, sakatu , hautatu **Blokeatu telefonoa** eta sartu blokeatzeko kodea.

Gailua desblokeatzea

Mugitu blokeo-etengailua, idatzi blokeatzeko kodea eta hautatu **Ados**.

Blokeo-etengailua eskuragarri ez badago, sakatu menu-tekla eta hautatu **Desblok..**

Gailua urrunetik blokeatzea

Gailua bulegoan ahaztu zaizu eta blokeatu nahi duzu baimenik gabe erabil ez dezaten? Gailua urrunetik blokea dezakezu aurrez zehaztutako testu-mezu bat erabiliz. Memoria-txartela ere urrunetik blokea dezakezu.

Urruneko blokeoa gaitzea

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Tel. kudeaketa > Seg.-ezarpenak > Tel. eta SIM txartela > Urruneko tel.-blokeoa > Gaituta**.
- 2 Sartu testu-mezuaren edukia. 5 eta 20 karaktere bitartean izan ditzake eta maiuskulak zein minuskulak erabil daitezke.
- 3 Sartu testu bera berriz ere egiaztatzeko.

4 Idatzi blokeatzeko kodea.

Blokeatzeko mezua bidaltzea

Gailua urrunetik blokeatzeko, idatzi aurrez ezarritako testua eta bidali gailura testu-mezu gisa.

Gailua desblokeatzeko, blokeatzeko kodea beharrezkoa da.

Laguntza gehiago aurkitzea

Laguntza

Produktuaren erabilerari buruz gehiago jakin nahi baduzu edo gailuaren funtzionamenduaren inguruan zalantzak badituzu, zoaz www.nokia.com/support helbidera edo gailu mugikorra erabiliz, www.nokia.mobi/support helbidera. Gailuan **Menua > Aplikazioak > Erabil. gida** ere hauta dezakezu.

Modu honetan arazoa konpontzea lortzen ez baduzu, egin hurrengo ekintzetako bat:

- Berrabiarazi gailua. Itzali gailua eta atera bateria. Minutu bat igaro ondoren, jarri berriz bateria eta piztu gailua.
- Berrezarri fabrikako jatorrizko ezarpenak.
- Eguneratu gailuaren softwarea.

Honela ere arazoa konpontzen ez bada, jarri harremanetan Nokiarekin konpontzeko aukera gehiago lortzeko. Ikus www.nokia.com/repair helbidea. Gailua konpontzera bidali baino lehen, egin beti gailuaren datuen segurtasun kopia bat.

Sarbide kodeak

PIN kodea — Kode honek SIM txartela baimendu gabeko erabileraren kontra babesten du. PIN kodeak (4 eta 8 digitu artekoa) gehienetan SIM txartelarekin batera dator.

PIN2 kodea — Kode hau (4 eta 8 digitu artekoa) SIM txartel batzuekin dator eta beharrezkoa da gailuko funtzio batzuetara sartu ahal izateko.

Sarbide kodea ahazten bazaizu, jarri harremanetan gailuaren SIM txartela eman dizun sareko zerbitzu-hornitzailearekin. Hiru aldiz jarraian PIN edo PIN2 kodea oker sartzen baduzu, kodea blokeatu egiten da eta PUK edo PUK2 kodea beharko duzu berriro desblokeatzeko.

PUK kodea eta PUK2 kodea — Kode hauek (8 digitu) beharrezkoak dira blokeatutako PIN edo PIN2 kodeak aldatzeko, hurrenez hurren. Kodeak SIM txartelarekin batera ez badatzo, jarri harremanetan SIM txartelaren sareko zerbitzu-hornitzailearekin.

IMEI zenbakia — Zenbaki hau (15 digitu) GSM sarean dauden baliozko gailuak identifikatzeko erabiltzen da. Adibidez, gailua lapurtzen badizute, sarera sartzea blokeatu dezakezu. Gailuaren IMEI zenbakia bateriaren azpian aurki daiteke.

Blokeo kodea (edo segurtasun kodea) — Blokeatzeko kodeak gailua erabilera baimendu gabearen kontra babesten lagunduko dizu. Kodea sor eta alda dezakezu eta telefonoa kodea eskatzeko konfiguratu dezakezu. Kode berria ezkutuan, leku seguru batetan eta gailutik urrun gorde. Kodea ahazten baduzu eta gailua blokeatuta badago, gailuak laguntza teknikoa beharko du. Kostu gehigarriak aplikatu daitezke, eta gailuko datu pertsonal guztiak ezabatu daitezke. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Nokia Care puntuarekin edo gailuaren banatzailearekin.

Arazoak bilatu eta konpondu

Jatorrizko ezarpenak berrezartzea

Gailuak ongi funtzionatzen ez badu, zenbait ezarpenen jatorrizko balioak berrezartu ditzakezu.

- 1 Itxi konexio eta dei aktibo guztiak.
- 2 Hautatu **Menua > Ezarpenak eta Telefonoa > Tel. kudeaketa > Fabrikako ezarp.** > **Berrezarri.**
- 3 Idatzi blokeatzeko kodea.

Horrek ez du eraginik gailuan gordeta dituzun dokumentuetan edo fitxategietan.

Jatorrizko ezarpenak berrezarri ondoren, gailua itzaliko da eta berriz ere piztuko da. Horrek ohi baino gehiago iraun dezake.

Zer egin memoria beteta dagoenean?

Elementu bat baino gehiago aldi berean ezabatzen ari zarenean mezu hauekoren bat bistaritzen bada, ezabatu elementuak banan-banan, elementu txikienetatik hasita:

- **Ez dago eragiketa egiteko adina memoriarik. Lehenik, datu batzuk ezabatu.**
- **Memoria gutxi libre. Telefonoaren memorian datuak ezabatu.**

Mugitu gorde nahi duzun edukia memoria-txartel bateragarri batera (eskuragarri badago) edo ordenagailu bateragarri batera. Ahal dela, instalatu aplikazioak memoria-txartelean gailuaren memorian egin beharrean.

Mezu-adierazlea keinuka

G: Zergatik dabil mezu-adierazlea keinuka hasierako pantailan?

E: Gailuan gehienezko mezu kopurua dago gordeta. Ezabatu zenbait mezu. SIM txartelean gorde daitekeen mezu kopurua gailuaren memorian gorde daitekeena baino

nahiko txikiagoa da. Nokia Ovi Suite erabil dezakezu mezuak ordenagailu bateragarri batean gordetzeko.

Kontaktu bat bitan agertzen da kontaktuen zerrendan

G: Kontaktu bat bitan agertzen zait kontaktuen zerrendan. Nola ken dezaket soberako kontaktuak?

E: Bi kontaktu batean batu ditzakezu. Hautatu **Aukerak** > **Batu kontaktuak**, hautatu batuko dituzun kontaktuak eta hautatu **Batu**.

Karaktere irakurtezinak weban nabigatzean

Karaktere irakurtezinak agertzen badira, hautatu **Menua** > **Weba** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orria** > **Lehenetsitako kodeketa** eta hizkuntzaren karaktere multzoaren kodeketa egokia.

Gailua birziklatzeko prestatzea

Gailu berria erosten baduzu, edo beste zerbaitengatik gailua utzi nahi baduzu, Nokiak zaharra birzikla dezazun gomendatzen dizu. Aldez aurretik, kendu gailuan duzun eduki eta informazio pertsonal guztia.

Eduki guztia kentzea eta ezarpenen balio lehenetsiak berrezartzea

- 1 Gorde nahi duzun edukiaren babeskopia egin memoria-txartela bateragarri batean (eskuragarri badago) edo ordenagailu bateragarri batean.
- 2 Itxi konexio eta dei aktibo guztiak.
- 3 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Tel. kudeaketa** > **Fabrikako ezarp.** > **Ezab. dat.** eta **berrezarri**.
- 4 Gailua itzaliko da eta ondoren, berriz ere piztuko da. Egiatzatu arretaz zure eduki pertsonal guztia kendu dela, hala nola, kontaktuak, argazkiak, musika, bideoak, oharra, mezuak, posta, aurkezpenak, jokoak eta instalatutako beste aplikazioak. Memoria-txartelean edo SIM txartelean gordetako edukia eta informazioa ez da desagertzen.

Aurreztu energia

Ez duzu bateria hain maiz kargatu beharko ondorengoak eginez gero (zure telefonorako erabilgarri badaude):

- Itxi aplikazioak eta datu-konexioak erabiltzen ez dituzunean, adibidez, Bluetooth konexioa.
- Murriztu pantailaren argitasuna.
- Zure telefonoan erabilgarri badago, ezarri zure telefonoa energia-aurrezle moduan jar dadin inaktibitate tarte baten ondoren.
- Desaktibatu beharrezkoak ez diren soinuak, esaterako, teklen tonuak.

Birziklatu

Gailu honen material guztiak material eta energia gisa berreskura daitezke. Zure Nokia produktu zaharrak birziklatzeari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/wecycle helbidera edo, gailu mugikorra erabiliz, www.nokia.mobi/wecycle helbidera.

Birziklatu kaxa eta erabiltzailearen gidak zure tokiko birziklatze-zentroan.



Telefonoaren dokumentu zein kaxan edo baterian agertzen den gurutze batez estalita zaborrontziak gogorarazten du produktu elektriko edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak biltegi berezietara eraman behar direla funtzionatzeari uzten diotenean. Eskakizun hori Europar Batasunean aplikatzen da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegetian botu. Telefonoaren ingurumenarekiko eraginari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/ecompliance helbidera.

Produktu- eta segurtasun-informazioa

Sareko zerbitzuak eta kostuak

Telefonoa WCDMA 900, 1700–2100, 1900, 2100 eta GSM/EDGE 850, 900, 1800, 1900 MHz sareak erabiltzeko homologatuta dago. Telefonoa erabiltzeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izan behar duzu.

Sareko zerbitzuak erabiltzeak eta zure telefonora edukiak deskargatzeak trafiko-kostuak izan ditzake. Zenbait produktuen eginbideek sareko laguntza eskatzen dute, eta baliteke harpidedun egitea beharrezkoa izatea.

Telefonoa zaintzea

Erabili kontuz zure telefonoa, bateria, kargagailua eta osagarriak. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten laguntzen dizute.

- Telefonoa lehor mantentzen ezazu. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoek edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak herdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateria eta utz iezaiozu lehortzen.

- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorrek eta osagarri elektronikoak honda daitezke.
- Ez gorde telefonoa tenperatura altuak dauden tokietan. Tenperatura altuek gailuaren iraupena laburtu, bateria hondatu eta plastikoak deformatu edo ur ditzakete.
- Ez ezazu gorde gailua tenperatura baxuan. Gailuak bere tenperatura normala berreskuratzen duenean, barruan hezetasuna sor dakioko, eta horrek zirkuitu elektronikoak honda ditzake.
- Ez zaitze telefonoa erabiltzailearen gida honetan azaltzen ez den modu batean zabaltzen saiatu.
- Baimenik gabeko aldaketek gailua honda dezakete eta irradi-tresnen araudiak urra ditzakete.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta mekanismoa apur daitezke.
- Erabili ehun leuna, lehorra eta garbia telefonoaren azala garbitzeko.
- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorrek buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Itzali telefonoa noizean behin eta kendu bateria etekinik onena lortzeko.
- Mantendu telefonoa iman eta eremu magnetikoengandik urrun.
- Datu garrantzitsuak seguru mantentzeko, gorde gutxienez bi leku desberdinetan, hala nola, telefonoan, memoria-txartelean edo ordenagailuan, edo idatzi informazio garrantzitsua.

Eragiketa luzeetan telefonoa bero daiteke. Gehienetan hau normala izaten da. Telefonoa ongi ez dabilela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zure inguruan dagoen baimendutako zerbitzu gunera.

Birziklatu

Eraman beti erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatze-materialak dagokien bilketa tokietara. Honela kontrolik gabeko hondakinen erazketa ekiditen lagunduko duzu eta birziklatzea bultzatu. Egiaztatu produktuaren ingurumenari buruzko informazioa eta Nokia produktuak birziklatzeko moduari buruzko informazioa www.nokia.com/werecycle helbidean edo, mugikorra erabiliz gero, nokia.mobi/werecycle helbidean.

Gurutze batez estalitako zaborrontzia



Telefonoan, dokumentazioan edo kaxan agertzen den gurutze batez estalitako zaborrontziak gogorarazten du produktu elektrikoek edo elektronikoek, bateriek eta metagailuek funtzionatzeari uzten diotenean biltegi berezietara eraman behar direla. Eskakizun hau Europar Batasunean bete behar da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegietan bota. Zure telefonoaren ingurumen-ezaugarri buruzko informazio gehiagorako, ikus www.nokia.com/ecodeclaration helbidea.

Eskubide digitalen kudeaketa

Telefonoa erabiltzeko garaian, bete lege guztiak eta errespetatu tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak, copyright eskubideak barne. Copyright babesak irudiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu edo bidaltzea galaraz diezazuke.

Edukien jabe batzuek DRM edo eskubide digitalen kudeaketa (Digital Rights Management) teknologia ezberdinak erabili ditzakete, copyrightak barne, beraien jabetza intelektuala babesteko. Gailu honek DRM software desberdinak erabiltzen ditu DRM-arekin babestutako edukiak atzitzeko. Telefono honekin WM DRM 10 eta OMA DRM 2.0 bidez babestutako edukiak ikus ditzakezu. DRM softwareren batek edukirik babesten ez badu, eduki honen jabeek DRM-en aurka babestutako edukira sartzeko DRM software honek duen gaitasuna baliogabetzeko eskatzeko eskubidea dute. Honek DRMrekin babestutako eduki hori zure telefonoan berritzea saihestu dezake ere. DRM software hori baliogabetzeak ez du eraginik beste mota batzuetako DRM-arekin babesturiko edo babestu gabeko edukiak erabiltzerakoan.

Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion lizentzia bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

116 Produktu- eta segurtasun-informazioa

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, lizentzien eta edukia segurtasun-kopiak egiteko erabili Nokia Ovi Suite-ren eginbidea.

Beste transmisio-metodo batzuk ez dute lizentziarik transferitzen, baina hau edukiarekin batera berrezarri behar da telefonoaren memoria formateatu ondoren, OMA DRM bidez babestutako edukia erabiltzen jarraitu ahal izateko. Lizentziak berrezartzea beharrezkoa izan daiteke zure telefonoko fitxategiak hondatuz gero.

Telefonoak WMDRM bidez babestutako edukia badu, lizentziak eta edukia galduko dira telefonoaren memoria formateatuz gero. Lizentziak eta edukia gal ditzakezu zure telefonoko fitxategiak hondatuz gero. Lizentziak edo edukia galtzeak, telefonoan berriz eduki bera erabiltzeko aukera muga dezake. Informazio gehiago jasetzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zenbait lizentzia SIM txartel jakin bati lotuak egon daitezke, eta eduki babestua SIM hori telefonoan sartzen bada soilik ikusi ahal izango da.

Bateriak eta kargagailuak

Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia bateria originalak zure segurtasunerako. Nokia-ren jatorrizko bateria bat erabiltzen ari zarela ziurtatzeko, eros ezazu baimendutako Nokia zerbitzu-gune edo denda batean eta aztertu etiketako holograma.

Holograma autentikatu

- 1 Begiratu holograma. Nokia konpainiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Accessories logotipoa bestetik.



- 2 Okertu holograma ezkerrean, eskuinera, gora eta behera. 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko zenituzke alde bakoitzean hurrenez hurren.



Hala ere, ezin da bateria egiazkoa dela gutziz ziurtatu. Bateriaren jatorria ezezaguna bada edo edozein arrazoiengatik Nokia-ren holograma duen bateria egiazkoa ez dela susmatuz gero, utzi erabiltzeari eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz www.nokia.com/battery helbidera.

Bateriaren eta kargagailuaren informazioa

Telefono hau BL-5CT bateria kargagarri batekin erabili behar da. Baliteke Nokia-k bateria modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Erabil itzazu beti jatorrizko Nokia bateriak.

Telefono hau ondorengo bateriek emandako energiarekin erabili behar da: AC-15. Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengoan bidez identifikatzen dira: E, X, AR, U, A, C, K, edo B.

Bateria behin eta berriro karga edo deskarga daiteke, baina azkenean agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko arteak ohi baino nabarmenki laburragoak badira, bateria aldatu beharko duzu.

Bateriaren segurtasuna

Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu. Kargagailua edo osagarri bat deskonektatzean, eutsi entxufetik eta tira, ez eutsi kabletik.

Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta deskonektatu telefonotik. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake. Guztiz kargatutako bateria erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Bateriak 15° C eta 25° C (59° F eta 77° F) artean egon behar du. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke bateria beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea.

Nahi gabe zirkuitulaburra sor daiteke, metalezko objekturen batek bateriaren banda metalikoak ukitzen dituenean, adibidez, poltsikoan ordezko bateria bat badaramazu. Zirkuitulaburrek bateria edo konektatutako objektua honda ditzakete.

Bateriak ez sutara bota, lehertu egin daitezke eta. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurritu, deformatu, zulatu edo txikitu telefonoa edo bateriak. Isurketarik gertatuz gero, ez utzi bateriaren likidoa azala edo begiak ukitzea. Hori gertatuz gero, busti urarekin kaltetutako tokiak ahal bezain laster edo zoaz medikuarengana.

Ez ezazu bateria itxuraldatu eta ez leiaizozu objektu arrotzik sartu. Era berean, ez ezazu bateria ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti. Bateriak lehertu egin daitezke hondatuta badaude.

Erabili bateria eta kargagailua dagozkien helburuetarako soilik. Erabilera okerrak edo onartu gabeko bateria edo kargagailu bat erabiltzeko sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat suposa lezake, eta edozein onarpen edo berme baliogabe dezake. Bateria edo kargagailua kaltetuta dagoela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zerbitzu-zentroren batera erabiltzen jarraitu aurretik. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Erabili kargagailua toki baten barruan soilik.

Segurtasun informazioa osagarria

Larrialdi deiak

Larrialdi deiak egitea

- 1 Ziurtatu gailua piztuta dagoela.
- 2 Egiatzatu seinaleak behar besteko indarra daukan ala ez. Baliteke honako hau ere egin behar izatea:
 - Sartu SIM txartela.
 - Kendu gailuan aktibatuta dituzun dei-murrizketak, hala nola, deiak debekatzea, markatze finkoa edo erabiltzaile-talde itxia.
 - Ziurtatu gailua lineaz kanpoko edo hegaldi profilean ez dagoela.
 - Gailuaren pantaila eta teklatura blokeatuta badaude, desblokea itzazu.
- 3 Pantaila garbitzeko, sakatu menu-tekla behar duzun aldi guztietan.
- 4 Hautatu Deitu.
- 5 Idatzi zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala.

6 Hautatu 

7 Eman beharrezkoa den informazioa ahalik eta zehatzen. Ez amaitu deia hori egiteko baimenik ez den bitartean.



Garrantzitsua: Aktibatu sare mugikorreko eta Interneteko deiak, gailuak Interneteko deiak onartzen baditu. Gailua larrialdi deiak egiten saia daiteke sare mugikorren bidez zein Interneteko deien zerbitzu-hornitzailearen bidez. Ez da uneoro konektatzeko aukera izatea ziurtatzen. Ez zaitez inoiz egon gailu mugikor baten menpe soilik komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun-larrialdietarako.

Ume txikiak

Telefonoa, bateria eta osagarriak ez dira jostailuak. Zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrek barne, modu ezegokian babestutako aparatu medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energetik ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dizutenean, esaterako, ospitaleetan.

Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnaren artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbeteko) tartea egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonek:

- Eduki hariarik gabeko gailua tresna medikotik 15,3 zentimetrotara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eraman telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki hariarik gabeko gailua tresna medikoa dagoen kontrako belarrarian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster, itzali hari gabeko telefonoa.
- Jarraritu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure hariarik gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzeari buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

Entzumena



Abisua:

Entzungailuak erabiliz gero, kanpotik datozen zaratak entzuteko gaitasuna gal dezakezu. Ez erabili entzungailuak zure segurtasuna arriskuan jar badezakezu.

Gailu mugikor batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

Nikelak



Oharra: Telefonoaren gainazalak ez du nikelik nikelzaketetan. Telefono honen gainazalak altzairu herdoilgaitza dauka.

Zure telefonoa eduki kaltegarrietatik babestu

Telefonoak birusak eta bestelako eduki kaltegarriak jaso ditzake. Hartu honako neurri hauek:

- Kontuz ibili mezuak irekitzean. Asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.
- Kontuz ibili konektibitate-eskaerak onartzean, Interneten nabigatzean edo edukiak deskargatzean. Ez onartu Bluetooth konexioak iturri fidagarrietatik ez badatoz.
- Fidagarriak diren eta segurtasun eta babes egokia ematen duten iturrietatik datozen zerbitzuak eta softwareak soilik instalatu eta erabili.
- Instalatu birus kontrako edo bestelako segurtasuneko softwarea zure telefonoan eta hari konektatutako edozein ordenagailutan. Erabili birus kontrako aplikazio bakarra aldi berean. Bat baino gehiago erabiltzeak gailuaren eta/edo ordenagailuaren funtzionamendua kalte dezake.
- Kontuz ibili aldez aurretik instalatutako Interneteko hirugarrenen guneetarako esteketara eta laster-marketara sartzen bazara. Nokiak ez ditu toki horiek onartzen edo babesten.

Inguru eragilea

Telefono honek irrati-frekuentziakiko espazio-arauak betetzen ditu baldin eta modu egokian erabiltzen bada edo belarritik honako gutxieneko tartea mantentzen bada: 1,5 zentimetrotara (5/8 hazbete). Soinean eraman ditzakezun zorro babesle, gerriko poltsaxo edo euskarriek ez lukete metalik izan behar eta telefonoa gorputzetik aurrez alpatutako distantziara eraman beharko zenuke.

Datu-fitxategiak edo mezuak bidaltzeko, kalitate oneko sare konexioa beharrezkoa da. Datu-fitxategiak edo mezuak beranduago bidaliko dira horrelako konexioaren bat eskuragarri egon arte. Jarraitu tarteari buruzko argibideak transmisioa amaitu arte.

Ibilgailuak

Irrati-frekuentziako seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoetan eragina izan dezakete, hala nola, erregaiaren injekzio elektronikoetan, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoetan, abiaduraren kontrol elektronikoetan edo airbag sistemetan. Informazioa lortzeko, egiaztatu autoaren edo honen ekipamenduaren fabrikatzailearekin.

Langile kualifikatuek soilik instala ditzakete telefonoak ibilgailuetan. Behar bezala instalatu edo erabili ezean, arriskuak sor dezakete eta bermea baliogabe daiteke. Egiaztatu erregularki ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukoiak, gasak edo material lehergarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Gogoratu airbag-ak indar handiarekin puzten dela. Ez jarri telefonoa edo osagarriak airbag-a aterako den tokian.

Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Haririk gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arrisksua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako, bai eta legez kanpokoa ere.

Balizio ingurune leherkorrak.

Itzali telefonoa leherketak gertatzeko arriskua badago. Bete argitaratutako argibideak. Txinpartak horrelako inguruetan gertatuz gero, leherketak edo suteak gerta daitezke, kalte fisikoak edo heriotza eraginez. Itzali telefonoa gasolina inguruan dagoenean, gasolindegietan, adibidez. Jarraitu gasolina gordetzen eta banatzen den tokietan erabiltzeko murriztapenak, bai eta gune kimikoetan edo eragiketa arrisksutsuak abian direnean. Leher daitekeen ingurumena duten lekuak argi eta garbi markatuta egon ohi dira, baina ez beti. Zure autoaren motorra itzaltzeko eskatzen zaizun tokiak, itsasontzietako bizkar azpian, transferentzia kimikoak egiteko edo biltegitratzeko eraikuntzak eta aireak alea, errautsa edo metalezko partikulak dituen ingurumenak barne. Likido egindakako petroleo-gasa erabiltzen duten autoen egileekin egiaztatu behar duzu (butano edo propano, esaterako) hurbilean gailu hau segurtasunez erabil daitekeen zehazteko.

Ziurtagiri informazioa (SAR)

Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalak gomendatzen duten irrati uhinekiko arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak babesteko margina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

120 Copyright-a eta bestelako oharrak

Telefono mugikorren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo (W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabilita batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daitezke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatu baitago. Kantitateak faktore batzuen arabera alda daitezke, adibidez, sare estazio gune batekiko zein hurbil zauden.

SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera telefonoa belarran erabiltzeko honakoa da: 1,03 W/kg .

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizuneri eta sareko bandaren araberaokak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

Copyright-a eta bestelako oharrak

ONESPEN ADIERAZPENA

CE 0434 !

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-718 telefonoak 1999/5/EC Arteztarauko oinarritzko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela . Onespren-adierazpen horren kopia bat http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/ helbidean aurki daitezke.

© 2010 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Nokia Connecting People eta Ovi Nokia Corporation-en marka komertzialak edo marka erregistratuak dira. Nokia tune, Nokia Corporation-en soinu-marka bat da. Hemen aipatutako gainerako produktu edo enpresen izenak jabeak dituzten merkatal marka edo izenak izan daitezke.

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltzea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak alde aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, alde aurretik horren berri eman gabe.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Produktu honek MPEG- 4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialetan ari den kontsumitzaile batek MPEG- 4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazioan dutako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo engeiatuko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lor daitezke. Ikus <http://www.mpegla.com> helbidea.

Legeak onartzen duen neurririk handienean, Nokiak edo bere beste edozein baimen hornitzailek ez du inondik inora erantzukizunik izango, edozein datu edo irabazien galeragatik edo edonola sortutako kalte berezi, ustekabeko, ondoriozko edo zeharkakoengatik.

Dokumentu honen edukiak "bere horretan" hornitzen dira. Legeak eskatzen duenetik at, dokumentu honen zehaztasunari, fidagarritasunari edo edukiari dagokionez ez da inolako bermerik ematen, ez esplizitu ez inplizituki, salerosgarritasun eta helburu jakin baterako egokitasunari dagozkion bermeak barne, baina hauek mugatu gabe. Nokia konpainiak dokumentu hau berrikusteko edo baztertzeko eskubidea gordetzen du, aldeaz aurretik horren berri eman gabe.

Telefonoaren softwarearen alderantzizko ingeniari-tza debekatuta dago aplikagarriak diren legeen mugen barruan. Erabiltzailearen gida honetan aipatutako Nokia konpainiaren adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunei dagokien mugek Nokia konpainiaren baimen hornitzaileen adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunak ere mugatuko dituzte. Produktuen, eginbideen, eta aplikazioen eta zerbitzuen erabilgarritasuna herrialdearen arabera alda daiteke. Informazio gehiago jasotzeko, jo ezazu Nokia saltzailearengana edo zerbitzu-hornitzailearengana. Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debeekatuta dago legea urratzea. Nokia-k ez du bermerik ematen eta ez du inolako erantzukizunik hartuko ere zure gailuarekin datozen aparteko aplikazioen funtzionalitatean, edukian edo azken erabiltzaileentzako laguntzan. Aplikazio bat erabiliz, aplikazioa bere horretan eman zaizula onartzen duzu. Nokia-k ez du adierazpenik egiten, bermerik ematen ezta inolako erantzukizunik hartzen zure gailuarekin datozen aparteko aplikazioen funtzionalitatean, edukian edo azken erabiltzaileentzako laguntzan.

FCCren eta Kanadako Industria Sailaren oharrak

Zure telefonoak irrati eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektronikoa batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk edo Kanadako Industria Sailak zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzerik ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefono honek FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarriarik ez eragitea eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketarik sor ditzakeenak barne. Nokiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal lezake.

Hainbat eragiketa eta funtzio SIM txartelaren edo operadorearen araberakoak dira, MMS ezarpenen araberakoak edo eduki-formatuen bateragarritasunaren araberakoak. Hainbat zerbitzuetatik aparteko tarifak ordaindu behar dira.

/Argitalpena 1.1 EU

Aurkibidea**A**

adierazleak	29, 112
agenda	
Ikus <i>kontaktuak</i>	
ahots komandoak	43
ahots-deiak	
Ikus <i>deiak</i>	
alarma	89
albisteen jarioak	60
antenak	15
aplikazioak	25, 37, 104, 106, 107
aplikazioak instalatzea	106
arazoak konpontzea	113
argazkiak	
— ateratzea	65, 66
— bidaltzea	67, 99
— editatzea	68
— ikusi	69
— ikustea	67
— inprimatzea	68
— kokapen-informazioa	65
— kopiatzea	17, 100, 109
— partekatzea	63
Ikus <i>argazkiak</i>	
argazkiak ateratzea	
Ikus <i>Kamera</i>	
Argazkien editorea	68
ataza anitz burutzea	25
audio mezuak	53, 54
aurikularrak	16

B

bateria	12
— energia aurreztu	32
— kargatu	13, 14
— sartu	12
bateria kargatzea	13, 14
bideo deiak	40

bideo-deiak

— erantzun	41
— ukatu	41
bideoak	69
— bidaltzea	99
— erreproduzitu	69
— erreproduzitzea	70
— grabatzea	67
— ikustea	67
— kokapen-informazioa	65
— kopiatzea	17, 70, 100, 109
— partekatu	49
— partekatzea	48
bilatu	
— irrati-kateak	75
bilatzea	31
— kontaktuak	38
bilerak sartzea	92
bisita-txartelak	52
blogak	60
blokeatzea	
— gailua	110
— pantaila	9
— teklak	9
— urrunetik	110
blokeatzeko kodea	110
blokeo kodea	111
Bluetootha	97, 98, 99, 100
bolumenaren kontrola	9
bozgorailua	9
bulegoko aplikazioak	93, 94

C

cache memoria	59
copyright babesa	74

D

datu-konexioak	102
— Bluetootha	97
datuen babeskopiak egitea	105
dei tonuak	33, 51

dei-tonuak	45
deia zain	39
deiak	45
— bideo deiak	40
— desbideratzea	46
— egin	37, 39
— erantzun	37
— Interneteko deiak	44
— konferentzia	41
— markatutako azkena	45
— murriztea	47
— ukatu	38
deiak debekatzin	47
deiak desbideratzea	46
deskargak	
— gaiak	34
DRM (digital rights management)	74

E

edukia kopiatzea	17, 70, 73, 100, 109
edukia transferitzea	17, 70, 73, 100, 109
egoera-eguneratzeak	63
eguneratzeak	
— aplikazioak	103, 104
— gailuaren softwarea	103, 104
Egutegia	64
egutegia	91, 92
erabiltzailearen gida	18
erlojua	91
erlojuak	89, 90
Erregistroa	45
erreprodukzio-zerrendak	72
ezarpenak	
— berrezartzea	112
— hizkuntza	56
— sarbideak	95
ezarpenak berrezartzea	112

F

fitxategi-kudeaketa	105, 106
---------------------	----------

fitxategien kudeaketa	104, 105, 106
FM irratia	74, 75, 76

G

gaiak	34
gailua	
— konfigurazioa	18
— piztea/itzaltzea	16
gailua pertsonalizatzea	33, 34, 35, 36
gailua piztea/itzaltzea	16
gogokoak	51
grabatu	
— soinuak	74
grabatzea	
— bideoak	67
— deiak	45

H

hasierako pantaila	24, 34, 35, 36, 59
hizkuntza-ezarpenak	56
hiztegia	95
horma papera	35

I

ikonoak	29
inprimatzea	68
Internet	59
— cache memoria	59
— laster markak	60, 61
— orriak arakatea	59
Interneteko deiak	44
Interneteko konexioa	95
irratia	74, 75, 76
irudiak	
Ikus <i>argazkiak</i>	

J

jakinarazpen argia	31
jarioak, albisteak	60
jatorrizko ezarpenak, berrezartzea	112

Java aplikazioak	106	— arakatzea	77
		— autoz egiteko ibilbideak	85
		— bidali tokiak	83
		— bistaratu elementuak	78, 86
		— Gogokoak	82
		— ibilbideak antolatzea	82
		— ibilbideak gordetzea	82
		— ikuspegiak aldatzea	78
		— iparrorratza	79
		— kokapena	80
		— kokapenak bilatu	81
		— kokapenak partekatzea	84
		— kokapenaren xehetasunak	81
		— mapak deskargatzea	79
		— nabigatu	85, 87
		— oinez egiteko ibilbideak	87
		— sinkronizatzea	83
		— tokiak antolatzea	82
		— tokiak gordetzea	82
		— trafikoaren informazioa	86
		markatze bizkorra	42
		memoria	105, 113
		— ezabatu	106, 112
		memoria-txartela	11, 106
		menuak	37
		mezu irakurtzailea	56
		mezuak	53, 55, 112
		— audioa	54
		— bidaltzea	54
		— hizketaldiak	55
		mikrofonoa	9
		MMS (multimedia mezuen zerbitzua)	54
		multimedia-mezuak	53, 54
		munduko erlojua	91
		munduko ordutegiak	90
		musika	71, 73
		— erreproduktzio-zerrendak	72
		N	
		nabigatzailea	
K			
kable bidezko konexioa	100		
Kalkulagailua	94		
Kamera	65		
— argazkiak ateratzea	65, 66		
— argazkiak bidaltzea	67		
— bideoak grabatzea	67		
— kokapen-informazioa	65		
kokapen informazioa	65		
kokapen-informazioa	63		
konexioak	102		
kontaktuak	50, 52		
— arazoak konpontzea	113		
— bidaltzea	52, 99		
— bilatzea	38		
— dei tonuak	51		
— editatzea	50		
— gehitzea	50		
— gogokoak	51		
— gordetzea	50		
— kopiatzea	17, 109		
— sare sozialetan	62, 64		
— sinkronizatzea	53, 108		
— taldeak	52		
— widget-ak	36		
L			
laguntza	18, 111		
laster markak	60		
lasterbideak	24, 36		
lineaz kanpoko profila	31		
linterna	9		
lizentziak	74		
M			
Mapak	76		
— ahotsez lagundutako jarraibideak	84		
— antolatu ibilbideak	87		

<i>Ikus Internet</i>	
negozio fitxak	99
Nire txartela	52
Nokia laguntzaren informazioa	111
Nokia-ko kontua	16
Nokia-ren Ovi zerbitzuak	16

— sortzea	34
PUK kodeak	111

Q

Quickoffice	93
-------------	----

R

RDS (irradi datu-sistema)	74, 76
---------------------------	--------

S

sarbide kodeak	111
sare sozialak	61, 62, 63, 64
sarrerako erretilua, mezuak	55
segurtasun kodea	111
segurtasun-kodea	110
sentsorearen ezarpenak	45
SIM txartela	52
— sartu	10
sinkronizazioa	53, 107, 108, 109
SMS (mezu laburren zerbitzua)	54
software-eguneratzeak	103, 104
softwarea	106

T

TB	
— ikusi argazkiak eta bideoak	69
— programak ikustea	70
teklak eta atalak	7, 8
teklatu birtuala	26, 27
teklatua	26, 27
teklatuaren blokeoa	9
Telefonoaren transferentzia	17, 109
testu idazketa	28
testu-mezuak	53, 54
testua idaztea	26, 27, 28
tokiko gertaerak eta zerbitzuak	61
tonuak	
— pertsonalizatu	33

U

uhala	15
-------	----

O

Oharrak	94
ordua eta data	90
Ovi by Nokia	16, 20, 53
Ovi denda	21
Ovi kontua	
<i>Ikus Nokia-ko kontua</i>	
Ovi Mapak	20
Ovi Musika	21
Ovi posta	20
Ovi Sink.	108, 109
Ovi Suite	18
Ovi zerbitzuak	16

P

partekatu, linean	63
PIN kodeak	111
posta	20, 57
— bidaltzea	59
— eranskinak	59
— irakurtzea eta erantzutea	58
— konfigurazioa	57
— postontzia	57
— sortu	59
— widget-ak	59
posta elektronikoa	
<i>Ikus posta</i>	
postontzia	
— ahotsa	46
profil mutua	33
profilak	33
— konexiorik gabe	31
— pertsonalizatu	33
— pertsonalizatzea	34

126 Aurkibidea

ukipen-pantaila	8, 21, 26, 27
urruneko blokeoa	110
urruneko unitateak	102
urtebetetzeak sartzea	92
urtemugak sartzea	92
USB bidez kargatzea	13
USB konexioa	100, 101

W

web konexioa	95
web nabigatzailea	59, 113
web-jarioak	60
weba	
Ikus <i>Internet</i>	
widget-ak	36, 59
widgetak	70
WLAN (hari gabeko tokiko sarea)	96, 97

Z

zereginak	92
Zip kudeatzailea	95